



Administrazio Kudeaketa

Kontabilitate orokorra eta diruzaintza



LANBIDE
EKIMENA



▣ *Proiektuaren bultzatzaileak*



▣ *Laguntzaileak*



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gizarte eta Erakunde Harremanetarako
Departamentua

▣ *Hizkuntz koordinazioa*



hizkuntz
ELHUYAR
zerbitzuak

Egilea(k): GONZALEZ BLANCO, CARMEN

Zuzenketak: Elhuyar Hizkuntza Zerbitzuak

Maketa: Itziar Etxabe

Azalaren diseinua: Naiara Beasain

2007an prestatua



Aurkibidea

1. UNITATE DIDAKTIKOA. ENPRESA: NAHITAEZKO UNITATE EKONOMIKOA EDOZEIN EKONOMIATAN.....	2
1.1. Enpresen beharra	2
1.2. Enpresa motak.....	4
✓ Forma juridikoaren arabera	4
✓ Jardueraren arabera.....	9
✓ Tamainaren arabera	9
1.3. Kontabilitatea	10
1.4. Inbentarioa eta balantzea	11
1.5. Egoera-balantzearen analisisa	14
1.6. Ikasgaiari buruzko ariketak.....	21
2. UNITATE DIDAKTIKOA. KONTABILIZATZEKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK.....	27
2.1. Kontabilitate-liburuak: egunkari liburua	27
2.2. Liburu nagusia	28
2.3. Egunkari liburuaren idazpenak.....	29
2.4. Kontu baten saldoa.....	34
2.5. Kontabilitateko egitateen motak	35
2.6. Liburuak legezatzeko betebeharra	35
2.7. Ikasgaiari buruzko ariketak.....	37
3. UNITATE DIDAKTIKOA. KONTABILITATEKO KONTUAK ETA KONTABILITATEAREN IKUSPEGI OROKORRA. KONTABILITATE-ZIKLOA.....	43
3.1. Sarrera.....	43
3.2. Kontabilitate-printzipioak	45
3.3. Zenbait urrats kontabilitate-prozesua ulertzeko	52
3.4. Erosketa eta gastuen kontuak eta salmenta eta sarreraren kontuak	55
3.5. Erregularizazioa.....	58
3.6. 6. taldea, erosketa eta gastuak, eta 7. taldea, salmenta eta sarrerak	64
3.7. Kontabilitate-zikloa: ikuspegi orokorra.....	67
3.8. Ikasgaiari buruzko ariketak.....	78

4. UNITATE DIDAKTIKOA. IZAKINEN EROSKETAK, IZAKINEN SALMENTAK. IZAKINEN ERREGULARIZAZIOA. IZAKINEN BALIOESTEA. MERKATARITZA-EFEKTUAK. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA.....	84
4.1. Izakinen erosketak. Izakinen salmentak.....	84
✓ Salgai-erosketak.....	84
✓ Gastuen beste kontu batzuk.....	89
✓ Salgai-salmentak.....	93
✓ Sarrerren beste kontu batzuk.....	99
4.2. Izakinen erregularizazioa.....	113
✓ Sarrera.....	113
✓ Garapena.....	114
4.3. Izakinak balioestea.....	126
4.4. Merkataritza-efektuak.....	138
4.5. Bibliografia.....	154

KONTABILITATE OROKORRA ETA DIRUZAINZA

1 ENPRESA: NAHITAEZKO UNITATE EKONOMIKOA

EDOZEIN EKONOMIATAN

1.1 Enpresen beharra

Gure inguruari begiratzen diogunean, edozein tokitan egon arren, baita pobreenean ere, hainbat ondatsun eta zerbitzu ikusten dugu, adibidez, heziketa, altzariak, janaria... Horietako bakoitzak bere zergatia dauka; denak daude gizakiaren mende urteetan garatu dituen beharrak asetzeko. Behar horien artean, ezin ditugu guztiak maila berekotzat hartu: alde batetik ezinbestekoak daude —hau da, janaria, ura, arropa—; bestetik, ezinbestekoak ez direnak, haiek gabe ere molda baikaitezke —esaterako, luxuzko auto bat, sekulako etxetzarra...—.

Baina galdera hau egin diezaiokegu geure buruari: zergatik ez dira ekoizten nahi ditugun beste gauza? Galdera horren erantzuna ekonomiaren gakoa da: baliabideak mugatuak direlako eta, horren ondorioz, gure nahiak ondasunak baino askoz handiagoak direlako —gure anbizioaren arabera—. Inoiz ez dugu nahikoa izaten dugunarekin. Eta nola kontrolatzen da daukagunaren eta gure desioen arteko aldea? Diruaren bitartez: diruak finkatzen du zer erosi, zein kalitatetakoa, eta, bide batez, zein den ahal dugunaren eta ezin dugunaren arteko tartea.

Testuinguru horretan, zer garrantzi ematen diogu enpresari? Bada, enpresak dira gure eskaerei erantzuna ematen dietenak.

Indarrean dagoen ekonomia-sistemaren arabera (kapitalista, plangintza zentralekoa...), enpresak honelakoak edo halakoak izango dira. Ekonomia-sistema edozein delarik ere, ohiko galderari erantzun behar diete:

1. Zer ondasun eta zerbitzu ekoitzi?
2. Nola ekoitzi? Zer teknologia mota erabili?
3. Nork kontsumituko dituzte ondasunok? Norentzat izango dira?

Enpresek baliabide hauen bidez erantzuten diete lehenengo bi galderari:

1. **Giza faktorea.** Enpresetan jarduten duten pertsonak. Batzuetan, beste esanahi bat dauka faktore honek: hots, indar fisikoa eta kapital intelektuala. Jakina da pertsonak direla ahalmen horiek dituztenak.
2. **Faktore materialak.** Hauen artean edozein motatako elementu materialak daude: makinak, bulegoko altzariak, lehengaiak, ordenagailuak...

3. **Lurra.** hitzaren adierarik zabalenean, natura-baliabideak dira: urbanizatutako eta urbanizatu gabeko lurra, landu daitekeena eta landu ez daitekeena; itsasoa eta haren edukiak (arrainak, koralak...), eta, azkenez, meatzeak.
4. Badago beste bat, azken urteotan landu dena: **antolakuntza**. Inork ez daki zehatz-mehatz zer den. Enpresa bat sortzeko, ekimena eta sena behar dira, baina hasieran behar dena, tamalez, ez da nahikoa izaten enpresa garatzen joan ahala: ekimen eta sen horiek ez ezik, antolatze ahalmena ere eduki behar da, hau da: giza faktoreak, faktore materialak eta lurra erloju bat bezain doi antolatze ahalmena: atal bakoitza engranaje-sistema baten zatia izango balitz bezala, eta denak batera martxan.

Orain artekoa irakurri eta gero, ematen du jendeari mesedea egiteko daudela enpresak. Baina ez da horrela. Enpresaren helburu nagusia ez da altruista izatea, etekinak ateratzea baizik. Etekinak ateratzea ez da berez helburua, merkatuan jarraitzeko lehen baldintza baino.

Hariari jarraituz, nola defini dezakegu zer den etekina?

Etekinak salmenten eta erosketen arteko aldea da.

$$\text{Etekinak} = \text{Salmentak} - \text{Erosketak}$$

Batzuen iritziz, berdinak dira salmentak eta diru-sarrerak. Baina nahiz eta epe laburrean edo luzean izango diren, lehenengo unean ez dute zertan berdinak izan. Salmentak, bezeroak ordaintzen joan ahala, kutzako fluxu bihurtzen dira —diru-sarrera, kasu honetan—. Eta, aldi berean, hornitzaileei eta hartzeko-dunei ordaintzen diegun heinean, kutzako fluxu bihurtzen dira erosketak ere —diru-irteera, kasu honetan—. Denboraren poderioz, bezeroek huts egiten ez badute eta guk ere gure zorrak ordaintzen baditugu, ez dago inolako diferentziarik salmentaren eta diru-sarreraren artean (batetik) eta ordaintzekoaren eta diru-irteeraren artean (bestetik), baina ez sortzen diren unean.

► 1. ariketa

Kepa J. enpresa baten arduraduna da, eta, inbertsio-proiektu bat martxan jartzeko, erabaki du makina berri bat erostea.

Haren prezioa 6.000 eurokoa da, eta azken bolada honetan enpresaren egoera ez denez onenetarikoa, *leasing*-enpresa batera jo du Kepak. Enpresa horrek aukera eman dio makinaren prezioa sei zatitan banatzeko. Ordaintzeko datak urte bakoitzeko azken egunak izango dira.

Datu horiek kontuan hartuz, zehatz ezazu noiz gauzatu den erosketak eta noiz diru-irteerak.

Azal ezazu alderik egongo ote den seiurtekoaren amaieran haien artean.

▶ **2. ariketa**

Krokodilo S.A.k baldintza hauek hartu ditu arau gisa bezeroei salmentetan ezartzeko: prezioaren % 25ekoa, saltzean, eta gainerakoa hiru epetan (kantitate berdina) ordaindu behar dute: 30 egunen buruan, 60 egunen buruan eta 90 egunen buruan. Eman dezagun salmenta-prezinoa 10.000 €-koa izan dela:

- ✓ Identifika itzazu hasierako salmenta eta hileroko diru-irteerak.
- ✓ Eta bezeroak porrot egingo balu eta azken epe biak ordainduko ez balizkigu, berdin-berdinak izango lirateke salmentako prezioa eta diru-sarrerak epealdiaren amaieran?

1.2 Enpresa motak

Argi dago enpresaren jarduera berdina dela beti: hau da, salmentak egitea eta erosketak egitea; oinarriko jarduera horien bitartez, enpresak etekina ateratzen du.

Ez dago irizpide bakarra enpresak sailkatzeko. Irizpideak kontaezinak izan daitezke, baina hemen hiruzpalau baino ez ditugu erabiliko.

Forma juridikoaren arabera

Enpresak, hartzen duten forma juridikoaren arabera, izan daitezke:

- a. Enpresa indibiduala.
- b. Enpresa-sozietatea:
 - b.1. Pertsonalista: kolektiboa eta komanditario sinplea.
 - b.2. Kapitalista: Akziodun komanditarioa.
 - Erantzukizun mugatukoa.
 - Sozietate anonimoa.
 - Lan-sozietatea.
 - b.3. Gizarte-intereseko sozietatea: kooperatiba.

Sailkapen hau sakonegia da gure helburuetarako, gaur egungo gizartean gehien zabaltzen ari direnak baino ez baititugu aztertuko hemen; hots, enpresa indibiduala, erantzukizun mugatukoa, sozietate anonimoa eta kooperatiba. Enpresa mota bakoitzak bere ezaugarriak ditu.

► Enpresa indibiduala

Enpresa mota honen ezaugarri nagusia da pertsona bat dela jabea. Gaur egun, ezin daiteke esan enpresa mota honen ezaugarri eskusiboa denik, 1995ean pertsona bakarreko sozietate anonimoa eta enpresa bakarreko erantzukizun mugatuko sozietatea arautu zirenetik. Azken bi horietatik ezberdintzeko, beste ezaugarri bat gaineratu behar diogu: enpresaren zorren erantzukizuna. Enpresa indibidualaren jabe bakarrak enpresaren zorrak ordaindu behar ditu bai enpresaren ondarearekin eta bai bere ondarearekin ere —enpresarena nahikoa ez denean, kasurako—.

Gehienetan, honelako enpresak familiakoak izaten dira. Printzipioz, ez dira etorkizun handikoak.

Hona hemen beste ezaugarri batzuk:

- ✓ Edozein arlotan jardun dezake: merkataritzan, industrian...
- ✓ Enpresaburua izateko, ezinbesteko baldintzak dira hamazortzi urte baino gehiago edukitzea eta ezgaitutzat jo ez izana. Beste baldintzarik ez dago.
- ✓ Araudia Merkataritzako Kodean eta 1989ko uztailaren 25eko 19. Legean jasota dago, hain zuzen ere Espainiako Araudia Europar Batasunaren direktibetara egokitzeko erreforma partzialerako legean.
- ✓ Etekinak PFEZaren (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) mende daude, pertsona fisiko guztiak bezala.

► Erantzukizun mugatuko sozietatea

Enpresa mota honek sozietate kapitalisten eta pertsonalisten ezaugarriak ditu. Haien arteko zerbait da.

Sozietate kapitalistekin bat datoz ezinbesteko ezaugarri honetan: bazkideen erantzukizuna mugatua da, gehienez kapitalera egindako ekarpena gal dezakete bazkideek, besterik ez.

Hau da, ostera, sozietate pertsonalistenekin bat datorren ezinbesteko ezaugarria: sozietate hau egiteko, kontuan hartzen da pertsonak nolakoak diren. Horretaz gainera, pertsonalisten ezaugarri nabarmena dira beste baldintza bi hauek: batetik, bazkide izateari uzteko araututa dauden eragozpenetan, eta, bestetik, likidatzaileei uko egiteko bazkideek duten eskubidean —oso zabala—.

Hona hemen enpresa mota hau definitzen duten beste ezaugarri aipagarri batzuk:

- ✓ Merkataritza-sozietatea da, edozein jarduera izan arren.
- ✓ Araudi hau bete behar du: Merkataritza Kodea eta Erantzukizun Mugatuko Sozietateen Legea.
- ✓ Antzina gutxieneko bazkide kopurua eta gehieneko bazkide kopurua zeuden, baina araudi berriarekin ez dago inolako mugarik.
- ✓ Kapital soziala partaidetzatan banatuta dago —berdinak eta zatiezinak—. Partaidetza bat edukitzea da bazkide izateko baldintza bakarra. Behin bazkide estatusa lortuz gero, araudian jasotako eskubide ekonomikoak eta sozialak izaten dira:
 - Lortutako etekinen banaketan eta sozietatearen likidazioa dagoenean ondarearen banaketan parte hartzeko eskubidea.
 - Kaleratzen diren bazkideen partizipazioen erosketan lehentasunez erosteko eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea.
 - Sozietateen batzarretan parte hartzeko eskubidea aurreko urtean sozietateak egindakoa onesteko eta sozietateak zer urrats egingo dituen erabakitzeko.
 - Informazioa jasotzeko eskubidea (Batzar Orokorra egin baino lehen).
- ✓ Gutxieneko kapitala 3.005,06 eurokoa da. Horregatik, diru gutxi dutenentzat pentsatuta dago enpresa mota hau, baita erantzukizuna murriztu nahi dutenentzat ere. Gaur egun hauek ari dira gehien ugaritzen.
- ✓ Normalean, sozietatea kudeatzea eta sozietatearen izena (firma soziala) erabiltzea administratzaileen esku daude.
- ✓ Enpresak ezin du beste enpresa batek aldeztatik hartutako izena hartu. Behin izena hautatuz gero, *Erantzukizun Mugatuko Sozietatea*, edo *Sozietate Mugatua* itsatsi behar zaio atzetik izen horri, edo SM sigla.
- ✓ Etekinak SZren (Sozietateen gaineko Zerga) mende daude, pertsona juridiko guztiak bezala.

▶ **Sozietate anonimoa**

Oso antzinako sozietate mota da. Sortu zenetik orain arte, aldaketa asko izan ditu. Erantzukizun mugatuko sozietatea bezala, sozietate kapitalista da, zeren bazkideen baldintzak ez baitira kontuan hartzen sozietatea fundatzean. Areago, bazkideak —jabeak, hain zuzen— oso aldakorak dira.

Hauek dira ezaugarri nagusiak:

- ✓ Gorago aipatutako ezaugarria kontuan hartuz, esan dezakegu enpresa kapitalista dela; areago, aztertutako guztien artean kapitalistena ere bada. Zergatik? Jarduera jakin batzuek sozietate anonimoaren izaera bakarrik har dezaketelako — aipa ditzagun, adibide gisa, banketxeak, aseguru-etxeak...—, bazkideek ezezagunak izan nahi dutelako —dirua lortzea dute kezka nagusia—; eta, praktikan, era juridiko hau hartu dutelako enpresa handi guztiek, zorrozki hartu ere —betidanik lotu dugu sozietate mota hau enpresa handiekin, esaterako, BBVA, Carrefour... —.
- ✓ Araudi hau bete behar du: Merkataritza Kodea eta Sozietate Anonimoen Legea.
- ✓ Merkataritza-sozietatea da, edozein jarduera izan arren.
- ✓ Bazkideen erantzukizuna mugatua da: gehienez, enpresari ordaindutakoa gal dezakete.
- ✓ Sozietatea irekia da: ez dago inolako oztoporik sozietatean sartzeko eta hartatik irteteko. Sartzeko betekizun bakarra akzio bat erostea da, eta, irteteko, akzio hori saltzea. Baina hariari jarraituz: zer dira akzioak? Enpresaren kapitala akziotan banatzen da, eta, beraz, kapitalaren zati bat da akzioa.
- ✓ Gutxieneko kapital soziala 60.101,21 eurokoa da. Gehienekorako ez dago mugarik.
- ✓ Behin bazkide estatusa lortuz gero, araudian jasotako eskubide ekonomikoak eta sozialak izaten dira.
- ✓ Normalean, lau aukera daude sozietatea kudeatzeko eta sozietatearen izena erabiltzeko:
 - administratzaile bakar bat izatea.
 - solidarioki jarduten duten zenbait administratzaile.
 - mankomunatuki jarduten duten zenbait administratzaile.
 - administrazio-kontseilua.
- ✓ Enpresak ez du hartu behar beste enpresa batek aldeztu aurretik hartutako izena. Behin izena hautatuz gero, *Sozietate Anominoa* edo SA sigla itsatsi behar zaio atzetik.
- ✓ Etekinak SZren mende daude, pertsona juridiko guztiak bezala.

► Sozietate kooperatiboa

Gizarte-intereseko sozietate bat da.

Definizio zehatza eman beharrez, ezaugarrietan oinarrituko gara sozietate kooperatiboa zer den zehazteko.

Hauek dira ezaugarri aipagarrienak:

- ✓ Pertsonen elkarte bat da, hots, pertsonak dira ardatz nagusia sozietate mota honetan.
- ✓ Pertsonak direnez garrantzitsuenak, haien interesak eta beharrak asetzera bideratzen da enpresaren helburua.
- ✓ Bazkideak aske dira elkartean sartzeko eta hartatik irteteko.
- ✓ Bazkideak berdin-berdinak dira sozietatean; elkartearen egitura eta funtzionamendua demokratikoak dira. Labur esateko: bazkide bat, boto bat.
- ✓ Estatutuek kontrakoa esan ezean, bazkideen erantzukizuna murriztuta dago: ez diete zertan aurre egin zorrei beren ondare pertsonalarekin.
- ✓ Bazkideak enpresaren eguneroko jardueran parte hartzen du. Hainbat kooperatiba mota izan daitezke, jardueraren arabera: elkarlanekoak, kontsumokoak, etxebizitzakoak, nekazaritzakoak, luraren ustiapen komunekoak, zerbitzuetakoak, itsasokoak, garraiolariak, aseguruak, osasunekoak, irakaskuntzakoak, hezkuntzakoak, kreditukoak eta abar.
- ✓ Bi motatako bazkideak daude: bazkide langileak eta bazkide laguntzaileak.
- ✓ Enpresaren emaitzak positiboak izanez gero, bazkideek kooperatiba-itzulkin positiboa jasoko dute.

Horietaz gainera, hauek ere gehi ditzakegu:

- ✓ EAEren esparruan berezko araudia dago. Zergatik? Enpresa ugari hartzen dutelako modalitate juridiko hau, eta beste leku gehienetan baino gehiago eta handiagoak direlako.
- ✓ Estatutuek gutxieneko kapitala ezartzen dute, baina bazkideak gutxitu edo gehitu ahala gorabeherak izaten ditu, ez beste sozietateetan gertatzen den bezala —haitan kapitala finkoa da, eta bazkideen arteko akordioa da aldatzeko bide bakarra—.
- ✓ Pertsona fisikoen edo juridikoen elkarte bat da, eta lehen gradukoa edo bigarren gradukoa izan daiteke. Bigarren gradukoak beste sozietate kooperatibo batzuen elkarrekin dira; lehen gradukoak, ostera, jatorrizko elkarrekin dira.
- ✓ Bazkideen kopurua: bitik bostera artekoa, kooperatiba motaren arabera.
- ✓ Sozietatearen organoetatik nabarmentzen dira, besteak beste, Batzar Nagusia, Zuzendari Batzordea, Errekurtso Batzordea eta kontu-hartzaileak.
- ✓ Aurreko bi kasuetan bezala, *Sozietate Kooperatiboa* edo *S. KOOP.* sigla erantsi behar da sozietatearen izenaren atzean.
- ✓ Etekinen gaineko zerga SZ izaten du.

■ Jardueraren arabera

Enpresen ondasunak eta zerbitzuak kokatzen ditugun sektore ekonomikoaren arabera, hauek ezberdindu ditzakegu:

- ✓ **Lehen sektorea:** nekazaritzako, abeltzaintzako, arrantzako eta meatzaritzako produktuak ekoizten dituzten enpresak.
- ✓ **Bigarren sektorea:** aldatze-prozesu baten ondoren produktu garatuagoak ekoiztea dute jarduera nagusi sektore honetako enpresek. Egia esan, haien artean badaude industria-enpresak, eta begirune handiz zaindu behar ditugu, ekonomiaren eragileak dira eta.
- ✓ **Hirugarren sektorea edo zerbitzuen sektorea:** sektore honetako produktuen eta gainerako sektoreen produktuen aldea da sektore honetakoak materiagabeak direla. Gaur egun, estatu aurreratuenen barne-produktu gordinaren zatirik handiena hirugarren sektoreari dagokio; horregatik da hain ezaguna *economic tertiarization* prozesua: hau da, apurka-apurka, lehen sektorea desagertuz doa, bigarren sektoreak gero eta pisu gutxiago du ekonomian, eta etengabe puztuz doa hirugarren sektorea. Hauen artean ditugu bidaia-agentziak, ospitaleak, aseguru-etxeak, banketxeak...

□ Tamainaren arabera

Baina... zer da enpresa baten tamaina? Enpresa handi bat eta enpresa txiki bat ezberdintzeko, hainbat irizpide har ditzakegu kontuan: kapitala zenbatekoa den, salmenten hedapena —noraino heltzen diren produktuak—, salmenten kantitatea —fakturazio-bolumena—, etekinak, zenbat langile dituen enpresak...

Erakunde batzuek irizpide batzuk argitaratu dituzte sailkapen zehatza egiteko, ELGEk adibidez. Baina zehaztaper horiek guztiak alde batera utzita, honela sailka ditzakegu enpresak:

- ✓ Tokiko enpresak: herri jakin batean aritzen diren enpresak.
- ✓ Autonomia-erkidego batean diharduten enpresak eta estatu batean dihardutenak: hamaika herritan ekoizten edo saltzen dituzte beren produktuak, baina bakoitzak bere esparruan.
- ✓ Enpresa multinazionalak: hainbat lurraldetan zabaltzen da hauen jarduna. Globalizazioaren ondorioa da. Gerta daiteke enpresa batek ekoizpen-prozesuaren zati bat herrialde batean garatzea, eta beste batean ekoizpen-prozesuaren beste zati bat; beraz, prezioak oso baxuak dira, eta pizgarria izaten da hori makina bat herrialdetan saltzeko.

1.3 Kontabilitatea

Kontabilitatea zientzia bat da, eta, zehatzagoak izateko, enpresa baten informazioaren zientzia da. Nori zuzentzen zaio? Enpresarekin zerikusia duten guztiei eta enpresaren gorabeheretan interesaturik daudenei. Haietako eragile bakoitzak bere interesa dauka enpresan, hots, enpresaburuek, hartzekodunek eta hornitzaileek, bezeroek, langileek eta ogasun publikoak.

Kontabilitateak eskaintzen duen informazioa era askotakoa da, eta haren bidez jakin dezakegu:

- ✓ Zenbatekoak izan diren etekinak urte jakin batean. Zenbateko etekina banatu behar duten bazkideek eta zenbateko etekina geratu den enpresa barnean ibilgetua indartzeko.
- ✓ Zenbatekoak izan diren aurreko hamarkadan enpresa baten etekin gordinak eta nola eboluzionatu duten, ehuneko zenbat igo edo jaitsi diren.
- ✓ Zenbatekoak izan diren aurreko urtean erosketa-bolumena eta salmenta-bolumena enpresaren ohiko eragiketetan.
- ✓ Zenbatekoa izan zen k/k-aren saldoa ekitaldiaren azken egunean (abenduarien 31n), eta data bereko kuxaren saldoa ere bai.
- ✓ Zenbat ondasun daukagun ibilgetuan. Noiztik daukagun gure ondarean. Zaharkituta ote dagoen, eta berritu behar ote den.
- ✓ Zenbateko kapitalarekin hasi ginen, eta handitu egin ote den bazkideen erabakien ondorioz.
- ✓ Gure enpresak beste enpresek dituztenak bezalako adierazleak ote dauzkan. Aurreratuta edo atzeratuta dagoen —konparazio moduan—.

Kontabilitateak eskaintzen duen informazioa ondareari eta mozkinari buruzkoa da. Informazio hori guztia bi dokumentu hauen bitartez lortzen da:

- ✓ Balantzea: ondarearen egoerari buruzko informazioa eskaintzen du.
- ✓ Galdu-irabazien kontua: emaitzari eta haren jatorriari buruzko informazioa.

Kontabilitatea (eta kontabilitate-liburuak) ezin da edonola egin, legeriaren arabera baizik. Azken legea, indarrean dagoena, 1990ko abenduaren 26ko Errege Dekretua da. Hauek dira lege horren ezaugarri nagusiak:

- ✓ Europar kontabilitatearen irizpideei jarraitzen die. Horrela, Euskal Herriko enpresa batean sortutako kontabilitatea edozein europar estatutako enpresa batekoarekin aldera daiteke. Dirudienez, nazioarteko kontabilitatea sortzeko proiektu bat dago (Nazioarteko Kontabilitaterako Araudia).
- ✓ Lehen zehaztutako errege-dekretua kontabilitate-testua, eta ez ditu aintzat hartzen Fiskalitatearen irizpideak.
- ✓ Irekia da. Aldaketak onartuta daude, eta, denbora pasatu ahala, eguneratu egin behar da.
- ✓ Malgua da. Horregatik, zati batzuk borondatezkoak dira, hots, batetik, kontu-koadroa eta, bestetik, definizioak eta kontabilitate-erlazioak. Gainera, sektore jakin batean diharduten enpresentzat (eraikuntza-enpresentzat, kasu), arloz arloko berariazko plana —berariazko kontabilitatea— ere badago.
- ✓ Oso zorrotza da, eta xehetasunei begiratzen die. Aurreko kontabilitate-planaren hutsuneak betetzen ditu, eta, horretaz gainera, “Taldeko enpresekin egindako eragiketak” eta “Elkarteetako enpresekin egindako eragiketak” banakatzen ditu kontu batzuk erabiliz.

1.4 Inbentarioa eta balantzea

Ematen du inbentarioa eta balantzea gauza bera direla. Biek hartzen dituzte erreferentzia modura enpresaren ondare-elementuak, eta sailkatu egiten dituzte. Gainera, une jakin bati dagozkio, hau da, analisi estatiko bat egiten dute.

Baina ez dira berdinak. Inbentarioak ez dauka balantzeak bezainbesteko garrantzirik; inbentarioarekin konparatuz, lehentasunezkoa da balantzea. Zergatik? Lehenengoz merkataritza-erregistroan legeztatu ondoren han bertan jarriko delako argitaratze-mekanismo gisa. Baina, horretaz gainera, balantzea legezko dokumentu bat ere bada: Kontabilitate-plan orokorrak sortutako emaitza, hain zuzen.

► Inbentarioa

Enpresa baten jarduera hasi baino lehen inbentarioa adierazi behar da, baita ondarearen egitura eta kontuak jakin nahi diren bakoitzean ere, enpresa baten benetako kapitala jakin nahian gabiltzanean. Alderdi hauek dauzka:

- ✓ Zerrenda zehatza: data finko batean zenbait ondasunek, eskubidek eta ordaintzeko betebeharrak —zorrek— osatzen duten ekonomia unitate baten ondarearen zerrenda zehatza.
- ✓ Ondare-elementuak: Zenbat dira? Zenbat dira atal bakoitzean?
- ✓ Ondare-elementu horiek ondo balioztatuta egon behar dute: hain zuzen ere, erosketaren arabera edo produkzio-kostuen arabera.

Hainbat motatakoak izan daitezke:

- ✓ Orokorrak eta partzialak
- ✓ Analitikoak eta sintetikoak
- ✓ Ohikoak, ezohikoak eta judizialak

▶ **Balantzea**

Balantzea inbentarioaren antzekoa da, baina lehenago aipatu dugun bigarren ezaugarria da haien arteko aldea, balantzeak ez baitu betetzen ezaugarri hori: oro har biltzen ditu ondare-elementuak, ez inbentarioan legez zehaztuta, bakoitza deskribatuz, eta bakoitzaren balioa zehaztuz. Ondare-elementu horiek banakaturik ikusi nahi baditugu, urteko kontuetara jo behar izango dugu.

Definizioa: balantzea urteko kontuen dokumentu bat da, eta hor sailkatzen dira enpresak izandako ondasunak, eskubideak eta betebeharrak—hau da, ordaintzeko betebeharrak edo zorrak—. Prozesu hori egun jakin batean egiten da; normalean ekitaldiaren azken egunean egiten da, baina ez derrigorrean. Gerta daiteke enpresak porrot egin duelako ekitaldiaren beste edozein egunetan egin behar izatea.

Balantzearen egitura: balantzeak bi alde dauzka, aktiboa eta pasiboa. Enpresaren ondasun eta eskubide guztiek aktiboa osatzen dute; pasiboa, berriz, finantza-iturriek. Finantza-iturri batzuk propioak dira, inork ezin dizkio eskatu enpresari —bazkideek izan ezik, eta egoera jakin batzuetan baino ez—.

Une honetan ez dugu balantzean sakonduko, hurrengo puntuan jardungo dugu balantzearekin.

▶ **3. ariketa (ebatzia)**

Bere bi alabekin zuzen jokatu behar duela eta, kezkatuta dabil Eustakio. Eta, horretarako, erabaki hau hartu du: bere kapital likidua kalkulatzea, erdibana emateko alabei. Hauek dira kontuan hartu beharreko elementuak:

Jaioterriko etxea	48.000 €-an balioztatua
Seat Leon autoa (iaz erositakoa)	15.000 €-an balioztatua
Hiriko etxea	210.000 €-an balioztatua
Garajea	24.000 €-an balioztatua
Hamar hektareako lur-saila	60.000 €-an balioztatua
BBK-ko aurrezki-kontua	50.000 €-an balioztatua

Hiriko etxea ordaintzeko, mailegu bat eskatu zien BBK-koei, 105.000 eurokoa. Haietako 30.000 € ordainduak ditu, eta gainerakoa, oraindik ordaindu gabe. Iaz osabak 12.000 € utzi zizkion autoa ordaintzeko, baina aurreko urtean berak ere anaiari lagundu zion 300 € emanez, eta oraindik ez dio ezer itzuli.

Kalkula ezazu:

- ✓ Zenbatekoa den Eustakioren kapital likidoa.
- ✓ Zenbat dagokion alaba bakoitzari.

Inbentarioa:

Une honetan ezinezkoa denez kontabilitate-planaren kontuak erabiltzea, egin dezakegun gauza bakarra inbentarioa da. Kontabilitate-plana ez dago zuzenduta familia baten balantzea egitera.

Hona hemen nire proposamena:

Pertsona fisikoa	Eustakio
Data:	2006ko urtarrilaren 27
Egilea:	-----

Ondasunak eta eskubideak:

Jaioterriko etxea	48.000 €-an balioztatua
Seat Leon autoa	15.000 €-an balioztatua
Hiriko etxea	210.000 €-an balioztatua
Garajea	24.000 €-an balioztatua
Hamar hektareako lur-saila	60.000 €-an balioztatua
BBK-ko aurrezki-kontua	50.000 €-an balioztatua
Anaiarekiko eskubidea	300 €
Ordaintzeko betebeharrak:	
BBK-ko mailegua	75.000 €
Osabarekiko zorra	12.000 €

Zerrenda egin ondoren, kapital likidoa zenbatekoa den eta alaba bakoitzari zenbat dagokion jakiteko moduan gaude:

Ondasunak eta eskubideak (guztira):	407.300 €
Zorrak (guztira):	87.000 €
<hr/>	
Aldea:	320.300 €
Erdibitu: 160.150na €.	

1.5 Egoera-balantzearen analisisia

Esan beharra dago orain arte aipatutako balantzea egoera-balantzea dela; aurrera joan ahala, egoera-balantzea eta egiaztapen-balantzea bereiziko ditugu.

Balantzea funtsezko bi zatitan banatuta dago: aktiboa eta pasiboa. Horiek dira ondare-masak.

Aktiboa eskuineko aldean jartzen da. Aktiboak enpresaren egitura ekonomikoa adierazten du, eta islatzen du nola eta zertarako erabiltzen diren finantza-iturriak eta nolako inbertsioak ahalbidetzen dituzten iturriok. Pasiboa, ostera, finantza-iturriak (aktiboa finantzatzeko hartutako baliabideak, zehatzago) dira, eta ezkerreko aldean jartzen da. Bai hasieran bai urteetan zehar, berdinak izan behar dute aktiboak eta pasiboak: ez dago arazorik hasieran berdinak direla ulertzeko —bata iturriak, bestea iturri gauratzea baitira—, eta, era berean, ekitaldiak pasatu ahala berdinak izango dira kontabilitate-hitzarmena —“zordunketa eta abonuaren hitzarmena”— ondo aplikatu den neurrian.

Oreka hau da ondarearen funtsezko erregela, “enpresa-ondarearen adierazpenaren berdintza nagusia”:

$$\text{Aktiboa} = \text{Pasiboa}$$

► Aktiboa

Era berean, aktiboaren barnean bi zati ezberdintzen dira: aktibo finkoa eta aktibo zirkulatuzailea (ondare-azpimasak). Bai aktibo finkoak bai aktibo zirkulatuzaileak ondasunak eta eskubideak dituzte, baina ezaugarri ezberdinetakoak.

Aktibo finkoa: honen ondare-elementuek urtebete baino gehiago irauten dute enpresan. Ezinbestekoak dira enpresaren etorkizunerako, eta horiei esker egiten da ekoizte-prozesua.

Halaber, aktibo finkoan —edo Ibilgetuan, berba biak erabil baitaitezke— hiru maila ditugu:

- ✓ **Ibilgetu materiala:** higigarria, garraio-elementuak, makineria, instalazio teknikoak... Elementu horiek guztiek ezaugarri nagusi bat dute: ukigaiak, materialak izatea.
- ✓ **Ibilgetu ez-materiala:** kontzesio administratiboak, merkataritza-funtsak, aplikazio informatikoak, industria-jabetza, epe luzerako eratutako fidantzak, kapitalaren finantza-inbertsio iraunkorrak, errenta finkoko balioak... Elementu horiek guztiek ere ezaugarri nagusi bat dute: ukiezinak, ez-materialak izatea.
- ✓ **Alegiazko aktiboa:** batzuek ibilgetu ez-materialaren taldean sartzen dute, baina haien arteko ezberdintasuna da talde honetako elementuek ez dutela inolako baliorik merkataritzan gauzatzeko: ezin dira saldu, sortu diren enpresan bakarrik direlako baliozkoak. Arrazoi batengatik daude aktiboan: sortzen diren ekitaldi berean ezin direlako hastapen-gastu guztiak egotzi, eta bost ekitalditan edo hamar ekitalditan —merkataritza-funtsaren kasuan— bana daitezkeelako.

Aktibo zirkulatzailerak: aktibo zirkulatzaileraren elementuek ekitaldi bat baino gutxiago irauten dute enpresan. Baina hori ez da aktibo finkoaren eta aktibo zirkulatzaileraren arteko desberdintasun bakarra. Esan dugu aktibo finkoak egitura ekonomikoa islatzen duela; bada, aktibo zirkulatzailerak ustiatze-zikloa ahalbidetzen du, enpresaren berriarazko jardura edozein delarik ere, ekoiztea edo salerostea. Etengabe zirkulatu ari dira, eta, horren ondorioz, haien balioak aldakorrak dira ekitaldian zehar. Adibidez, urte jakin batean salmentak handituz eta erosketak gutxituz joan badira, urtarrilaren 1ean, izakinen saldo metatua oso handia izan daiteke, eta hilabete bat pasatu ondoren, txikia. Horretaz gainera, talde honetako elementu guztiak oso likidoak dira. Ekonomian, zer esan nahi du likidezia horrek? Esan nahi du berehala bihurtu daitezkeela eskudiru, epe laburrean eta diru kopuru handirik galdu gabe —aktibo zirkulatzaileraren kasuan— ustiatze-zikloaren ondorioz.

Aktiboaren barnean hiru ondare-masa ezberdin ditzakegu:

- ✓ **Izakinak:** salgaiak, lehengaiak, beste zenbait hornidura (erregaiak, ordezko piezak, hainbat material, bilgarriak, ontzikiak, bulegoko materiala...), produktu erdibukatuak, produktu bukatuak, hondarrak, azpiproduktuak, material berreskuratuak. Enpresak abenduaren 31n dituen izakinak agertzen dira balantzean. Enpresaren berriarazko jardueraren arabera, bi aukera daude: izakin batzuk saldu egiten dira, eta beste batzuk goragoko mailako produktu bihurtzen dira; jardura horiek biek enpresaren ustiatze-kostuak sortzen dituzte.
- ✓ **Bihurgarria:** kreditu eta eskubideak, normalean ustiatze-zikloan sortutakoak —baina ez nahitaez—. Gehienetan, bezeroek eta zordunek enpresari zor dioten dirua da. Batzuetan fakturretan dokumentatzen dira, eta beste batzuetan merkataritza-efektuetan.

Adibide gisa aipatuko ditugu (kontabilitate-plan orokorreko kontuak):

- Bezeroak
- Bezeroak, kobratzeko merkataritza-efektuak
- Zordunak
- Ordainketa-aurrerakinak
- Herri Ogasuna, hainbat kontzepturengatik zordun
- Epe laburrera eratutako fidantzak
- Epe laburrerako errenta finkoko balioak
- Epe laburrerako kredituak
- ...

- ✓ **Erabilgarria edo altxortegia:** likidezia handiko elementuak dira.

Hauek dira kontabilitateko kontu erabiliena:

- Kutxa, euroak
- Kutxa, euroaz bestelako dirua
- Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, euroak
- Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, atzerri-moneta
- Banku eta Kreditu aurrezki-kontuak, euroak
- Banku eta Kreditu Erakundeak, aurrezki-kontuak, atzerri-moneta
- ...

▶ **Pasiboa**

Gorago esan dugunez, finantza-iturriak adierazten ditu pasiboak, eta finantza-egitura islatzen du. Iturri guztiak ez dira maila berekoak. Batzuk iraunkorrek dira, urtebete baino gehiago egoten baitira enpresan, eta beste batzuek epe hori baino gutxiago irauten dute.

Pasiboaren lehenengo sailkapenaren arabera, bi zati ditu: pasibo finkoa eta pasibo zirkulatzaila.

Pasibo finkoa:

Pasibo finkoaren elementuek urtebete baino gehiago irauten dute enpresan. Era berean, iraunkorren artean beste berezitasun bat egin daiteke enpresatik kanpoko pertsonen (pertsona juridiko nahiz pertsona fisikoen) galdagarritasunaren arabera: hau da, enpresaren bizitza osorako egoteko joera dutenak —ez-galdagarriak— batetik, eta itzuli beharrekoak —galdagarriak— bestetik.

Aktiboa likideziaren arabera sailkatzen den bezala, enpresatik kanpokoek duten zorren galdagarritasunaren arabera sailkatzen da pasiboa. Batetik, baliabide propioak edo ondare garbia dugu; bestetik, epe luzerako galdagarria.


- ✓ **Baliabide propioak edo ondare garbia:** kapitala eta urteetan zehar banatu gabeko mozkinak —esaterako, autofinantzatzekoak—. Kontabilitate-plan orokorrean honela agertzen dira: kapitala, kapital soziala, erreserbak, galdu-irabaziak...
- ✓ **Epe luzerako galdagarria:** enpresak urte bat baino gehiagoko epean itzuli behar dituen zorrek osatzen dute azpimasa hau. Esaterako, kreditu-erakundeekiko epe luzerako zorrak, epe luzerako zorrak, epe luzera ordaintzeko merkataritza-efektuak...

Pasibo zirkulatzalea

Bat dator epe motzerako galdagarriarekin (izan ere, izen biak erabil daitezke). Esanahia: enpresak urtebete baino gutxiagoko epe laburrean ordaindu behar dituen zorrak.

Adibidez: hornitzaileak, hornitzaileak ordaintzeko merkataritza-efektuak, epe laburrerako obligazio eta bonuak, kreditu-erakundeekiko epe laburrerako zorrak, epe laburrerako zorrak, zerbitzu-prestazioagatiko hartzekodunak...

Emandako guztiaren eskema orokorra:



Amaitzeko, bi adibide ikusiko ditugu: enpresa baten inbentarioa eta balantzea.

► **4. ariketa (ebatzia)**

Enpresa bat dugu, Beta S.A. izenekoa, Deustuko Erriberan kokatua. Jarduera nagusia elastikoak ekoiztea du, baina, era berean, Valentzian dagoen enpresa bati erosten dizkio jertseak. Hala, ondasun-elementu hauek ditugu gure ondarean 2006ko urtarrilaren 1ean:

1. Erribera kaleko lurra, 2.000 euroan erosia.
2. Lur horren gainean egindako eraikin bat, 108.000 euroan balioztatua.
3. Makineria. Ondasun-elementu honetan, hauek ezberdindu ditugu:

	ZER URTETAN EROSA	ZENBATEAN EROSA
A makineria	1998	18.000 €
B makineria	2000	24.000 €
C makineria	2002	12.000 € (bigarren eskukoa)

4. Bulegoko altzariak, 12.000 euroan balioztatuak.
5. Pentium III hiru ordenagailu, 800na €-koak. Inprimagailua; 300 euroan erosi genuen.
6. Bulegoko materiala: guztira, 600 euro.
7. 6.000 euroko patente bat, Industria Jabetzaren Erregistroan erregistratua.
8. Izakinak:

IZAKIN MOTA	PREZIOA
Bukatu gabeko elastikoak	400 ale, 5 euroan bakoitza
Bukatutako elastikoak	1.000 ale, 6 euroan bakoitza
Jertseak	200 ale, 20 euroan bakoitza
Erregaiak	100 ontzi bete, 20 euroan bakoitza
Ontzikiak	200 ale, 1,5 euroan bakoitza
Ordezko piezak	200 ale, 1 euroan bakoitza

9. Bezeroek 2.400 €-ko zorra dute gurekin (fakturetan dokumentatua).
10. Kutxako dirua: 6.000 €.
11. BBK-ko k/k batean 8.000 €, eta aurrezki-kontu batean 3.000 €.
12. Hornitzaileekin dugun zorra: 12.000 €.
13. BBK-k emandako epe laburrerako mailegua: 24.000 €.
14. BBK-k emandako epe luzerako mailegua: 6.000 €.
15. Iaz 12.000 euroko fidantza jaso genuen.
16. Hartzekodunekin dugun zorra: 3.000 €.
17. Kapital efektiboa, diferentziaz kalkulatzekoa: % 75eko kapitala da, eta gainerakoa, borondatezko erreserba.

Egoera-balantzearen soluzioa:

Ebazteko, Kontabilitate-plan orokorreko kontuak izan ditugu aintzat. Ibilgetuenetik likidoeneraino sailkatu ditugu aktiboaren elementuak. Pasiboaren elementuak, ostera, galdagaitzenetik hasi eta galdagarrieneraino sailkatu ditugu.

Aktiboa:

Jabetza Industrialak	6.000 €
Lurrak eta ondasun naturalak	2.000 €
Eraikinak	108.000 €
Makineria	54.000 €
Altzariak	12.000 €
Informazio-prozesuetarako ekipamendua	2.700 €
Salgaiak	4.000 €
Beste zenbait hornidura:	
✓ Erregaiak	2.000 €
✓ Ontzikiak	300 €
✓ Ordezko piezak	200 €
✓ Bulegoko materiala	600 €
Produktu erdibukatuak	2.000 €
Produktu bukatuak	6.000 €
Bezeroak	2.400 €
Kutxa, €	6.000 €
Banku eta kreditu-erakundeak, ageriko k/k, €	8.000 €
Banku eta kreditu-erakundeak, aurrezki-kontuak, €	3.000 €

Guztira: 219.200 €

Pasiboa

Kapital Soziala	121.650 €
Borondatezko erreserba	40.550 €
Kreditu-erakundeekiko epe luzerako zorrak	6.000 €
Epe luzerako hartutako fidantzak	12.000 €
Hornitzaileak	12.000 €
Kreditu-erakundeekiko epe laburrerako zorrak	24.000 €
Zerbitzu-prestazioagatik hartzekodunak	3.000 €

Guztira: 219.200 €

Kapital efektiboa: 219.200 € - 57.000 € = 162.200 €

Kapital efektiboaren % 75 kapital soziala da: 121.650 €

Kapital efektiboaren gainerako % 25 borondatezko erreserba da: 40.550 €

Balantzearekin egin dugun bezalatsu egin dezakegu inbentarioarekin ere. Ez dugu ahaztu behar balantzea baino zehatzagoa denik, eta, gainera, ez ditugu zertan erabili kontabilitate-plan orokorreko kontuak. Beraz, horiek guztiak kontuan hartuz, hona gure proposamena:

Enpresa:	Beta S.A.
Data:	2006ko urtarrilaren 1a
Egilea:	Kontabilitatearen arduraduna

Ondasunak eta eskubideak:

ONDARE/ESKUBIDEA	ALE KOPURUA	PREZIOA	TOTAL PARTZIALA
Lurrak	1	2.000 €	2000 €
Eraikuntzak	1	108.000 €	108.000 €
Makineria:			
A makineria	1	18.000 €	18.000 €
B makineria	1	24.000 €	24.000 €
C makineria	1	12.000 €	12.000 €
Altzariak	1	12.000 €	12.000 €
Ordenagailuak:			
Pentium III	3	800 €	2.400 €
Inprimagailua	1	300 €	300 €
Bulegoko materiala	---	600 €	600 €
Patentea	1	6.000 €	6.000 €
Izakinak:			
Produktu bukatuak	1.000	6 €	6.000 €
Produktu erdibukatuak	200	10 €	2.000 €
Salgaiak	200	20 €	4.000 €
Beste zenbait hornidura:			
✓ Erregaiak	100	20 €	2.000 €
✓ Ontzikiak	200	1,5 €	300 €
✓ Ordezko piezak	200	1 €	200 €
Bezeroek gurekin dituzten zorrak			2.400 € ³
Kutxa, €			6.000 €
Bankuak:			
✓ Banku eta Kreditu Erakundeak, ageriko k/k, €	---	---	8.000 €
✓ Banku eta kreditu Erakundeak, aurrezki-kontuak, €	---	---	3.000 €
Guztira:			219.200 €

³ Ez daukagu informaziorik faktura bakoitza zenbatekoa den esateko; beraz, ezin dugu zehaztu zenbat faktura dauden eta zenbatekoak diren.

ORDAINTZEKO BETEBEHARRAK	ALE KOPURUA	PREZIOA	TOTAL PARTZIALA
Jasotako fidantza	---	----	12.000 €
Epe luzerako mailegua	---	----	6.000 €
Hornitzaileak			12.000 €
Hartzekodunak			3.000 €
Epe laburrerako mailegua			24.000 €
<i>Guztira</i>			<i>57.000 €</i>

Arduraduraren sinadura:

C. Gantibet

1.6 Ikasgaiari buruzko ariketak

1. Zergatik esan ohi da behar guztiak ez direla maila berekoak? Zein da beharren berezko ezau-garria?
Bilatu Maslowen beharren hierarkiaren piramidea.
2. Zer eragile ekonomikorok asetzen ditu beharrak? Kontuan harturik gizakiok asegaitzak izaten garela, zein da diruaren funtzioa egoera horretan?
3. Zein dira ekonomia-sistema guztiek erantzun behar dituzten galderak? Zein da erantzun bakoitzaren esanahia?
4. Zein dira ekoizteko baliabideak? Adierazi testuan agertzen direnak, eta sakondu azalpena.
5. Zein da enpresaren helburu nagusia? Zergatik? Eman adibide bat.
6. Nola kalkulatu dira enpresa baten mozkinak?
7. Zein da salmentaren eta diru-sarreraren arteko aldea? Eta gastuaren —erosketaren— eta diru-irteeraren artekoa?

8. Emorki S. Koop. enpresakoek makineriaren gaineko 600 euroko aseguru-prima (urte osokorako) ordaindu dute. Ordaintze-data abenduaren 1a izan da, eta aseguruaren estaldura hurrengo abenduaren 1era artekoa da. Noiz sortzen da diru-irteera? Eta gastua? Diru-irteera eta gastua gauza bera dira? Zein da haien arteko aldea? Noiz sortzen da kontzeptu bakoitza?
9. Isasi enpresaren jabea da Joan, eta ondasunen artean, besteak beste, bere betiko lagunari alokatutako lonja bat dauka. Diru-sarrerak hiru hilabetekoak dira, baina hiru hilabete horietako lehenengo egunetan ordaintzen dio lagunak. Diru-sarrera eta sarrera berdinak dira? Azal dezakezu bien arteko aldea?
10. 2000ko urriaren 15ean, 6.000 euroko balioko lehengaiak erosi genizkien gure ohiko hornitzaileei. Akordioetan adierazten da diru-irteera ez dela 2006ko urtarrilaren 31ra arte izango. Noiz gauzatuko da diru-irteera? Noizko efektua dauka gastuak? Zer garrantzi emango zenioke 2005ean izandako gastua kontuan ez hartzeari?
11. Gure bezeroek ohi baino gehiago erosi digute, ordaintzeko lau hilabeteko atzerapena eman diegulako, seguruenik.
 - ✓ Salmentaren eguna: 2005eko irailaren 1a.
 - ✓ Diru-sarreraren eguna: 2006ko otsailaren 1a.

Noiz jazo da kutzako mugimendua? Irailaren 1a eta abenduaren 31 bitartean, zer gertatzen da?
12. Enpresak sailkatzeko, zer irizpide hartzen dira kontuan? Zure ustez, zeinek du garrantzi handiena enpresa bat eratzeko?

13. Bete ezazu taula:

	Kapitalista vs pertsonalista	Gutxieneko bazkideak	Indarrean dagoen araudia	Merkataritza -sozietatea: bai edo ez	Gehieneko kapitala/gutxieneko kapitala	Enpresaren erantzukizuna zorrekiko	Enpresaren izena	Fiskalitatea	Enpresaren organoak
Enpresa indibiduala									
Erantzukizun mugatuko sozietatea									
Sozietate anonimoa									
Sozietate kooperatiboa									

14. Enpresen jardueraren arabera, zer enpresa mota ezberdintzen dira?

15. Sailka itzazu jarduera hauek aurreko irizpidearen arabera:

Nekazaritza, arrantza, automobilak ekoiztea, bidaia-agentzia, finantza-jarduerak, aseguru-etxea, garraio-enpresa, merkataritza-zentroa, gimnasioa, geriatrikoa, joskintza, irakaskuntza, medikuntza.

16. Zer da kontabilitatea?

17. Zer galderari ematen dio erantzuna kontabilitateak? Jarri adibideak.

18. Zein dira kontabilitatearen oinarrizko dokumentuak?

19. Zein da kontabilitatea arautzen duen legeria? Funtsezko ezaugarriak. Zein dira azken joerak kontabilitatearen arloan?

20. Emandako informazioa kontuan hartuz, zein dira inbentarioaren eta egoera-balantzearen arteko aldeak?

21. Garikoitz Landa mekanizazio bidezko produkzioko enpresa baten jabea da 1996tik, eta erabaki du, legeriak agintzen duenez, 2005eko inbentarioa egitea Inbentario eta Balantzeen Liburua irekitzeko. Horretarako, elementu hauek dauzka ondareak:

- ✓ Hiriko landa bat eta bertan jasotako eraikin bat (aldi berean, enpresaren egoitza soziala, bai zuzendaritza nagusirako bai jakinarazpenetarako):

Lur-saila 18.000 €

Eraikina 120.000 €

- ✓ Makineria

<i>MAKINERIA MOTA</i>	<i>ZER URTETAN EROSA</i>	<i>ZENBATEAN EROSA</i>
EFQMTX	1996	120.000 €
SHTXMT	1998	140.000 €
RZKHJF	2000	160.000 €

- ✓ Altzariak: ondare-elementuak

<i>ALTZARI MOTA</i>	<i>KOPURUA</i>	<i>PREZIOA BAKOITZEKO</i>
Mahaia	6	120 €
Aulkia	20	50 €
Esekitokia	3	30 €
Armairua	2	150 €
Artxiboa	3	60 €

- ✓ Ekipamendu elektronikoa

<i>EKIPAMENDU ELEKTRONIKOA</i>	<i>KOPURUA</i>	<i>PREZIOA BAKOITZEKO</i>
Idazmakina elektronikoa	2	120 €
Ordenagailua	5	1.000 €
Inprimagailua	2	120 €

- ✓ Garraiorako elementuak

<i>ELEMENTU MOTA</i>	<i>ZEIN URTETAN EROSA</i>	<i>KOPURUA</i>	<i>PREZIOA</i>
Banaketarako furgoneta	1996	2	36.000 €

- ✓ Izakinak

Produktu bukatuak

<i>ILTZE MOTA</i>	<i>KOPURUA</i>	<i>PREZIOA BAKOITZEKO</i>
A iltzea	1.000	1,5 €
B iltzea	1.500	1,75 €
C iltzea	2.000	1 €

Produktu erdibukatuak: ekoizte-prozesua noraino heldu den, guztiz ezberdina izan daiteke kostua.

<i>ILTZE MOTA</i>	<i>KOPURUA</i>	<i>PREZIOA BAKOITZEKO</i>
A iltzea	200	1 €
B iltzea	175	1,2 €
C iltzea	10	0,75 €

Lehengaiak

<i>LEHENGAI MOTA</i>	<i>KANTITATEA</i>	<i>PREZIOA KILO BAKOITZEKO</i>
Burdina	200 kg	10 €
Altzairua	500 kg	20 €

Beste zenbait hornidura

HORNIDURA MOTA	KANTITATEA	PREZIOA BAKOITZEKO
Erregaiak	120 kg	1 €
Ordezko piezak	12 unitate	10 €
Bilgarriak	150 unitate	0,5 €
Ontzikiak	100 unitate	1 €

- ✓ Bihurgarria

Bezeroek 1.200 €-ko bi zor dituzte dokumentatuta gurekiko fakturetan. Epeak hauek dituzte:

EPEAREN AMAIERA	ZENBATEKOA
06/02/02	1.200 €
06/03/02	1.200 €

Era berean, 1800 €-ko zorra dute merkataritza-efektuetan dokumentatuta.

- ✓ Altxortegia edo erabilgarria

Enpresaren aldeko saldoak bankuko kontu korranteetan	5.000 €
Kutzako eskudirua	2.000 €

Pasiboa:

- ✓ Kapitala: 6.410 akzio; akzio bakoitzaren balio nominala: 100 €.
- ✓ Banku batek egindako mailegua, 10 urte barru itzuli beharrekoa: 12.000 €.
- ✓ Epe luzerako zorrak: 6.000 €.

Fakturetan dokumentatutako hornitzaileekiko zorrak

FAKTURAREN ZENBAKIA	HORNITZAILEA	EPEMUGA	ZENBATEKOA
824 faktura	X	01/15	482 €
28/4 faktura	Y	01/28	1.500 €
1214 faktura	Z	02/15	250 €

- ✓ Merkataritza-efektuetan dokumentatutako hornitzaileekiko zorrak:

MERKATARITZA-EFEKTUA	HORNITZAILEA	EPEMUGA	ZENBATEKOA
1 ME	A	03/18	750 €
2 ME	B	04/18	1.250 €
3 ME	C	05/18	1.400 €

- ✓ Bestelako hartzekodunekiko zorrak:

Ogasun Publikoari 1.000 € zor dio enpresak kontzeptu fiskalengatik.

Enpresak 1.200 euroko zorra dauka Gizarte Segurantzako Organismoekin.

Iberdrolari 300,5 €-ko faktura (1243/11 zk.) zor dio.

Telefonicari 345 €-ko faktura (1258/12 zk.) zor dio.

Langileekiko zorrak, hilabete bat igaro baino lehen aurrerakinak emateagatik: 300 €.

Ur Partzuergokoei 150 € zor dizkie ur-horniduragatik.

22. Aurreko datu berberekin, egizu Egoera Balantzea.

23. Aktiboaren eta pasiboaren ondare-masez gain, zer azpimasa mota bereizten dira aktiboaren barnean eta pasiboaren barnean?

24. Zein da funtsezko aldea pasiboaren eta aktiboaren artean?

25. Eta aktibo finkoaren eta aktibo zirkulatzailaren artean? Eta pasibo finkoaren eta pasibo zirkulatzailaren artean?

2 KONTABILIZATZEKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK

2.1 Kontabilitate-liburuak: egunkari liburua

Orain arte, kontabilitate-dokumentu hauek aztertu ditugu: inbentarioa eta egoera-balantzea. Balantzea legeko dokumentu bat da, eta inbentarioa, ostera, askoz irekiagoa da —hainbat inbentario mota dago inbentarioetan: kontabilitatekoa, kontabilitateaz kanpokoa, partziala, osokoa...—, baina derrigorrean egon behar du urteko kontuen liburuan sartuta.

Ezberdintasun hori alde batera utzita, dokumentu estatikoak dira biak, egiten diren garaian behintzat. Normalean, ekitaldi ekonomikoaren amaieran edo hasieran egiten dira. Baina ekitaldiak irauten duen bitartean ere egin daitezke, erdialdean adibidez: hots, enpresa batzuekiko bat-egitearen oinarrizko akordiorako, enpresa baten likidatze-ekitaldirako...

Dokumentuon gelditasun horri kontrajarrita, eragile eraginkorra eta berritzailea da enpresa, enpresaren eguneroko bizitzan hainbat ekimen egiten baita, besteak beste, erosi, saldu, ibilgetuaren balioa galdu, kapitala zabaldu, maileguen tratuak egin, beste enpresaburu batzuekin harremanetan jarri... Horiek guztiak gertaera ekonomikoak dira, baina denek ez dute aztarnarik uzten idatzizko kontabilitatean. Aldiz, idatzizko kontabilitatean arrastoak uzten dituztenei kontabilitate-gertaera edo egitate kontable deritze; horra gertaera ekonomikoaren eta kontabilitate-gertaeraren arteko aldea. Kontabilitateak kontabilitate-gertaerak bakarrik hartzen ditu aintzat.

Inbentarioak zein egoera-balantzeak berezko dokumentuak edo berezko liburua dituzten bezalaxe, enpresak egiten dituen ekimenen segida horrek berariazko dokumentua ere behar du: hain zuzen, egunkari liburua.

Urteko inbentarioa, kontuen liburua eta egunkari-liburua beharrezkoak dira, legeak eskatzen ditu. Kontabilitateko beharrezko liburuak dira ia enpresaburu guztientzat.

Egunkari liburua nola egin jakin nahi izanez gero, Luca Pacioli frantziskotarra (1445-1517) izan behar dugu kontuan, berak asmatu baitzuen gaur egun ezagutzen duguna bezalako kontabilitatea. Kontabilitateari beste ikuspuntu bat eman zionetik, idazpenek partida bikoitza daukate.

Zer da idazpena? Idazpena da egunkari liburuan agertzen diren elementuen arteko unitate txikiena. Zer da partida bikoitz hori? Kontabilizatzeko metodo bat da, eta printzipio hauetan datza:

1. Ez dago ZORrik HARTZEKORik gabe (ez dago partidarik kontrapartidarik gabe). ZORra idazpen baten ezkerreko aldeari deritzo beti, eta HARTZEKO, eskuineko aldeari. Hasiberrien ohiko akatsa da pentsatzea ZOR zorrei lotuta dagoela eta HARTZEKO ondasunari lotuta dagoela, baina ez da horrela: idazpen baten —eta, bide batez, kontu baten— ezkerreko aldea da ZORra eta eskuinekoa HARTZEKOa, ez dute beste esanahirik.
2. Kontu zordun bati edo kontu zordun batzuei kontu hartzekodun bat edo batzuk dagozkie, baina guztira zenbateko berekoak dira.
3. Ondorioz, ZOR aldean idatzitako zenbatekoak eta HARTZEKO aldean idatzitako zenbatekoak berdinak izan behar dute.
4. Edozein unetan, saldo zordunak eta saldo hartzekodunak kantitate berekoak izan behar dute kontu guztiak aintzat hartuz.

Ez gara orain horretan sartuko; ikasgaia aurrera joan ahala sakonduko dugu eta ikusiko dugu zein eragin duen.

Idazpen guztiek erantzuna ematen diete aktiboaren, pasiboaren eta garbiaren mugimenduei —ez ahaztu salmenten kontuak eta erosketen kontuak; datorren ikasgaietan ikusiko ditugu—. Egunkari liburuak enpresan gertatutako mugimenduen kronologia ipintzen digu eskura. Zehaztu dezagun egunkari liburua ez dela egunero egin behar, nahiz eta izen hori izan. Sozietate Anonimoen Legeak baimena eskaintzen dio hainbat enpresari arau hau ezartzeko: hilabetetik beherako denboraldian izandako eragiketa guztien idatzohar orokorra dena batera idatz daiteke egunkari liburuan, betiere baldintza batekin, hain zuzen, eragiketa horiek beste liburu edo erregistro batzuetan agertu behar dute zehaztasun osoarekin. Horixe egiten dute eguneroko jardunean enpresa txiki eta ertainek.

2.2 Liburu nagusia

Egunkari liburuak beste liburu bat behar du osagarri: liburu nagusia”. Liburu nagusia ez da nahitaezko liburua —legeriaren arabera—, eta esan daiteke neurri handi batean bere garrantzia galdu duela kontabilitaterako aplikazio informatikoak merkaturatu zirenetik. Unitate honetan eta datozenetan liburu nagusia egiten ikasiko dugu, baina aplikazio informatikaren bidezko kontabilitatean ez da egiten: Egunkari liburuaren ondorioz, berez sortzen da liburu nagusia.

Zer formatu dauka liburu nagusiak? T liburu deritzo, eta horrekin esan nahi da T bakoitzak kontu bat islatzen duela.

T letraren goialdean, kontuaren titulua ageri da, eta, kontu horren alde banatan, ZOR eta HARTZEKO hitzak jarriko ditugu. ZOR hitzaren behealdean eta HARTZEKO hitzaren behealdean, ondare-elementuen mugimenduak azalduko ditugu kantitateen bidez.

Adibide batekin azalduko dugu T-formatua zertan den:

ZOR	Titulua: Eraikuntzak	HARTZEKO
Urtealdiko data zehatz bat arte izandako mugimenduak.		Urtealdiko data zehatz bat arte izandako mugimenduak.
Kasu honetan: handitzeak		Kasu honetan: txikitzeak

Era berean, T hori da liburu nagusian agertzen diren elementuen arteko unitaterik txikiena.

2.3 Egunkari liburuaren idazpenak

Idazpenak egunkari liburuan idatzi ahala, Taren ZOR aldean edo Taren HARTZEKO aldean kantitatezko mugimenduak idatzi behar dira aldi berean —koordinatuta egon behar dute—, hau da, egunkari liburuaren idazpen bakoitzari halako oharra dagokio liburu nagusian, aldi berekoa eta zenbateko berekoa, bana-banako erlazioan. Eta, gomendio gisa, kontuan izan behar da, kontabilitatea eskuz eramanez gero, oso zuhur jokatu behar dela akatsik ez egiteko; hau da, egunkari liburuan ohar bat egin bezain laster, liburu nagusira eramatea.

Gauzak horrela, T liburuak esango digu ekitaldiko edozein unetan ondare-elementu bakoitzak zenbat mugimendu jasan dituen eta zenbatekoak izan diren.

Liburuak erantzun diezazkigukeen galderen artean, hauek azpimarratuko ditugu:

- ✓ Izan da mugimendurik? Zenbat urtean zehar?
- ✓ Noiz gertatu dira?
- ✓ Zenbatekoa da saldo metatua data jakin batean?
- ✓ Noranzko saldoa: goranzkoa edo beheranzkoa?
- ✓ Kontabilitatean erabilitako ondare-elementuak zergatik agertu ziren? Zer gertaera ekonomikori dagozkio?
- ✓ Kontabilizatuta dagoena ondo kontabilizatuta dago egunkari liburuan?

Gorago esan dugunez, idazpena kontabilitateko egitateari lotuta dago; ez badago kontabilitateko egitateari —ez dauka gertaera ekonomikoarekin zerikusirik—, ezin izango da idazpenik izan.

Idazpen bat egiteko, hiru pauso egiten dira, hurrenkera honetan:


1. Eragiketan parte hartzen duten ondare-elementuak identifikatzea.
2. Ondare-elementu bakoitza zer ondare-masatakoa den jakitea.
3. Zordunketa eta abonuaeren hitzarmena ezartzea.

Aurreneko kapituluan esan dugunez, hiru ondare-masa daude (ondare garbia edo netoa ere kontuan hartuz), zein bere esanahiarekin eta edukiarekin. Baina hori alde batera utzita, ikasiko dugu ondare-masen mugimenduak nola azaltzen diren bai idazpenetan bai T-etan, eta nola koordinatzen diren beren artean.

Bai aktiboaren kontuetan, bai pasiboaren kontuetan, bai garbiaren kontuetan ere, kontu bat irekitzeak kontuari titulua ematea eta T-formatu hori egitea eskatzen ditu.


Aktiboaren kontuak:

Hauen mugimendua honelakoa da: ZOR aldean, handitu egiten dira; HARTZEKO aldean, txikitu.




Pasiboaren kontuak:

Gutziz kontrakoa: HARTZEKO aldean, handitu egiten dira, eta ZOR aldean, txikitu:



Garbiaren edo ondare garbiaren kontuak:

Berez, finantza-baliabideak dira (pasibo mota berezi bat, hain zuzen ere), eta, beraz, haien mugimen-
dua pasiboaren kontuen antzekoa da. HARTZEKO aldean handitu egiten dira, eta, ZOR aldean, txikitu.



Oraindik ez gara arituko ez salmenten kontuez ez erosketen kontuez.

Aurreko guztia ezin da bere osotasunean ulertu zenbait adibide ikusirik gabe. Hona hemen batzuk,
argigarriak izango direlakoan:

1. Hiru bazkidek (A, B eta C) erakunde bat eratu nahi dute kantitate hauek emanda:

A bazkideak: 12.000 € eskudirutan.

B bazkideak: 18.000 €-an balioztatutako salgaiak

C bazkideak: 30.000 €-an balioztatutako eraikin bat.

a) Idazpen bat egiteko, lehenengo pausoa ondare-elementuak identifikatzea da:

- ✓ Kutxa, €
- ✓ Salgaiak
- ✓ Eraikinak
- ✓ Bazkideekiko konpromiso-aginduak: kontu honi kapital sozial deritzo.

Aipagarria da erdiko bi elementuen kontuen izenak deskribapenarekin bat datozela.

b) Bigarren pausoa: ondare-elementu bakoitza aipatutako ondare-masa batean ezarri behar da.

- ✓ Kutxa, €: batzuek Europako Banku Zentralarekiko eskubidetzat hartzen dute dirua —edozein motatakoa—, baina, filosofatzeari utzi eta alderdi praktikotik hartuko dugu kontzeptua: “Kutxa, €” ondasun bat da, eta, hortaz, aktiboaren elementu bat.
- ✓ Salgaiak, inolako ezbairik gabe, ondasunak dira; beraz, aktiboan.
- ✓ Eraikinarekin, gauza bera; aktiboaren elementu bat da.
- ✓ Kapital soziala. Kapitala, deskribatu dugun bezala, enpresak bazkideekin hartutako konpromisoa da, ez-galdagarria (zenbait une jakinetan izan ezik), enpresa etengabeko iraupe-
narekin jaio baita, zehaztu gabeko amaierarekin; hortaz, kapital soziala ezin da pasibo-
kotzat hartu, eta garbian egongo da.

c) Tratamendua (elementuak non dauden ezarrita):

- ✓ (Kutxa) aktiboa: handitzea; ZOR aldean.
- ✓ (Salgaiak) aktiboa: handitzea; ZOR aldean.
- ✓ (Eraikinak) aktiboa: handitzea; ZOR aldean.
- ✓ (Kapital soziala) Garbia: handitzea; HARTZEKO aldean.

ZOR aldeko zenbatekoak eta HARTZEKO aldekoak kantitate berekoak izan behar dute beti.

Idazpen hau sortzen da:

-----X-----	
12.000 Kutxa, €	
18.000 Salgaiak	
30.000 Eraikuntzak	
	Kapital soziala 60.000
-----X-----	

Ariketetan formatu hori hartu ohi dute idazpenek, baina komeni da benetakoa erakustea (askoz lan-duagoa da):

ZOR		KONTUAK			HARTZEKO	
+A	-P,-G				-A	+P,+G
1	2	3	Idazpenaren zenbakia ← _____ Data _____ 4	5	6	
Kontabilitateko egitatea,						

2. Adibideko bigarren egitatearekin jarraituko dugu.

Sozietate bat fundatzean derrigorrezkoa denez, Erakundeak ageriko k/k bat irekiko du LAKn % 90eko diruarekin.

Berriro ere aktiboko bi elementuk hartzen dute parte; bata handitu egiten da, eta bestea txikitu. Handitzen dena ezker aldean ageriko da, eta, bestea, berriz, eskuineko aldean.

-----X-----		
10.800	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, €	
		Kutxa, € 10.800
-----X-----		

3. Hirugarren idazpena: altzariak 3.600 €-an erosi dira, prezioaren erdia txkeez eta bestea zorretan.

a) Ondare-elementuak identifikatu:

- ✓ Altzariak
- ✓ Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, €
- ✓ Epe luzerako igilgetu-hornitzaileak

Zergatik agertu dira azken kontu horiek? Kontu korronteak txkeen bidez mugitzen direlako, ez baitaukate beste euskarririk, aurrezki-kontuek ez bezala.

Epe luzerako ibilgetu-hornitzaileak kontzeptua erabil daiteke, baina baita *Epe laburrerako ibilgetu-hornitzailea* ere: aukera hori daukagu ez dakigulako zein izango den ordaintzeko epea.

b) Lehenengo bi kontuak aktibokoak dira; hirugarrena, ostera, pasibokoa.

Deskribatutako egoera horri idazpen hau dagokio:

-----X-----		
3.600	Altzariak	
		Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € 1.800
		Epe luzerako ibilgetu-hornitzaileak 1.800
-----X-----		

Beste ohar hauek ere kontuan hartzekoak dira, ideiak finkatzearen:

1. dazpenak kronologikoki transkribatzen dira egunkari-liburuan.
2. Idazpenek korrelatiboki zenbakituta egon behar dute.
3. Idazpen bakoitzak euskarri-dokumentu bat behar du ziurtagiri gisa. Lehenengo idazpenak erakundeko notario-eskritura du euskarri-dokumentu gisa; azken idazpenak, aldiz, altzarien faktura.
4. Esan dugun bezala, egunkari-liburuko idazpenak liburu nagusira pasatzen dira. Azken hori lehengoaren laburpentxo bat da, kontu guztiak ordenaturik dituena. Egunkari-liburua idazpenez beteta dago, eta liburu nagusia, berriz, kontuz.

2.4 Kontu baten saldoa

Kontu baten saldoa zer den azaldu baino lehen, ezinbestekoa da abonua kontzeptua eta zordunketa kontzeptua zehaztea:

- ✓ Zordunketa kontu baten ZOR aldean idazten da.
- ✓ Abonua kontu baten HARTZEKO aldean idazten da.

Kontu baten saldoa kalkulatzeko, liburu nagusiko kontuei erreparatu, eta atal bakoitzeko oharpen guztiak batu behar dira.

Saldoa noranzko bikoia izan daiteke: zorduna edo hartzekoduna.

- ✓ **Zorduna:** ZOR ataleko zenbateko metatua HARTZEKOkoa baino handiagoa denean.
- ✓ **Hartzekoduna:** HARTZEKO ataleko zenbateko metatua ZOR atalekoa baino handiagoa denean.

Kondizio normaletan, aktiboaren kontuek saldo zorduna daukate, eta pasiboarenek, berriz, saldo hartzekoduna.

Merezi du liburu nagusian sortutako T-ak ikustea:

Kutxa, €	Salgaiak	Eraikuntzak
12.000	18.000	30.000
10.800		
Kapital soziala	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, €	Altzariak
	10.800	3.600
60.000	1.800	
Epe luzerako ibilgetu-hornitzaileak		

2.5 Kontabilitateko egitateen motak

Esan genuenez, kontabilitateko egitateak dira kontabilitatean eragina daukatenak. Kontabilitateko egitateen hiru mota ezberdindu ditzakegu:

- ✓ Trukezkoak
 - ✓ Aldaketazkoak
 - ✓ Mistoak
- ✓ **Trukezkoak:** ez daukate inolako eraginik garbi-masan. Ez dute ez galerarik ez irabazirik sortzen. Adibidez: makineria erosi dugu gure kutxatik edo k/k-an sartzen den diruarekin. Diruaren ordeztan makineria daukagu orain, zenbateko berberetia. Beraz, aktiboaren elementu baten truke beste bat daukagu orain.
 - ✓ **Aldaketazkoak:** kasu honetan, badaukate eragina ondare garbian. Adibidez: elektrizitatearen faktura ordaintzean, gure altxortegitik ateratzen da dirua, beste ezerekin trukatu gabe.
 - ✓ **Mistoa:** alde batetik trukagarriak dira, baina, bestalde, aldakorak. Adibidez: 600 €-an erositako ordenagailu bat 250 €-an saldu dugu. Alde batetik, aktibo bat beste aktibo baten truke lortu dugu, baina aldea 350 €-koa da. Hain zuzen ere, galera bat da, eta horren truke ez dugu ezertxo ere jaso.

2.6 Liburuak legeztatze betebeharra

Erraz uler dezakegunez, legeriak ezartzen dituen liburuak baino ez dira legeztatu behar. Jakina, liburu jakin batzuk legeriaren mende badaude, horiek izango dira legeztatu beharrekoak.

Baina galdera hauek egin diezazkiokegu geure buruari:

1. Zein dira legeztatu beharreko liburuak?
2. Non legeztatzen dira?
3. Zer da legeztatze-prozesu hori?
4. Noiz egin behar da?
5. Bakarra da legeztatze-prozesua?
6. Zertarako legeztatu behar dira liburuak?

1. Zein dira legeztatu beharreko liburuak?

Orain arte ikasitakoen artean, egunkari liburua eta urteko inbentarioen eta kontuen liburua legeztatu behar dira.

Baina horietaz gainera, aipagarriak dira hauek ere:

- ✓ Sozietate gisa fundatutako enpresentzat: akta-liburua. Liburu honetan, gutxienez eduki hau izan behar dugu: ohiko batzar orokorretan, ezohiko batzarretan eta bestelako zuzendaritza-organoetan hartutako akordioak.
- ✓ Erantzukizun mugatuko sozietateentzat: sozietate mota honetan bazkideen ezaugarriak hartzen direnez kontuan, bazkideen erregistro-liburua beharrezkoa da, bazkideak zein diren eta edozein bazkidek zenbat partizipazio daukan jakin dezan sozietateak edozein unetan.

Bete beharreko liburu horietaz aparte, enpresek egoki jotzen dituzten edozein motatako liburu, erregistro edo euskarriak erabil ditzakete, aurreko liburuak hobeto eramateko eta kudeaketa osatzeko. Kasu honetan, adibiderik aproposena Liburu Nagusia da.

2. Non legeztatzen dira?

Enpresak egoitza soziala duen probintziako merkataritza-erregistroan legeztatzen dira liburuak.

Nahiz eta enpresak egoitza soziala aldatu, jatorrizko erregistroaren legeztatzea behin-betikoa da, eta ez dago berriro prozesua errepikatu beharrik beste erregistro batean.

3. Zer da legeztatze-prozesu hori?

Bi aukera daude: aldez aurretik legeztatzea, edo liburuak egin eta gero legeztatzea. Aukera biak Merkataritza Kodeak araututa daude.

- ✓ Liburuak erabili edo bete baino lehen legeztatuz gero —*a priori* legeztatzea—, liburuek guztiz zuri egon behar dute, eta haien orrialdeek korrelatiboki zenbakituta, nahiz koadernaturik nahiz lotu gabeko orrialdeetan. Aukera honetan ez dago tresna mekanizatuak (hots, ordenagailua) erabiltzerik.
- ✓ Liburuak erabili edo bete eta gero legeztatzeko aukeratu —*a posteriori* izenekoa— hartuta, lehenengo orrialdeak zuriz egon behar du, eta gainerakoek, korrelatiboki zenbakituta; eta orrialdeetan agertzen diren idazpenek dagozkien zenbakiekin egon behar dute.

Kasu bietan, merkataritza-erregistratzaileak gauza bera egiten du: lehenengo orrialdean liburuaren diligenzia eta liburuaren orrialde guztietan erregistroaren zigilua jarri.

4. Noiz egin behar da?

Legeztatze-prozesua egiteko epea hartutako aukeraren arabera da. Lehenengoa aukeratuz gero, ez dago ezbairik: liburuak erabili baino lehen legeztatu behar dira. Baina bigarrena aukeratuz gero, Merkataritza Kodearen arabera, ekitaldia ixten denetik lau hilabete pasatu baino lehen legeztatu behar dira. Kasu arruntetan ekitaldiaren ixte-data abenduaren 31 denez, apirilaren 30a arteko epea dago.

5. Bakarra da legeztatze-prozesua?

Ez, bada beste bat, azaldutakoaren parekoa; legeztatze fiskal izena du. Zerga dagokion administrazio-organoaren aurrean egiten da. Gorago azaldutakoaren ordezkari egiten da, eta oso antzeko prozedura dute biek.

6. Zergatik? Zertarako legeztatu behar dira?

Publizitate-betebeharra delako. Edonork jo dezake Merkataritza Erregistrora, eta baliabide horren bitartez hainbat informazio bereganatu dezake.

2.7 Ikasgaiari buruzko ariketak

▶ 1. ariketa

Egitate hauek zerrendatuta, koka ezazu gertaera bakoitza dagokion atalean: gertaera trukezkoetan, gertaera aldaketazkoetan edo gertaera mistoetan.

1. Enpresan sute bat izan da, eta, ondorioz, makineriaren erdia galdutzat jo dute enpresaren arduradunek.
2. Iaz 5.000 €-an erositako akzioak 6.000 €-an saldu ditugu.
3. Taldeko enpresetako batekin tratutan gaude, eta akordio batera heldu gara: gure IBM ordenagailua eman, eta haren truke haien Fujitsu-Siemens ordenagailua hartu. Biak prezio balioztatuta daude.
4. Aurreko egunean izandako matxuragatik 120 € ordaindu dizkiogu iturginari.
5. Makineriaren herena zaharkituztat eman dugu sektore ekonomikoan txertatutako aldaketak direla eta (makinaren jatorrizko balioa: 300.000 €)

► **2. ariketa**

1. Enpresa indibidual bat eratu da, eta, horretarako, kutxako dirua eskuratu du jabeak: 3.000 € eta 12.000 € banku-txeketan.
2. Kontuan hartuz bere jardueran aritzeko 15.000 € finantzaketa-iturria eskasa dela, LAKeoekin enpresa-negozioetan ibili ondoren, bi mailegu lortu ditu: 12.000 € (bost urteko epekoa) eta 12.000 € (sei hilabeteko epekoa).
3. 6.000 €-ko orubea erosi du, enpresaren egoitza eraikitzeko.
4. Eraikina eraikuntza-enpresa baten esku utzi du, eta 6.000 € eman dizkio aurrez kontzeptu horrengatik.
5. Garraiorako elementu bat erosi du, eta, horretarako, bi urteko 9.000 €-ko merkataritza-efektuak onartu ditu enpresak.
6. Finantza-inbertsio iraunkor bat egin du beste enpresa baten kapitalean, eta, horretarako, 1.000 akzio erosi ditu enpresak 6na €-an.
7. Akura-lagapenatiko eskubide bat hartu du enpresak, aurreikusi baita bi urte barru amaituko dela eraikina.
8. Bere jarduera hasteko, enpresak erosketa hauek egin ditu:

<i>ELEMENTU MOTA</i>	<i>PREZIOA BAKOITZEKO</i>
Bi mahai	120 €
Zortzi aulki	60 €
Lau ordenagailu	900 €
Bi artxibo	180 €

9. Taldeko enpresetako bati punta-puntako teknologiako makineria erosi dio. Balio totala: 6.000 €.
10. Beste enpresa bateko obligazioak erosi ditu 400 €-ko salerosketa-prezioan.
11. Enpresa elkartuak 30.000 €-an balioztatutako mailegua eman dio.

Kontabiliza ezazu hori guztia, urrats hauek jarraituz:

1. Identifikatu zer ondare-elementuk hartzen duten parte.
2. Koka itzazu dagozkien ondare-masetan.
3. Azkenik, egizu idazpena.

► 3. ariketa

Beheko taulan, enpresa baten egoera-balantzeko kontuak agertzen dira. Batzuk aktibokoak, eta beste batzuk pasibokoak edo garbikoak dira. Datu guzti horiekin, egizu egoera-balantzea, eta, bide batez, kalkula ezazu zenbatekoa den kapital soziala.

ONDARE-ELEMENTUA	ZENBATEKOA
Kutxa, euroaz bestelako dirua	300 €
Hornitzaileak	360 €
Hornitzaileak ordaintzeko merkataritza-efektuak	240 €
Eraketa-gastuak	60 €
Jabetza industrialak	48 €
Kontzesio administratiboak	12 €
Garraio-elementuak	6 €
Finantza-inbertsio iraunkorrak kapitalean	420 €
Kapital soziala	Zehaztu gabe
Altzariak	30 €
Akziodunak, galdetu gabeko despoltsapenengatik	2,4 €
Erregaiak	7,2 €
Bezeroak	390 €
Gizarte Segurantzako organismoak hartzekodunak	4,8 €
Epe laburrerako akzioen gainean oraindik egin gabeko despoltsapenak	1,8 €
Kutxa, €	11,41 €
Zordunak	12 €
Erretserba legala	42 €
Epe luzerako zorrak	96 €
Ikerketa- eta garapen-gastuak	18 €
Produktu burutuak	30 €
Hornitzaileak oraindik hartu edo formalizatu gabeko fakturak	42 €
Bezeroen aurrerakinak	36 €

► 4. ariketa

Kontabiliza itzazu gure enpresa batean egindako kontabilitate-egitate hauek —ez da beharrezkoa Kontabilitate-plan orokorrak proposatzen dituen kontuak erabiltzea—.

1. Ibilgeturako ordezeko piezak erosi ditugu, 4.808 €-an, eta haien biltegiratze-zikloa bi urtekoa da. Zorra, 12 hilabeteko epean ordaintzekoa, fakturretan dokumentaturik dago.
2. Zenbait garraio-elementu erosi ditugu 6.000 €-an, lantegian erabiltzeko, ez beste ezertarako. Bi urtean ordainduko ditugu merkataritza-efektu baten birtatez.
3. Sozietateak stand desmuntagarri bat erosi du 5.000 €-an, bere salgaiak erakustazokan ezartzeko. Eragiketa sei urteko merkataritza-efektuetan dokumentatuta dago.
4. Enpresak ekoizte-prozesu berezi baterako unitate konplexu bat erosi du 720 €-an. Erosi duen unean bertan 120 € ordaindu ditu, eta gainerakoa lau urtean ordaintzeko hitzarmena izenpetu du.
5. Sozietateak bi hegazkin erosi ditu enpresako langileen bidaietarako, 120.000 €-an bakoitza. Zorra ordaindukoetan dokumentatuta dago, eta hiru urtean kitatu behar da.
6. Enpresak 1.000 €-ko ordenagailu bat erosi du, eta bi urteko epean ordainduko duela hitz eman du.
7. Ordenagailua saldu zigun enpresak bi urteko epean ordaintzeko merkataritza-efektu bat bidali digu, eta onartu egin dugu.
8. Enpresak altxortegi-sarrera bat jaso du bere k/k-etariko batean, 1.800 €-koa. Sarrera hori kredituzkoa ez den erakunde batek emandako maileguari dagokio —hamabi hilabetekoa—.
9. Sozietateak 1.200 € ordaindu dizkio beste enpresa bati mailegu gisa txeke baten bidez. Epea bi urtekoa da.
10. Korporazioak 30.000 € ordaindu dizkio Estatuari txeke baten bitartez kontzesio administratiboagatik, itzuli behar ez duelakoan.
11. Jabetza industrial hartu du enpresak, bankuan 60.000 € ordainduz. Horretan oso interesaturik dago, fabrikazio-prozedura eskusiboki erabiltzeko aukera emango baitio enpresari.
12. Merkataritza-markaren jabetza hartu du enpresak bi urteren buruan ordaintzeko, 18.000 €-an.
13. 30.000 €-ko orubea hartu du enpresak; eroste-unean 12.000 € ordaindu ditu, eta gainerako kantitatea hiru urte barru ordaintzeko hitza eman du.
14. Burtsan akzio-pakete bat erosi dugu kapitalaren gaineko finantza-inbertsio iraunkor gisa. Prezioa: 3.600 €; balio nominala: 2.000 €. Erostean 2.600 € ordaindu ditugu bankuaren bitartez.
15. Kapitalaren gaineko finantza-inbertsio iraunkorrak erosi ditu enpresak 4.200 €-an —burtsan kotizatzen ez dutenak—. Balio nominala: 1.800 €. Oraindik 600 € utzi ditugu ordaindu gabe. Erosketa bankuaren bitartez egin da. Akzioak enpresaren taldeko elkarteenak dira.

16. Enpresak beste atal bietako zorrak ordaindu ditu bankuaren bidez.
17. Sozietateak 600 €-ko fidantza bat jaso du eskudirutan, bi urte barru ordaintzekoa, betebeharrak jakin baten berme modura.
18. Enpresak, agindutako betebeharrak bat dela eta, 1.200 € gordailatu ditu fidantza modura eskudirutan, hiru urteko epearekin.
19. Enpresak 17. puntuko fidantza itzuli du.
20. Enpresak 18. puntuko eskudirua jaso du, fidantzaren kitapena dela eta.

► **5. ariketa**

Egin itzazu idazpen egokiak lerro hauetatik sortzen den informazioaren arabera —oraingoan ere, ez da beharrezkoa Kontabilitateplan orokorrak proposatzen dituen kontuak erabiltzea—:

1. Hiru lagun arropa-denda bat irekitzeko asmotan dabilta, eta, horretarako, erabaki dute 12.000na € biltzea. Forma juridikoari dagokionez, erantzukizun mugatuko sozietatea da.
2. Letratu, notario eta erregistratzaileen ordainsari profesionalen gastuak direla eta, Sozietateak 2.000 € ordaindu du eskudirutan.
3. BBVAn k/k bat ireki dute bazkideek, eta 20.000 € pasatu dituzte kutxatik k/k-ra.
4. Egoitza gisa erabiltzeko lokal bat izateko, eta higiezinaren prezioak hain altuak direnez, akura-lagapenagatik eskubide bat hartu dute 2.400 €-an, hamar urteko iraupenekoa. Adostutako hileroko alokairua 300 €-koa da. Aldez aurretik ordaindu beharko da hilaren lehenengo hamabostaldian.
Lonjaren jabeak hilabeteko alokairua eskatu du fidantza modura; kontratua amaitzean itzuli beharrekoa da fidantza hori.
Akura-lagapenagatik eskubidea, alokairua eta fidantza eskudirutan ordainduko dituzte.
5. Eragiketa tekniko-ekonomikoagatik eta horrelako beste gastuengatik (merkaturatzeko publizitatea, egindako ikerketa eta abar), 1.200 € ordaindu ditu enpresak.
6. Bulegoko altzariak erosi dituzte, aukerakoak. Prezioa: 24.000 €. Ordaintze-forma: herena txeke baten bitartez, eta gainerakoa ordaintzeko, zorretan egongo dira bi hilabetez ibilgetuaren hornitzaileekin.
7. Aurreko puntuko hornitzaileek enpresa ireki berriekin susmo txarra daukatenez, eskatu diote merkataritza-efektua onartzea. Enpresak hala egin du, ezinbestean.

8. Gaur egungo teknologiar dagokionez, pentsaezina da negozio bat martxan jartzea ordenagailurik gabe. Datu hori kontuan hartuz, enpresak punta-puntako bi ordenagailu erosi ditu kudeaketa administratiborako, 2.000 €-an.
9. Era berean, enpresak berriazko programa informatikoaren beharra ikusi duenez, informatikari ezagun bati eskatu diote programa egiteko. Aldez aurretik 500 € eskatu dizkie.
10. Hilaren amaieran, informatikariak amaitutzat jo du programa. Programak 2.500 €-ko azken prezioa dauka. Beraz, diferentzia ordaindu behar izan du enpresak.
11. 12.000 €-ko garraio-elementu bat erosi du enpresak. 4.000 € ordaindu ditu erosi duen unean bertan, eta gainerakoa bi urteko epean ordaintzekoa da.
12. Altzariengatik onartutako merkataritza-efektua ordaindu du epemuga-garaia heldu denean.
13. Sortzen diren zorrei aurre egiteko, epe luzerako 10.000 €-ko mailegua eskatu die enpresak BBVAkoei. Enpresaren etorkizunerako plangintza ikusita, onartu dute, eta k/k-an gauzatuko da.

▶ **6. ariketa**

Hurrengo kontabilitate-egitateetarako, esan ezazu zein izango liratekeen beharrezko dokumentu-agiriak:

1. Enpresa fundatzean.
2. Ibilgetuko edozein elementu erostean.
3. Merkataritza-efektuak onartzean.
4. Eskatutako mailegua gure k/k-an sartzean.
5. Ibilgetuko edozein elementu erosi ondoren, hura itzultzean.
6. Merkataritza-efektuak ordaintzean.
7. Guk gure bezeroei bidalitako merkataritza-efektuak onartzean.
8. Aurreko puntuko efektuak ordaintzean.
9. Fidantza ematean.
10. Fidantza jasotzean.

▶ **7. ariketa**

Zoaz zure probintziako Merkataritza Erregistroa, eta eskatu:

1. Merkataritza Erregistroan enpresa bat inskribatzeko bete beharreko orria.
2. Dagoeneko inskribatuta dagoen enpresa jakin baten informazioa: zenbat bazkide dituen, kapital soziala, akzioen kopurua, akzio bakoitzaren balioa, konstituzio-eskiriturak.

3 KONTABILITATEKO KONTUAK ETA KONTABILITATEAREN IKUSPEGI OROKORRA. KONTABILITATE-ZIKLOA

3.1 Sarrera

Kontabilitatearen alderdi hau aztertzeko, Kontabilitate-plan orokorraren egiturara jo behar dugu. Kontabilitate-plana bost ataletan zatituta dago:

1. Kontabilitatearen printzipioak
2. Kontu-koadroa
3. Definizioak eta kontabilitate-erlazioak
4. Urteko kontuak
5. Balioeste-arauak

Atal horien artean, batzuk nahitaez aplikatu behar dira, eta beste batzuk borondatezkoak dira. Ikasgai honi dagokionez, kontu-koadroa eta definizioak eta kontabilitate-erlazioak aztertuko ditugu, horiek baitute eragin zuzena jorratuko dugun gaian.

Ur handitan ez ibiltzearren: kontabilitate-planaren alde irekia dira kontuak. Horrek esan nahi du enpre-saburuak —kontulariak— bere negozioaren beharrei erantzuteko egokitu ditzakeela kontuen izenak eta, bide batez, haien erlazioak eta mugimenduak. Bestalde, horrek ez du esan nahi kontuok kaotikoki nahas daitezkeenik eta eragile bakoitzak nahierara erabil ditzakeenik kontuak eta haien mugimenduak. Edonola ere, kontabilitatearen printzipioak eta balioeste-arauak (nahitaezkoak) xedagarriak eta mugatzaileak dira, zenbatekoetan eta beste hainbat irizpidetan zehatzaile gisa funtzionatzen baitute.

Kontuak zazpi taldetakoak izan daitezke:

1. taldea. Oinarrizko finantzaketa

Talde honen edukia honako hau da:

- ✓ Baliabide propioak: kapitalak eta erretserbek osatzen dute honen zati nagusia.
- ✓ Epe luzerako galdagarria: epe luzerako zorrak.
- ✓ Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak (izen hori irakurrita, eman dezake benetako sarrerak direla, baina alegiazko aktibokoak dira).
- ✓ Akzio propioetarako kontuak.
- ✓ Oinarrizko finantzaketaren bestelako egoera iragankorrak.

2. taldea. Ibilgetua

- ✓ Ondare-elementuak, enpresan gutxienez urte bat baino gehiago irauten dutenak: Ibilgetu materiala, Ibilgetu ez-materiala eta epe luzerako finantza-inbertsioak.
- ✓ Eraketa- eta hastapen-gastuak.
- ✓ Hainbat ekitalditan banatzeko gastuak.

3. taldea: Izakinak

- ✓ Produktu bukatuak
- ✓ Salgaiak
- ✓ Lehengaiak
- ✓ Produktu erdibukatuak
- ✓ Bilgarriak, ontzikiak...

4. taldea: Trafiko-eragiketagariko hartzekodun eta zordunak

- ✓ Zorrak eta kredituak (hartzekodunak), enpresak bere ekoizpen-jarduera edo jarduera komertziala gauzatu ahal izateko hartu dituenak.
- ✓ Administrazio Publikoekiko kontuak.

5. taldea: Finantza-kontuak

- ✓ Urte bat baino epe laburragoa duten zorrak eta kredituak (hartzekodunak), enpresak ekoizpen-jardueraz edo jarduera komertzialez kanpoko eragiketagarik hartu dituenak.
- ✓ Elementu likidoak: hots, altxortegia.

6. taldea: Erosketak eta gastuak

- ✓ Salgaien eta enpresak erositako bestelako izakinen hornidura, enpresak aldaketarik gabe (salgaien kasuan) edo elaboratu ondoren (lehengaien kasuan) berriro saltzekoak.
- ✓ Ekitaldiko gastuak: zerbitzuak eta antzekoak.
- ✓ Zergak.
- ✓ Ekitaldian zehar izandako izakinen aldaketa (ekitaldiaren hasierako izakinen saldoa amaierakoa baino handiagoa bada).
- ✓ Amortizazioak.
- ✓ Aparteko gastuak.
- ✓ Finantza-gastuak.

7. taldea: Salmentak eta sarrerak

- ✓ Enpresaren trafiko-eragiketako ondasunak inorenganatzea eta zerbitzu-prestazioak.
- ✓ Bestelako sarrerak.
- ✓ Ekitaldian zehar izandako izakinen aldaketa (ekitaldiaren amaierako izakinen saldoa hasierakoa baino handiagoa bada).
- ✓ Aparteko sarrerak.
- ✓ Sarrera finantzarioak.

▶ 1. ariketa

Bilatu edozein kontabilitate-plan orokorretan talde bakoitzean azaltzen den kontuen zerrenda, eta zehatz ezazu, ahal den neurrian, zein azpiataletan kokatu behar den kontu bakoitza.

Kontuen koadroa aztertzean, deigarria gerta dakiguke ageri diren zenbakiak digitu kopuru desberdinekoak direla konturatzea —digitu batekoak, digitu bikoak, hiru digitukoak eta lau digitukoak—. Digitu batekoa izateak esan nahi du talde-mailan (T-1, T-2, T-3, T-4, T-5, T-6, T-7) ari garela; digitu bikoak izateak esan nahi du azpitalde-mailan ari garela; hiru digitukoak izateak, kontu-mailan ari garela; eta lau digitukoak izateak, azpikontu-mailan ari garela. Enpresek hartzen duten maila hirukoa da: hots, kontu-maila. Baina zehatzago jokatu nahi izanez gero, azpikontuak izaten dira egokienak.

Horretaz aparte, interesgarriak eta aintzat hartzekoak dira ohar hauek:

1. Egoera-balantzean agertzen diren kontu bakarrak 1. taldearen eta 5. taldearen bitartekoak dira. Hori dela eta, balantze-kontu deritze.
2. 6. taldekoak eta 7. taldekoak kudeaketa-kontuak dira, ez baitira egoera-balantzean agertzen, egiaztapen-balantzean baizik.
3. Egoera-balantzean agertzen den kudeaketa-kontu bakarra galdu-irabaziena da. Aplikatu gabeko emaitza islatzen du, normalean ekitaldian zeharrekoa. Emaitza aplikatzean, dibidendutan edo erreserbatan zatitzen da.

3.2 Kontabilitate-printzipioak

Merkataritza Kodearen eta Sozietate Anonimoen Legearen arabera, urteko kontuek unitate bat osatu behar dute, eta ondarearen, finantza-egoeraren eta enpresaren emaitzen irudi zehatza islatu behar dute.

Nola lortzen da unitatea bakarra izatea eta irudi hori zehatza izatea? Kontabilitate-printzipioak aplikatuz.

Urteko kontuak hauek dira: egoera-balantzea, galdu-irabazien kontua eta memoria; hain zuzen, hiru horiek osatzen dute urteko kontuen blokea. Hurrengo puntuko adibidearen bitartez, aukera izango dugu balantzearen eta galdu-irabazien kuasi-irudia ikusteko. Zer da, baina, memoria? Zer funtzio betetzen duen aztertuz definituko dugu: balantzearen eta galdu-irabazien kontuek emandako informazioa osatzea, zabaltzea eta komentatzea da memoriaren funtzioa.

Kontabilitate-printzipioek Kontabilitate-plan orokorraren lehenengo atala osatzen dute, eta nahitaez aplikatu behar dira.

Enpresa baten kontabilitateak, beraz, printzipio hauek bete behar ditu nahitaez:

1. Zuhurtzia-printzipioa
2. Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa
3. Erregistro-printzipioa
4. Erosketa-prezioaren printzipioa
5. Sortzapen-printzipioa
6. Sarrera eta gastuen korrelazio-printzipioa
7. Ez konpentsatzeko printzipioa
8. Uniformetasun-printzipioa
9. Garrantzi erlatiboaren printzipioa

Banan-banan garatuko ditugu:

1. Zuhurtzia-printzipioa

“Ekitaldi-amaieran gauzatutako mozkinak bakarrik kontabilizatu behar dira. Aurreikus daitezkeen arriskuak eta egon daitezkeen galerak, ekitaldikoak zein aurreko ekitaldiren batekoak, aldiz, ezagutu bezain laster kontabilizatu behar dira; arrisku eta galera horiei dagokienez, potentzialak edo itzulgarriak eta gauzatutakoak edo itzulezinak bereizi behar dira.

Halaber, prezio-jaiste guztiak ere kontuan hartu behar dira, ekitaldiko emaitza positiboa zein negatiboa izan.”

Aurrekoa Errege Dekretutik atera dugu (eta apur bat moldatu, egia esan). Beraz, kontu horiek argiago gera daitezen, galdera hau egingo dugu gure artean: zer kontabilizatuko da printzipio hau aplikatuz?

- a) Gauzatutako mozkinak —beti—.
- b) Aurreikus daitezkeen arriskuak eta egon daitezkeen galerak:
 - ✓ Zein? Unean uneko ekitaldian sortuak eta aurreko ekitaldietan sortuak ere bai, haien jatorria edozein delarik. Horietaz gainera, prezio-jaiste guztiak, ekitaldiko emaitza positiboa zein negatiboa izan.
 - ✓ Noiz? Ezagutu bezain laster.
 - ✓ Nola? Ezberdintzen dira potentzialak edo itzulgarriak batetik, eta gauzatutakoak edo itzulezinak bestetik.

1. adibidea

Enpresa batek lokal bat erosi eta 18.000 €-an kontabilizatu zuen. Gaur egun, 12.000 €-ko merkataritza-balioa du.

Halako diferentzia behin betikotzat eman dugu: lokala erosi genuenean, boladan egon zen tokia, baina, zoritxarrez, ospe guztia galdu du bortizkeria dela eta.

Soluzioa. Galera betikotzat eman, eta horrela kontabilizatuko dugu: gauzatutako galeratzat edo galera itzulezintzat.

2. adibidea

Demagun galera betikotzat jo beharrean haren kotizazioa igoko den itxaropena daukagula; orduan, galera potentziala edo itzulgarria izango da, eta, ondorioz, tratamenduak guztiz ezberdina izan behar du: *Ibilgetu materialaren hornidurarako zuzkidura* (692) kontua erabili behar da.

3. adibidea

Aurreko adibidearekin jarraituko dugu: demagun kotizazioa, beherantz jo beharrean, 24.000 €-ra iritsi dela azken berrien arabera. Igo egin da, baina behin-behineko igoera baino ez da (hau da, potentziala).

Ebazpena: mozkinak gauzatu ez denez, ezin dugu irabazira eraman. Salbuespen bat dauka: prezio horretan berean saltzea. Halakoetan, gauzatutako mozkinatzat joko genuke.

2. Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa

“Enpresaren kudeaketak iraupen mugagabea duela pentsatuko da. Beraz, kontabilitate-printzipioak aplikatzean, ez da bilatuko, guztiz edo hein batean, inorenganatzean ondareak izango duen balioa ezta likidatuz gero izango lukeena ere.”

Printzipio honek esan nahi du kontabilitatea eramatean beti pentsatuko dela enpresak bere jarduerarekin segituko duela, eta printzipioak aplikatzearen helburua inoiz ez dela ondarearen balioa kalkulatzeko.

3. Erregistro-printzipioa

Egintza ekonomikoak, eragiten dituzten eskubide eta ordaintzeko betebeharrak sortzean kontabilizatu behar dira.

Eskubideak eta ordaintzeko betebeharrak —zorrak— une jakin batzuetan sortzen dira; bada, printzipio honek esan nahi du une horiek adierazten dutela noiz egin behar diren idazpenak.

4. adibidea

Demagun tratutan gaudela bulegoko altzariak berritzeko. Negozioa 2006ko apirilaren 15ean itxi zen, baina altzariak ez dira gure bulegoan sartu maiatzaren 3a arte. Data horretan sortuko da gure zorra, eta, ondorioz, data horretan ere egingo da erosketa horren idazpena egunkari liburuan.

4. Erosketa-prezioaren printzipioa

“Arau orokor gisa, ondasun, eskubide eta obligazio guztiei erosketa-prezioa edo produkzio-kostua aplikatu behar zaie kontabilizatzean. Zorrei dagokielarik, berriz, itzuli behar direnean ordaindu beharko dena hartu behar da erosketa-preziotzat.

Erosketa-prezioaren printzipioa beti errespetatuko da, nola eta legezko xedapen bidez haien zuzenketa baimentzen ez den. Horrelakoetan, memorian argi adierazi beharko da.”

Zer esan nahi du printzipio honek?

Ondasun, eskubide eta obligazioen kontabilizatzeko balioaz mintzo da.

Zein balio kontabilizatu behar da? Hirugarren bati edozein ondasun edo eskubide erosten badiogu, kontabilizatzeko balioa erosketa-prezioa izango da; eta enpresaren baliabideak erabiliz ondasuna edo eskubidea sortzen badugu, produkzio-kostua izango da kontabilizatzeko balioa.

Ez dago balio hori aldatzerik: behin balio jakin bat hartuz gero, betiko izango da, legezko xedapenak aplikatzen direnean izan ezik: adibidez, balantzeen erregularizazioari eta eguneratzeari buruzko forulegeriak onartzen duenean. Horien bitartez, balantzean agertzen diren balioak merkatu-prezioen antzekoak dira.

5. adibidea

Demagun irailaren 23an salgaiak erosi genituela 3.000 €-an. Urte bereko abenduaren 31n, salgai horien prezioa 4.000 €-koa da. Kasu honetan, bi printzipio hartu behar ditugu kontuan: bata, erosketa-prezioaren printzipioa; eta bestea, zuhurtzia-printzipioa. Lehenengoaren arabera, ezin dugu jatorrizko prezioa aldatu; eta bigarrenaren arabera, mozkina potentziala da, eta dagokion tratamendua da ezer ez egitea mozkina gauzatu arte.

5. Sortzapen-printzipioa

“Sarrera eta gastuak, ordezkatzan dituzten ondasun eta zerbitzuen korrante erreala kontuan izanik kontabilizatu behar dira, finantza- edo diru-korrantea noiz gertatzen den aintzat hartu gabe.”

Zer esan nahi du printzipio honek?

Ez diogula finantza- edo diru-korronteari jaramonik egin behar, eta kontuan hartu behar dela zer unetan sortzen diren sarrerak eta gastuak (eta une horiek ondasun eta zerbitzuen korrantearekin lotuta daude).

6. adibidea

Ibilgetuaren gaineko aseguru-primak urte osoa irauten du. Asegurua Xko uztailaren 1ean kontratatu dugu, eta hurrengo ekainaren 30a arte iraungo du. Orduan, lehenengo urtean (X. urtean) primaren erdia egotzi behar da, diru-korrantea edozein delarik ere.

7. adibidea

Geure ondareko lokal bat bi urteko errentan eman diogu beste enpresa bati. Ordainsaria kontratua adostu bezain laster jaso dugu; baina, zer esaten digu logikak? Ezin dugula egotzi sarrera lehenengo urtean, baizik eta sarrera hori luzatu egin behar dela kontratua indarrean dagoen bitartean.

6. Sarrera eta gastuen korrelazio-printzipioa

“Ekitaldiko emaitza ekitaldi horretako sarreraren eta haiek lortzeko ekitaldi horretan egindako gastuen arteko kendura izango da, enpresaren jarduerarekin erlazio zuzena ez duten mozkin eta galerak barne.”

Azalpena: Horrek esan nahi du enpresaren emaitza kalkulatzeko kontuan hartu behar direla ekitaldi bereko sarrerak eta gastuak, edozein motatakoak direlarik ere: ohikoak, apartekoak, finantzarioak... Horiek guztiak nola banakatzen diren ikusi nahi izanez gero, galdu-irabazien kontura jo behar dugu.

8. adibidea

Enpresa bat bere jarduerarekin hasi da, eta, horretarako, hainbat gastu egin ditu: abokatu, notario eta erregistratzaileen ordainsariak, sorrera-txostena, zenbait zerga, merkaturatzeko publizitatea, ikerketengatik ordainsariak, langileak kontratatzeako gastuak... Guztira: 6.000 €.

Kontabilitate-plan orokorraren arabera, bost urtean izango dute eragina. Urteko emaitza kalkulatzeko, aintzat hartuko ditugu urte jakin bateko sarrerak eta urte horri dagozkion gastuak. Haien artean, hastapen-gastuetako 1.200 € izango ditugu lehenengo bost urteetan ($6.000 \text{ €} \div 5$).

7. Ez konpentsatzearen printzipioa

“Ezin dira inoiz elkarren artean konpentsatu urteko kontuen eruedetan ezarritako balantzearen aktiboko eta pasiboko kontuak, ezta galdu-irabazien kontua osatzen duten sarrerak eta gastuak ere. Aktiboko eta pasiboko partida guztiak bakoitza bere aldetik balioztatu behar dira.”

9. adibidea

Eman dezagun enpresa batek 3.000 €-ko sarrera finantzarioak eta 2.000 €-ko gastu finantzarioak izan dituela ekitaldian zehar. Erraztearren, tentagarria da (eta sinpleagoa ere bai) 1.000 €-ko sarrera finantzarioak kontabilizatzea. Baina ezinezkoa da, banan-banan kontabilizatu behar dira, eta galdu-irabazien kontuan agertu behar dute, kasu honetan, banakatuta.

10. adibidea

Demagun bi motatako ibilgetua daukagula:

- ✓ Makineria: 12.000 €-an balioztatua.
- ✓ Tresneria: 6.000 €-an balioztatua.

Ondare-elementu bakoitza erdiamortizatuta dago.

Berrito ere, errazte aldera, sinpleagoa izango litzateke 6.000 €-ko makineria eta 3.000 €-ko tresneria kontuan hartzea balantzea egitean. Baina, sailkatzean, bereizi egin behar da aktiboko eta pasiboko hainbat konturen artean, eta egoera-balantzean agertu behar dute, kasu honetan, banakatuta.

8. Uniformetasun-printzipioa

“Kontabilitate-printzipioak aplikatzean, aukera bat baino gehiago egonez gero eta horietako bat hartu ondoren, denboran zehar, irizpide hori hartzeko arrazoiak aldatzen ez diren bitartean, hori bera aplikatu behar da, ezaugarri bera duten elementu guztiei aplikatu ere.

Arrazoi horiek aldatuz gero, bere garaian hartutako irizpidea aldatu ahal izango da; baina hori eginez gero, memorian adierazi behar da, eta argi utzi aldaketa horrek urteko kontuetan eragin duen aldaketa kualitatibo eta kuantitatiboa.”

Azalpena: behin irizpide bat aukeratuz gero, hura aplikatu beharko zaie ezaugarri berbera duten elementu guztiei. Badago salbuespenik: irizpidea aukeratzeko arrazoiak aldatu izana.

11. adibidea

Gure enpresak 12.000 €-ko altzariak erosi ditu, eta hamar urte iraungo dutela aurreikusi. Demagun haien balio-galera ez dela denborarekin aldatzen; orduan, amortizazioa zenbateko berekoa izango da urtero, hau da, 1.200 €-koa. Hori da ekitaldiko azken egunean aplikatu beharrekoa, irizpide hori aukeratzeko arrazoiak aldatzen ez diren bitartean. Badago aukera bat, *amortizatze*ko askatasuna, baina kontuan izan behar dugu kontu fiskalari dagokiola. (Bide batez, hau da unerik egokiena kontabilitatea kontabilitate-irizpideekin bat datorrela esateko, eta ez fiskalekin.)

9. Garrantzi erlatiboaren printzipioa

“Kontabilitate-printzipio batzuk ez aplikatzea onartzen da, ez bada aldaketa esanguratsurik eragiten termino kuantitatiboetan, eta, ondorioz, urteko kontuek irudi zehatza ematen segitzen badute.”

12. adibidea

Enpresa batek 1.000.000 €-ko negozio-zifra du. Abenduaren 30ean, makineriaren pieza bat konpontzeko osagai batzuk erosi ditu 10 €-an, baina urtarrilaren 30ean egin da konponketa.

Ebazpena: osagaien prezioa hutsaren hurrengokoa da enpresaren tamainarekin alderatuz. Orduan, berdin du gastu hori aurreko ekitaldian zein aurtengoan kontabilizatu.

Printzipio hau izakinen 13. balioeste-arauan ere islatzen da. Horren arabera:

“Aparteko kasuetan eta jarduera-sektore batzuetan lehengai eta gai kontsumigarri batzuk zenbateko eta balio finkoz balioztatu ahal izango dira, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- ✓ Etengabe berritzen direnak izatea.
- ✓ Haien balio globala eta osaera nabarmen ez aldatzea, eta
- ✓ Balio globalak bigarren mailako garrantzia izatea enpresarentzat.

Sistema hori erabiliz gero, memorian adierazi behar da, eta erabili izanaren arrazoiak argudiatu eta zenbateko eta balio finko horiek zehaztu behar dira.”

► Kontabilitate-printzipioen hierarkia (Kontabilitate-plan orokorretatik aterata)

“Nahitaezko kontabilitate-printzipio hauen artean gatazkarik egonez gero, urteko kontuek ondarearen, finantza-egoeraren eta enpresaren emaitzan irudi zehatza ondoen islatuko dutenak hartuko dira.

Baina aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, zuhurtzia-printzipioak lehentasuna du gainerako printzipioekiko.

Beraz, kontabilitate-printzipioen artean gatazkarik sortuko balitz, bi ebazpide hauek hartu beharko lirateke aintzat:

- ✓ Alde batetik, kontabilitateak irudi zehatza islatu behar duela azpimarratu behar da; horretarako, behar izanez gero, aipatutako nahitaezko printzipioak alboratu ere egin ahal izango dira. Baina, printzipioetako bat aplikatu ezean edo aldatuz gero, argi adierazi beharko da memorian, baita hori egiteko arrazoiak ere.
- ✓ Bestetik, nahitaezko printzipioen artean hierarkia bat ezartzen da, eta zuhurtzia-printzipioa da lehen mailakoa. Horrek esan nahi du printzipio horren aurka doan besteren bat badago alboratu egin beharko litzatekeela.”

3.3 Zenbait urrats kontabilitate-prozesua ulertzeko

Erosketak eta gastuak eta Salmentak eta sarrerak kontuekin hasi baino lehen, komenigarria da kontabilitateari begiratu orokorra egitea. Horretarako, *egiaztapen-balantzea* nola egin ikasiko dugu.

Ez gara kontu horien araudian sartuko. Ezinbesteko ezaugarriak baino ez ditugu komentatuko:

- ✓ Ekitaldian zehar erabilitako kontu guztiak —balantzekoak eta kudeaketakoak— agertzen dira, bai ZOR aldean metatutako baturak, bai HARTZEKO aldean metatutako baturak, eta, diferentziaz, zordun saldoa ala hartzekodun saldoa ote den.
- ✓ Kontu guztietako ZOR aldekoak eta kontu guztietako HARTZEKO aldekoak zenbateko berekoak izan behar dute.
- ✓ Kontu guztietako zordun saldoak eta hartzekodun saldoak kantitate berekoak izan behar dute.
- ✓ Gutxienez, hiruhilekoan behin egin behar da; normalean, ordea, hilero egiten dute enpresek. Egindakoan, inbentario eta balantzeen liburuan transkribatzen da.

Orain arte esandakoaren adibide gisa, aurreko ikasgaiko adibideko egiaztapen-balantzea egiten jarraituko dugu:

KONTUEN IZENAK	BATURAK		SALDOAK	
	ZOR	HARTZEKO	ZORDUNAK	HARTZEKODUNAK
Kutxa, € (570)	12.000	10.800	1.200	
Salgaiak (300)	18.000		18.000	
Eraikuntzak (221)	30.000		30.000	
Kapital soziala (100)		60.000		60.000
Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)	10.800	1.800	9.000	
Altzariak (226)	3.600		3.600	
Epe luzerako ibilgetu- hornitzaileak (173)		1.800		1.800
GUZTIRA	74.400	74.400	61.800	61.800

Demagun hori dela ekitaldiko azken egiaztapen-balantzea. Hurrengo urratsa ekitaldiko kontabilitatea egitea da, hau da, itxiera-idazpenaren bidez kontabilitatea ixtea. Itxiera-idazpenaren helburua kontuak likidatzea da. Behin idazpen hori egin eta liburu nagusira pasatuz gero, hutsekoa da kontu guztien saldoa. Kasu berezietan izan ezik, abenduaren 31n egiten da idazpena.

Adibidearen hariari jarraiki, itxiera-idazpena hau izango da:

-----X-----			
60.000	Kapital soziala (100)		
1.800	Epe luzerako ibilgetu-hornitzaileak (173)		
		Kutxa, € (570)	1.200
		Salgaiak (300)	18.000
		Eraikuntzak (221)	30.000
		Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k (572), €	9.000
		Altzariak (226)	3.600
-----X-----			

Liburu Nagusira pasatutako itxiera-idazpena:

<p>Kutxa, €</p> <table style="margin: auto;"> <tr><td style="border-right: 1px solid black; padding: 5px;">12.000</td><td style="padding: 5px;">10.800</td></tr> <tr><td style="border-right: 1px solid black; padding: 5px;">1.200</td><td style="padding: 5px;"></td></tr> </table>	12.000	10.800	1.200		<p>Salgaiak</p> <table style="margin: auto;"> <tr><td style="border-right: 1px solid black; padding: 5px;">18.000</td><td style="padding: 5px;">18.000</td></tr> <tr><td style="border-right: 1px solid black; padding: 5px;"> </td><td style="padding: 5px;"></td></tr> </table>	18.000	18.000	 		<p>Eraikuntzak</p> <table style="margin: auto;"> <tr><td style="border-right: 1px solid black; padding: 5px;">30.000</td><td style="padding: 5px;">30.000</td></tr> <tr><td style="border-right: 1px solid black; padding: 5px;"> </td><td style="padding: 5px;"></td></tr> </table>	30.000	30.000	 	
12.000	10.800													
1.200														
18.000	18.000													
 														
30.000	30.000													
 														

Kapital soziala		Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, €		Altzariak	
60.000	60.000	10.800	1.800	3.600	3.600
			9.000		
 		 		 	
Epe luzerako ibilgetu-hornitzaileak					
1.800	1.800				
 					

Ariketatxoa ikusita, agerikoa da ez ditugula erabili ez salmenta eta sarreraren kontuak ezta erosketa eta gastuen kontuak ere. Erabili izan bagenitu, prozesua luzatuko zen, itxiera-idazpena egin baino lehen urteko emaitza aurkitzeko beste idazpen bat egin behar izango genukeelako: erregularizazio-idazpena, hain zuzen ere. Normalean, egunkari liburuko azken idazpenaren eta itxiera-idazpenaren artean txertatzen da erregularizazio-idazpena.

Hurrengo pausoa egoera-balantzea egitea da.

Labur esanda, egoera-balantzea urteko kontu bat da, inbentarioan eta balantzeen liburuan sartu beharrekoa. Zehaztasun handietan ez sartzearren, esango dugu aktiboaren elementuek likidezia txikienezatik likidezia handienekora ordenaturik agertu behar dutela; eta, era berean, garbiaren eta pasiboaren elementuak, galdagaitzenetik galdagarrienera ordenaturik.

Ikusten ari garen kasuan, egoera-balantzea hau da:

AKTIBOA		GARBIA ETA PASIBOA	
Eraikuntzak (221)	30.000	Kapital soziala (100)	60.000
Altzariak (226)	3.600	Epe luzerako ibilgetu-hornitzaileak (173)	1.800
Salgaiak (300)	18.000		
Banku eta Kreditu			
Erakundeak ageriko k/k, € (572)	9.000		
Kutxa, € (570)	1.200		
AKTIBO TOTALA:	61.800 €	TOTAL GARBIA ETA PASIBOA:	61.800 €

Ikusi dugunez, aktiboaren saldoa pasiboaren zenbateko berekoa da. Horrek esan nahi du betetzen duela balantze-ekuazioa —ondarearen oinarritzko ekuazioa—.

Ariketarekin jarraitzeko, hurrengo pausoa kontabilitatea hastea da, eta irekiera-idazpenarekin egingo dugu. Askotan, hain urrats sinplea izanda ere, ahaztu egiten da. Horregatik, idazpena zeregin astuna bilaka ez dadin, idazpen hau asmatu dute adituek:

-----X-----			
Aktiboaren zenbateko metatua	Zordun saldoaren kontuak	Hartzekodun saldoaren kontuak	Garbiaren eta pasiboaren zenbateko metatua
-----X-----			

Zertarako egiten da hori guztia? Aurreko urteko kontuei jatorrizko saldoa emateko, hau da, aurreko urtean heldutako saldoa berreskuratzeko. Praktikan, egoera-balantzea kopiatzea da, besterik ez. Gure kasuan:

-----X-----			
30.000	Eraikuntzak (221)		
3.600	Altzariak (226)		
18.000	Salgaiak (300)		
9.000	Banku eta Kreditu Erakundeak, ageriko k/k, € (572)		
1.200	Kutxa, € (570)		
		Kapital soziala (100)	60.000
		Epe luzerako ibilgetu-hornitzaileak(173)	1.800
-----X-----			

Goian deskribatutako idazpena liburu nagusira pasatuko dugu; horrela, abenduaren 31ko saldoa berreskuratuko dute kontuek.

Orain bai, orain bagaude erosketak eta gastuen kontuak eta salmenta eta sarreraren kontuak aztertzeke garaian.

3.4 Erosketa eta gastuen kontuak eta salmenta eta sarreraren kontuak

7. taldeko salmenta eta sarreraren kontuak aktiboa handitzearen ondorioz edo pasiboa txikitzearen ondorioz sortzen dira. Haien mugimendua ulertzeko, Zordunetaren eta abonuen hitzarmena ekarri behar dugu gogora. Aktiboaren kontuak ZOR aldean handitzen dira, eta, era berean, pasiboaren kontuak ZOR aldean txikitzen. Ondorio logikoa da salmenta eta sarreraren kontuak HARTZEKO aldean sortzen direla, dagokion aktiboaren kontuaren edo dagokion pasiboaren kontuaren kontrakontu gisa. Beti, oso kasu berezietan izan ezik —kontuen zuzenketetan⁴—, sarreraren kontuak hartzekodun kontuak dira jatorrian.

⁴ Kontabilitate liburuetan debekatuta dago tartekatzeak, karrakatzeak eta urratuak egitea; beraz, kontraidazpena egitea da bide bakarra zuzenketa bat egiteko. Liburu eta dokumentu guztiak, erabilitako prozedura edozein delarik ere, honela eraman behar dira: argi eta garbi, dataren arabera ordenaturik, zuriunerik gabe, eta tartekatzerik, karrakatzerik eta urraturik gabe. Akatsak eta ahazteak/hutsak ohartu bezain laster zuzendu behar dira

Idazpenaren eredua:

-----X-----			
x ₁	Aktiboaren kontu bat		
x ₂	Pasiboaren kontu bat		
		Salmenta eta sarreraren kontu bat	x ₃
-----X-----			

Kasu guztietan: $x_1 + x_2 = x_3$ (zenbateko bera alde bietan).

1. adibidea:

Lokal bat alokairuan daukagu. Hori dela eta, 60 € bereganatu dugu eskudirutan:

-----X-----			
60	Kutxa, € (570)		
		Errentamenduengatik sarrerak (752)	60
-----X-----			

2. adibidea:

Bankuak gure k/k-ari zegokion interesa ordaindu digu, 6 €-koa:

-----X-----			
6	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)		
		Beste zenbait sarrera finantzario (769)	6
-----X-----			

Oraingoz, ez dugu kontuan hartuko Ogasun Publikoaren atxikipenaren eragina.

Erosketa eta gastuen kontuak: Kontabilitate-plan orokorreko 6. taldean biltzen dira, eta pasiboa handitzearen edo aktiboa txikitzearen ondorioz sortzen dira:

Idazpenaren eredua:

-----X-----			
x ₁	Erosketa eta gastuen kontu bat		
		Aktiboaren kontu bat	x ₂
		Pasiboaren kontu bat	x ₃

kontabilitateko oharpenetan. Ezin dira erabili legeen arabera, araudien arabera eta oro har merkataritza-praktikaren arabera esanahia zehaztu gabe duten laburdurak eta ikurrak. (Merkataritza Kodeko 29. artikulua)

-----X-----

Kasu guztietan: $x_1 + x_2 = x_3$ (zenbateko bera alde bietan).

Erosketa eta gastuen kontuak beti ZOR aldean sortzen dira⁵; beraz, zordun kontuak dira jatorriz, eta haien kontrakontuak izan daitezke aktiboaren txikitze bat edota pasiboaren handitze bat.

Haien jatorria beste pertsona edo erakunde batzuek emandako zerbitzuen ordainak dira.

Gastuen adibideak:

1. adibidea:

Ibilgetuaren aseguru-primak direla eta, 12 € ordaindu ditugu:

-----X-----			
12	Aseguru-primak (625)	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)	12
-----X-----			

2. adibidea:

Elektrizitate-faktura jaso ondoren, bankuak 30 €-ko zordunketa egin digu:

-----X-----			
30	Hornikuntzak (628)	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)	30
-----X-----			

3.5 Erregularizazioa

Erregularizazioa ekitaldiko emaitza kalkulatzea da. Garrantzi handiko prozesua da. Izan ere, erregularizazioaren bitartez jakin dezakegu gure jarduerak galera edo irabazia izan duen. Zentralizazio izenarekin ere ezaguna da, eta normalean ekitaldiaren amaierarekin bat egiten du (hau da, abenduaren 31n).

Nola egiten da erregularizazio-prozesu hori? Erosketa eta gastuen kontuak salmenta eta sarrerren kontuekin konparatuz, *Galdu-irabaziak* kontuaren bitartez.

⁵ Sarrerren kasuetan bezala, beste idazpen baten zuzenketa izan ezean.

Ekitaldiko zein unetan egin behar da? Itxiera-idazpena egin baino lehen. Erregularizazio-idazpenaren bitartez, gastuen eta salmenten kontu guztiek hutseko saldoa izatea lortzen da. Hutseko saldora iristeko, kontuei saldoaren kantitate bera jarri behar zaie, baina gurutzeta eginda; hau da: salmenten eta sarrerren kontuak HARTZEKO aldean sortzen direnez, kitapenerako saldoa ZOR aldean jarri behar da. Erosketen eta gastuen kontuetan guztiz kontrakoa gertatzen da: ZOR aldean sortzen direnez, kitapenerako saldoa HARTZEKO aldean jarri behar da.

Ondorioz, kudeaketa-kontu guztiak (6. taldekoak eta 7. taldekoak) egoera-balantzeko emaitzen kontu bakarrean zentralizatzen dira: hau da, *Galdu-irabaziak* (129) kontuan.

Hori guztia bi idazpenetan azaltzen da: batean sarrerren erregularizazioa, eta bestean gastuen erregularizazioa. Hona hemen erredua:

-----Abenduaren 31n -----		
X	Salmenten eta sarrerren kontuak (G-7)	
	Galdu-irabaziak (129)	X
-----X-----		

-----Abenduaren 31n -----		
X	Galdu-irabaziak (129)	
	Erosketen eta gastuen kontuak (T-6)	X
-----X-----		

Gurutzeta eginda liburuan:

Galdu-irabaziak (129)	
Erosketen eta gastuen kontuen saldoa	Salmenten eta sarrerren kontuen saldoa

Salmentak gastuak baino handiagoak izan badira, ekitaldiaren emaitza positiboa da —Galdu-irabazien kontuaren saldoa, hartzekoduna—.

Aitzitik, gastuak salmentak baino handiagoak izan badira, ekitaldiaren emaitza negatiboa da —Galdu-irabazien kontuaren saldoa, zorduna—.

▶ 3. ariketa

Egin eragiketa hauek eskaintzen diren datuen arabera, eta azaldu itzazu emaitzak:

- ✓ Irekiera-idazpena
- ✓ Egunkari liburuan ekitaldian zehar bete beharreko idazpenak
- ✓ Egiaztapen-balantzea
- ✓ Erregularizazioa
- ✓ Itxiera-idazpena
- ✓ Hurrengo ekitaldiaren irekiera-idazpena

1. Berdel izeneko sozietate bat eratu da, eta informatika-produktuak saltzea eta erostea da haren jarduera. Fundatzaileek 9.000 € eskuratu dute guztira kapital soziala osatzeko.
2. Legeriak agintzen duenaren arabera, BBKn ageriko k/k bat ireki dute 4.000 €-rekin.
3. Informatika-produktuak erosi dizkio hornitzaile nagusiari. Fakturaren zenbatekoa: 700 € (ez aintzat hartu BEZa, ezta kontabilizatzerakoan ere).
4. Sozietateak erabaki du kontabilitate-idazpenak hilean behin idaztea. Datu hori kontuan hartuz, lehenengo hilabeteo salmentak 2.000 €-koak izan dira (ez aintzat hartu BEZa).
5. Ustiapenerako diru-laguntza ofiziala jaso du, 1.000 €-koa, gutxieneko errentagarritasuna bermatzeko. Kantitate hori diru-transferentziaren bitartez jaso du.
6. Azken hilabeteotako uraren eta elektrizitatearen gastuak 120 €-koak izan dira.
7. Lokalaren urteroko alokairua 600 €-koa izan da.

Proposatutako soluzioa:

1.			
9.000	Kutxa, € (570)	Kapital soziala (100)	9.000
2.			
4.000	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)	Kutxa, € (570)	4.000
3.			
700	Salgai-erosketak (600)	Hornitzaileak (400)	700
4.			
2.000	Bezeroak (430)	Salgai-salmentak (700)	2.000

5.				
1.000	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)	Ustiapenerako diru-laguntza ofizialak (740)		1.000
6.				
120	Hornikuntzak (628)	Zerbitzu-prestazioagatiko hartzekodunak (410)		120
7.				
600	Errentamenduak eta kanonak (621)	Zerbitzu-prestazioagatiko hartzekodunak		600

Egiaztapen-balantzea:

KONTUEN IZENAK	BATURAK		SALDOAK	
	ZOR	HARTZEKO	ZORDUNAK	HARTZEKODUNAK
Kutxa, € (570)	9.000	4.000	5.000	
Kapital soziala (100)		9.000		9.000
Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)	5.000		5000	
Salgai-erosketak (600)	700		700	
Hornitzaileak (400)		700		700
Bezeroak (430)	2.000		2.000	
Salgai-salmentak (700)		2.000		2.000
Ustiapenerako diru-laguntza ofizialak (740)		1.000		1.000
Hornikuntzak (628)	120		120	
Zerbitzu-prestazioagatiko hartzekodunak (410)		720		720
Errentamenduak eta kanonak (621)	600		600	
GUZTIRA	17.420	17.420	13.420	13.420

Erregularizazioa:

-----Abenduaren 31n-----			
2000	Salgai-salmentak (700)		
1000	Ustiapenerako diru-laguntza ofizialak (740)		
		Galdu-irabaziak (129)	3000
-----X-----			

-----Abenduaren 31n -----

1.420	Galdu-irabaziak (129)		
		Salgai-erosketak (600)	700
		Hornikuntzak (628)	120
		Errentamenduak eta kanonak (621)	600

-----X-----

Itxiera-idazpena:

-----Abenduaren 31n -----

9.000	Kapital soziala (100)		
700	Hornitzaileak (628)		
720	Zerbitzu-prestazioagatiko hartzekodunak (410)	Kutxa, € (570)	5.000
1.580	Galdu-irabaziak (129)	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)	5.000
		Bezeroak (430)	2.000

-----X-----

Egoera-balantzea:

AKTIBOA		PASIBOA	
Bezeroak (430)	2.000	Kapital soziala (100)	9.000
Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)	5.000	Galdu-irabaziak (129)	1.580
Kutxa, € (570)	5.000	Hornitzaileak (400)	700
		Zerbitzu-prestazioagatiko hartzekodunak (410)	720
GUZTIRA:	12.000	GUZTIRA:	12.000

Hurrengo urterako irekiera-idazpena:

-----X-ko urtarrilaren 1ean -----

2.000	Bezeroak (430)		
5.000	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)		
5.000	Kutxa, € (570)		
		Kapital soziala (100)	9.000
		Galdu-irabaziak (129)	1.580
		Hornitzaileak (400)	700
		Zerbitzu-prestazioagatiko hartzekodunak (410)	720

-----X-----

Liburu nagusia:

Kutxa, € (570)	Kapital soziala (100)	Banku eta Kreditu (572)
9.000	9.000	4.000
4.000	9.000	5.000
5.000		1.000
Salgai-erosketak (600)	Hornitzaileak (400)	Bezeroak (430)
700	700	2.000
700	700	2.000
Salgai-salmentak (700)	Ustiapenerako diru- laguntza ofizialak (740)	Hornidurak (628)
2.000	1.000	720
2.000	1.000	720
Zerbitzu-prestazioagatiko hartzekodunak (410)	Errentamenduak eta kanonak (621)	Galdu-irabaziak (129)
1.320	600	1.420
720	600	3.000
600		1.580

Emaitzen azalpena: ekitaldian zehar hainbat motatako idazpenak egin ditugu, hau da, balantze-kontuei eragin dietenak, eta kudeaketa-kontuei eragin dietenak ere bai. Abenduaren 31n, ekitaldiaren emaitza jasotzeko, erregularizazioari ekin diogu. Prozesu horren bitartez, ustiapenerako diru-laguntza ofizialari eta salgai-salmentei esker sarrerek gastuak baino handiagoak izan direla baieztatu dugu. Galdu-irabazien kontuaren saldoa hartzekoduna izan da, eta, hortaz, etekinak izan ditu enpresak —oraindik banatu gabekoak, hurrengo urtean erabaki arte—. Gero, urteko kontabilitatea amaitu dugu, eta kontuak saldorik gabe geratu dira horrekin. Urtarrilaren 1ean, kontabilitatea ireki behar dugu, eta kontu guztiei izan zituzten saldoak eman.

Prozesu horri kontabilitate-ziklo deritzo.

3.6 6. taldea, erosketa eta gastuak, eta 7. taldea, salmenta eta sarrerak

Atal honen helburua ez da zehaztasun handietan sartzea, Kontabilitate-plan orokorrean nola mugitu ikastea baino, eta, bide batez, ikasleak planaren nondik norakoak bereganatzea.

Horretarako, ikasleak eskura izan behar du plan hori, eta proposatu behar du egitateen zerrenda honetako deskribapen bakoitzari zein kontabilitate-kontu dagokion.

1. Gure enpresak salgaiak erosi dizkio beste enpresa bati.
2. Kontrakoa: beste enpresa batek gure enpresari erosi dizkio salgaiak.
3. Lehengaiak izango balira, zer kontu erabiliko genuke kasu bakoitzean?
4. Makineriaren gaineko aseguru-prima.
5. Langile bat bilatzeko iragarkia jarri dugu egunkari famatu batean.
6. Garraio-elementuetarako gasolioa.
7. Enpresak egoitza soziala duen lokalaren errentamendua.
8. Telefonoa.
9. Beste enpresa batek eskainitako zerga-aholkularitza.
10. Elektrizitatea.
11. Ur-hornidura.
12. Langileen soldatak.
13. Langileen aparteko soldatak.
14. Guk jasotako aholkularitza juridikoa.
15. Bolalumak, borragomak eta bulegoko beste hainbat material, ekitaldian zehar kontsumitzekoak.
16. Gauza berak, baina biltegian gordetzekoak eta hainbat ekitalditan eragina izango dutenak.
17. Enpresak egoitza soziala duen lokala pintatzea.
18. Urteko Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
19. Diru-irteerak gure makineria beste enpresa bati alokatzeagatik.
20. Enpresako langile ez den pertsona batek enpresari emandako zerbitzu-komisioak.
21. Ordaindutako banku-komisioak.
22. Gure bulegoko auzo-komunitatearen gastuak.
23. Gure lantegia garbitzeagatik gastua.
24. Diru-irteerak patenteak erabiltzeagatik.
25. Ordenagailuen mantentze-lanen gastuak.
26. Gastuak epaitegian izandako auzi judizial bategatik.
27. k/k-etan gure alde sortutako interesak.

28. Diru-sarrera gure jabetza industrialak lagatzeagatik.
29. Gure jarduera nagusia larruzko jantziak egitea da; beste enpresa bati ordaindu diogu larruak apaintzeagatik.
30. Zinpeko zaintzaileari ordaintzearen gastuak.
31. Diru-sarrerak gure eskorga tolesgarria beste enpresa bati alokatzeagatik.
32. Langileen seme-alabentzako diru-laguntzak.
33. Enpresaren aldeko interesak beste enpresa batzuei emandako kredituengatik.
34. Gastuak jantoki-zerbitzuagatik eta langileak garraiatzeagatik.
35. Udal zerga-tasagatik ordainketa.

Proposatutako soluzioa:

1. 6. taldekoa eta kontua: *Salgai-erosketak* (600)
2. 7. taldekoa eta kontua: *Salgai-salmentak* (700)
3. 6. taldekoa eta kontua: *Lehengai-erosketak* (601)
7. taldekoa eta kontua: ez dago lehengaiak saltzerik, ekoizte-prozesurako dira lehengaiak; nonbait egotekotan, *Azpiproduktu eta hondarren salmentak* (703) kontuan egongo lirateke.
4. Makineria ibilgetuaren barnean dagoenez, *Aseguru-primak* (625) kontua dagokio, ez baitira enpresako pertsonen aldeko aseguru-primak. *Beste zenbait gastu sozial* (649) kontuan egongo lirateke haiek.
5. *Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak* (627).
6. *Beste zenbait hornikuntza-erosketa* (602)
7. *Errentamenduak eta kanonak* (621): ordainketak alokatutako elementu higigarriengatik eta higiezinengatik.
8. Hasiberrien betiko akatsa da *Hornikuntzak* (628) kontuan sartzea, baina, berezitasun gisa, *Beste zenbait zerbitzu* (629) kontuan sartuta dago.
9. *Profesional independenteen zerbitzuak* (623): profesional batek egindako zerbitzua da zerga-aholkularitza.
10. *Hornikuntzak* (628): kontu honen deskribapenean agertzen denez, kontu honen bitartez kontabilizatzen dira elektrizitatea, gasa eta beste.
11. Ur-hornidura hornidura mota bat da; beraz, *Hornikuntzak* (628)
12. Langileen soldata *Pertsonal-gastuak* (64) azpitaldean dago sartuta: *Soldata eta alokairuak* (640) kontuan, hain zuzen ere.
13. Langileen aparteko soldatak, aurrekoa bezala, *Soldata eta alokairuak* (640) kontuan daude sartuta; nahiz eta soldatak finkoak ez izan, tratamendu bera eman behar zaie.

14. 9. kasuan bezala, aholkularitza juridikoa profesional batek —kasu honetan, abokatu batek— eskainitako zerbitzu bat da; beraz, *Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak* (627) kontuan sartu behar dugu.
15. *Beste zenbait zerbitzu* (629): 62. azpitaldeko beste kontuetan sartzen ez diren zerbitzuengatikoko gastuek osatzen dute kontu hau.
16. Kasu honetan, bolalumeak, borragomek eta bulegoko beste hainbat materialek guztiz tratamendu ezberdina dute: hornidurak badira ere, urteko zenbatze- eta erregularizazio-prozesuen mende daude. Beraz, *Beste zenbait hornikuntza-erosketa* (602) kontuan sartu behar dira.
17. Lokala pintatzea ibilgetuaren mantentze-zerbitzuen mota bat da; beraz, *Konponketak eta kontserbazioa* (622) kontuan sartu behar da.
18. Zerga hau ez denez ez BEZa ez Sozietateen gaineko Zerga, *Bestelako zergak* (631) kontuan dago sartuta, udal-zerga guztiak bezalaxe: Trakzio Mekanikoaren gaineko Zerga, Instalazio, Eraikuntza eta Obren gaineko zerga, Hiri-lurren Balio-gehikuntzaren gaineko Zerga eta gainerako udal-zergak.
19. Egitate hau kontabilizatzeko, suposatzen da makineria alokatzea ez dela gure jarduera nagusia. Beraz, *Salmenta eta sarrerak* taldean sartu behar da, hain zuzen ere, *Errentamenduengatikoko sarrerak* (752) kontuan. Makineria ondare-elementu higiezinak da, baina kontu honek bai higigarrien bai higiezinen alokairuak biltzen ditu.
20. Pertsona hori agente bitartekari independentea da. Demagun komisio horiek ez direla erosketengatikoko komisioak; horrenbestez, *Profesional independenteen zerbitzuak* (623) kontuan sartzen dira.
21. Kasu honetan, *Banku-zerbitzuak eta antzekoak* (626) kontua erabiltzen da. Komisio bat ez da finantza-gastua —hau da, interesa—; beraz, adierazi dugun kontu hori dagokio, eta ez *Gastu finantzarioak* (66) azpitaldeko.
22. *Konponketak eta kontserbazioa* (622) kontua dagokio. Zer biltzen du kontu honek? 2. taldeko ondasunen mantentze-zerbitzuetan egindako gastuak.
23. Berriro ere *Konponketak eta kontserbazioa* (622).
24. *Errentamenduak eta kanonak* (621). Patentea jabetza industrialaren adierazpena da; beraz, kanona da dagokion gastua.
25. Berriro ere *Konponketak eta kontserbazioa* (622).
26. Gastu horien jatorria abokatuari eginiko ordainketak dira, epaitegian bitartekari-lanak egiteagatik. Beraz, *Profesional independenteen zerbitzuak* (623) kontua dagokie.
27. Interes horiek sarrera finantzarioak dira; beraz, azpitalde horretako kontuen artean bilatu behar da dagokien kontua. Hain zuzen, *Beste zenbait sarrera finantzario* (769) kontuan agertzen diren sarreretan, kontu korronteez eta aurrezki-libretez sortutako interesak dira ohikoak.
28. Jabetza industrialak eskubidea da, eta hura erabiltzen lagatzeagatik kantitate jakin bat jaso dugu; kantitate hori finkoa edo aldakorra izan daiteke. Beraz, *Ustiapenean lagatako jabetza industrialagatikoko sarrerak* kontua dagokio.

29. Gastua da, eta *Beste enpresa batzuek egindako lanak* (607) kontua erabili behar da. Zerbitzu hau enpresaren produkzio-prozesukoa da, eta produkzio-prozesu horren zati bat beste enpresa bati agindu diogu; horrenbestez, gastu hori adierazitako kontuan sartzen da.
30. Zinpeko zainzaile hori profesionala da; beraz, *Profesional independenteen zerbitzuak* (623) kontuan sartzekoa da.
31. Iruzkirik gabe, *Errentamenduengatiko sarrerak* (752).
32. Dagokion kontua: *Beste zenbait gastu sozial* (649).
Gizarte-gastuak dira. Kontu honetan biltzen diren gastuen artean, hauek aipatuko ditugu: bizi-aseguruak, istripu eta gaixoardietarako aseguru-primak, ikasketetarako diru-laguntzak, jantoki eta ekonomatueterako diru-laguntzak...
33. Sarrera finantzarioak dira, 76. azpitaldekoak. *Epe luzerako kredituen sarrerak* (762) kontua: kredituen interesak dira. Kontu horrek zenbateko gordina —atxikipenik gabekoa— jasotzen du.
34. 30. puntuan bezala, *Beste zenbait gastu sozial* (649)
35. Tasa hori, udal-zergak bezala, *Bestelako zergak* (631).

3.7 Kontabilitate-zikloa: ikuspegi orokorra

Kontabilitatearen ardatz nagusia da kontabilitate-zikloa. Horrela bada ere, oraindik ez dugu erregularizazioan sakondu. Ikasleak bere osotasunean ulertu behar du prozesu hau, eta, hortik aurrera, kontabilitateko xede balitz bezala eraiki behar du bere ezagutza. Beti atal berberak ezberdintzen dira, eta emandako ordenan. Adibide baten bitartez aztertuko dugu:

Adibidea:

KASA S.A. ondare-egoera honekin hasiko da (salgaiak salerostea du jarduera nagusia edo berariazkoa):

AKTIBOA		PASIBOA	
Eraikuntzak	60.000 €	Kapital soziala	70.000 €
Lurrak eta ondasun naturalak	10.000 €	Kreditu erakundeekiko epe luzerako zorrak	20.000 €
Altzariak	12.000 €	Epe luzerako ibilgetu-hornitzaileak	29.000 €
Garraio-elementuak	8.000 €		
Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, €	9.000 €		
Kutxa, €	20.000 €		
GUZTIRA:	119.000	GUZTIRA:	119.000

- ✓ Hil guztietan, 15ean, salgai kantitate berbera saltzen du, hau da, 12.000 €-koa. Erdia esku-dirutan kobratzen du, eta beste erdia hurrengo hilaren 15ean, fakturretan dokumentaturik.
- ✓ Aldi berean, hil guztien 10ean, 10.000 €-ko salgaiak erosten dizkio betiko hornitzaileari, esku-dirutan kobratzeko baldintzarekin (oharra: ez dugu BEZa kontuan hartuko ez salmentetan ez erosketetan).
- ✓ Ez dago beste inolako gasturik, ezta sarrerarik ere.
- ✓ Ekitaldiaren amaieran, ez da geratzen inolako izakinik enpresaren biltegian.

Informazio horren arabera, hauek eskatzen dira:

- ✓ Irekiera-idazpena egitea.
- ✓ Urteko eragiketak kontabilizatzea egunkari liburuan. Bide batez, sortzen diren idazpenak ere jaso liburu nagusian.
- ✓ Erregularizazio-idazpena egin baino lehen, egiaztapen-balantzea egitea —gogoan izan nahitaezkoa dela gutxienez hiru hilean behin egitea—.
- ✓ Erregularizazio-idazpena egitea.
- ✓ Emaizta kalkulatzea eta galdu-irabazien kontuaren saldoaren esanahia azaltzea.
- ✓ Itxiera-idazpena egitea.
- ✓ Egoera-balantzea egitea.
- ✓ Hurrengo urteko irekiera-idazpena egitea.

Hasiera-idazpena egunkari-liburuan

1 -----	06ko urtarrilaren 1-----		
60.000	Eraikuntzak (221)		
10.000	Lurrak eta ondasun naturalak (220)		
12.000	Altzariak (226)		
8.000	Garraio-elementuak (228)		
9.000	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)		
20.000	Kutxa, € (570)		
		Kapital soziala (100)	70.000 €
		Kreditu Erakundeekiko epe luzerako zorrak (170)	20.000 €
		Epe luzerako ibilgetu-hornitzaileak (173)	29.000 €
-----X-----			

Egunkari liburua

2 -----06ko urtarrilaren 10a-----
 10.000 Salgai-erosketak (600)
 Kutxa, € (572) 10.000
 -----X-----

3 -----06ko urtarrilaren 15a-----
 6.000 Kutxa, € (570)
 6.000 Bezeroak (430)
 Salgai-salmentak (700) 12.000
 -----X-----

4 -----06ko otsailaren 10a-----
 10.000 Salgai-erosketak (600)
 Kutxa, € (570) 10.000
 -----X-----

-----06ko otsailaren 15a-----
 6.000 Kutxa, € (570)
 Bezeroak (430) 6.000
 -----X-----

-----06ko otsailaren 15a-----
 6.000 Kutxa, € (570)
 6.000 Bezeroak (430)
 Salgai-salmentak (700) 12.000
 -----X-----

-----06ko martxoaren 10a-----
 10.000 Salgai-erosketak (600)
 Kutxa, € (570) 10.000
 -----X-----

-----06ko martxoaren 15a-----
 6.000 Kutxa, € (570)
 Bezeroak (430) 6.000
 -----X-----

-----06ko martxoaren 15a-----		
6.000	Kutxa, € (570)	
6.000	Bezeroak (430)	
	Salgai-salmentak (700)	12.000
-----x-----		
-----06ko apirilaren 10a-----		
10.000	Salgai-erosketak (600)	
	Kutxa, € (570)	10.000
-----x-----		
-----06ko apirilaren 15a-----		
6.000	Kutxa, € (570)	
	Bezeroak (430)	6.000
-----x-----		
-----06ko apirilaren 15a-----		
6.000	Kutxa, € (570)	
6.000	Bezeroak (430)	
	Salgai-salmentak (700)	12.000
-----x-----		
-----06ko maiatzaren 10a-----		
10.000	Salgai-erosketak (600)	
	Kutxa, € (570)	10.000
-----x-----		
-----06ko maiatzaren 15a-----		
6.000	Kutxa, € (570)	
	Bezeroak (430)	6.000
-----x-----		
-----06ko maiatzaren 15a-----		
6.000	Kutxa, € (572)	
6.000	Bezeroak (430)	
	Salgai-salmentak (700)	12.000
-----x-----		

-----06ko ekainaren 10a-----
 10.000 Salgai-erosketak (600)
 Kutxa, € (570) 10.000

-----x-----

-----06ko ekainaren 15a-----
 6.000 Kutxa, € (570)
 Bezeroak (430) 6.000

-----x-----

-----06ko ekainaren 15a-----
 6.000 Kutxa, € (570)
 6.000 Bezeroak (430)
 Salgai-salmentak (700) 12.000

-----x-----

-----06ko uztailaren 10a-----
 10.000 Salgai-erosketak (600)
 Kutxa, € (570) 10.000

-----x-----

-----06ko uztailaren 15a-----
 6.000 Kutxa, € (570)
 Bezeroak (430) 6.000

-----x-----

-----06ko uztailaren 15a-----
 6.000 Kutxa, € (570)
 6.000 Bezeroak (430)
 Salgai-salmentak (700) 12.000

-----x-----

-----06ko abuztuaren 10a-----
 10.000 Salgai-erosketak (600)
 Kutxa, € (570) 10.000

-----x-----

-----06ko urriaren 15a-----		
6.000	Kutxa, € (570)	
6.000	Bezeroak (430)	
	Salgai-salmentak (700)	12.000
-----x-----		
-----06ko azaroaren 10a-----		
10.000	Salgai-erosketak (600)	
	Kutxa, € (570)	10.000
-----x-----		
-----06ko azaroaren 15a-----		
6.000	Kutxa, € (570)	
	Bezeroak (430)	6.000
-----x-----		
-----06ko azaroaren 15a-----		
6.000	Kutxa, € (570)	
6.000	Bezeroak (430)	
	Salgai-salmentak (700)	12.000
-----x-----		
-----06ko abenduaren 10a-----		
10.000	Salgai-erosketak (600)	
	Kutxa, € (570)	10.000
-----x-----		
-----06ko abenduaren 15a-----		
6.000	Kutxa, € (570)	
	Bezeroak (430)	6.000
-----x-----		
-----06ko abenduaren 15a-----		
6.000	Kutxa, € (570)	
6.000	Bezeroak (430)	
	Salgai-salmentak (700)	12.000
-----x-----		

Egiaztapen-balantzea:

KONTUEN IZENA	BATURAK		SALDOAK	
	ZOR	HARTZEKO	ZORDUNAK	HARTZEKODUNAK
Eraikuntzak (221)	60.000		60.000	
Lurrak eta ondasun naturalak (220)	10.000		10.000	
Altzariak (226)	12.000		12.000	
Garraio-elementuak	8.000		8.000	
Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)	9.000		9.000	
Kutxa, € (570)	158.000	120.000	38.000	
Kapital soziala (100)		70.000		70.000
Kreditu-erakundeekiko epe luzerako zorrak (170)		20.000		20.000
Epe luzerako ibilgetu-hornitzaileak (173)		29.000		29.000
Salgai-erosketak (700)	120.000		120.000	
Salgai-salmentak (600)		144.000		144.000
Bezeroak (430)	6.000		6.000	
Guztira	383.000	383.000	263.000	263.000

Erregularizazio-idazpena

-----06ko abenduaren 31-----
 144.000 Salgai-salmentak (700)
 Galdu-irabaziak (129) 144.000
 -----X-----

-----06ko abenduaren 31-----
 120.000 Galdu-irabaziak (129)
 Salgai-erosketak (600) 120.000
 -----X-----

Salmentak erosketak baino handiagoak izan dira; beraz, ekitaldiaren emaitza positiboa izan da, hau da, ekitaldian zehar mozkinak izan ditu enpresak: 24.000 €-ko mozkinak, hain zuzen ere.

Itxiera-idazpena:

-----06ko abenduaren 31-----		
70.000	Kapital soziala (100)	
20.000	Kreditu-erakundeekiko epe luzerako zorrak (170)	
29.000	Epe luzerako ibilgetu-hornitzaileak (173)	
24.000	Galdu-irabaziak (129)	
	Eraikuntzak (221)	60.000
	Lurrak eta ondasun naturalak (220)	10.000
	Altzariak (226)	12.000
	Salgaiak (300)	8.000
	Banku eta Kreditu....(572)	9.000
	Kutxa, € (570)	38.000
	Bezeroak (430)	6.000
143.000	<i>(Guztira)</i>	143.000 <i>(Guztira)</i>
-----X-----		

Irekiera-idazpena:

-----07ko urtarrilaren 1a-----		
60.000	Eraikuntzak (221)	
10.000	Lurrak eta ondasun naturalak (220)	
12.000	Altzariak (226)	
8.000	Salgaiak (300)	
9.000	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)	
38.000	Kutxa, € (570)	
6.000	Bezeroak (730)	
	Kapital soziala (100)	70.000
	Kreditu-erakundeekiko epe luzerako zorrak (170)	20.000
	Epe luzerako ibilgetu-hornitzaileak	29.000
	Galdu-irabaziak (129)	24.000
-----X-----		

3.8 Ikasgaiari buruzko ariketak

1. Hona hemen kontabilitate-printzipioen adibide batzuk. Erantzun itzazu galderak:

- a. Biltegian, 7.200 €-ko balioko izakinak dauzkagu, baina zaharkiturik gelditu direnez, haien merkataritza-prezioa 6.000 €-ra jaitsi da, eta ez dugu prezio hori igoko den itxaropenik. Zer galera mota izan dugu? Zer kontabilitate-printzipio aplikatu behar dugu? Kontabilitate-printzipio horren arabera, zer egingo dugu galera horrekin?
- b. Demagun badaukagula merkataritza-prezioa igotzeko itxaropena. Zer-nolako galera izango da egoera horretan? Zer tratamendu jasoko du?
- c. Eman dezagun, merkataritza-prezioa 6.000 €-koa izan beharrean, 8.000 €-koa dela. Orduan, zelako aldaketa izan dute izakinek? Zer egin behar dugu egoera horretan?
- d. Aurtengo kontabilitatea amaitzen ari gara, eta ekitaldiko azken eragiketak egiteko prest gaude, besteak beste, amortizazioenak. Baina ohartu gara aurtengoa azken ekitaldia izango dela, ustiatu dugun kontzesioko epea amaitzear baitago. Orduan, egokia izango da, zure ustez, ibilgetuaren amortizazio hori kontuan ez hartzea? Zer kontabilitate-printzipiok arautzen du halako tratamendua?
- e. Gure ohiko hornitzaileari abenduaren 28an erosi dizkiogu salgaiak, baina ez dira gure biltegiara sartuko urtarrilaren 5a arte —ordaintzeko betebeharra sortzen den unea—. Zer ekitalditan egotzi behar dugu gastua? Zer kontabilitate-printzipio erabiltzen ari gara?
- f. Gure bulegoa berritzeko, 18.000 €-ko altzariak erosi genituen otsailaren 18an, baina sei hilabete igaro eta gero konturatu gara altzarien prezioak galera nabaria izan duela, eta, saltzekotan, 15.000 € besterik ez genituzkeela lortuko. Kontabilitatean, izango du aldaketarik jatorrizko prezioak, edo behin betiko prezioa erabiliko dugu amortizatzean eta balantzean agertzeko? Zer kontabilitate-printzipio hartu dugu kontuan?
- g. Enpresako baliabideak erabiliz, gure makineriaren piezak fabrikatu ditugu. Ekoizpen-kostua 300 €-koa dela jotzen da. Zer baliotan agertzen dira pieza horiek gure aktiboan eta gure ondarean? Zer kontabilitate-printzipio hartu dugu aintzat?
- h. Gerora egin diguten erosketa baten kontura, 1.000 € aurreratu dizkigute geure bezeroek abenduaren 15ean. Baina salmenta ez da gauzatuko hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 15a arte. Zer ekitalditan egotziko dugu sarrera hori? Zer kontabilitate-printzipiok arautzen du kontabilitateko egitatea?
- i. Publizitate-enpresa batekin tratutan gaude, eta bi urteko zerbitzua emango digutela adostu dugu. Horren arabera, publizitatea lau kanpainatan egingo digute: udazkena-negua eta udaberria-uda (bi aldiz). Kontratua itxi bezain laster ordaintzeko baldintza jarri digu publizitate-enpresak; hots, kanpainaren hasieran kobratu behar dute. Noizko eragina dauka gastu horrek? Zer kontabilitate-printzipio hartu dugu aintzat?

- j. Gure ondasuneko eraikin bat saldu dugu. Gure balantzearen arabera, erosketa-balioa 6.000 €-koa izan zen, eta salmenta-prezioa 60.000 €-koa izan da. Kontulariaren ustez, hori aparteko irabazia da, eta, ondorioz, aintzat ez hartzea erabaki dugu, ez ikusiarena egitea. Legezkoa da? Zer kontabilitate-printzipio erabili behar dugu irtenbidea aurkitzeko?
 - k. 13.000 €-ko salgaiak erosi ditugu, eta gero, etekinak berehala atera nahian, 24.000 €-an saldu. Kasu honetan, behar-beharrezkoa da gastuen eta sarreraren banakapena egitea, ala ontzat eman dakioke 11.000 €-ko salmenta kontabilizatzeari? Zer kontabilitate-printzipiok adierazten digu gastuen eta salmenten atal bakoitzari zer tratamendu eman?
 - l. Abenduaren 30ean, egunero egunkaria ekartzen digunari 6 €-ko eskupekoa eman diogu eskura, baina dagoeneko itxita daude kontabilitateko liburuak, eta memoria egitean zalantzan gaude egitate ekonomiko hori bertan jakinarazi edo, besterik gabe, hurrengo ekitaldian kontabilizatu. Zer da egokiena? Zer kontabilitate-printzipioen arabera da?
2. Zenbat zati dauzka Kontabilitate-plan orokorrak? Nahitaezkoak dira atal guztiak? Zein dira nahitaezkoak, eta zein borondatezkoak? Zein beharri erantzuten diete nahitaezkoak ez diren zatiek?
 3. Zenbat talde dauzka Kontabilitate-plan orokorrak? Zerrendatu haien izenburuak.
 4. Berdinak dira talde guztietako kontuak? Zer ezberdintasun dago 6. taldeko eta 7. taldeko kontuen eta 1. taldeko eta 5. taldeko kontuen artean?
 5. Badago hierarkiarik kontabilitate-printzipioen artean? Bada gainerako printzipioekiko lehentasuna duenik?
 6. Zer da egiaztapen-balantzea? Noiz egin behar da? Zer esaten du legeriak horren gainean?
 7. Zein ezberdintasun dago egiaztapen-balantzearen eta egoera-balantzearen artean? Biak dira inbentario eta balantzeen liburuan sartu beharrekoak?
 8. GAMMA izeneko elkarteak beira-aleak salerostea du jarduera nagusia. 2006ko urtarrilaren 1ean, hauek dira haren ondare-elementuak:

AKTIBOA		PASIBOA	
Altzariak (226)	360 €	Kapital soziala (100)	9.000 €
Bezeroak (430)	1.500 €	Hornitzaileak (400)	1.560 €
Salgaiak (300)	5100 €		
Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)	3.000 €		
Kutxa, € (570) 600 €			
GUZTIRA:	10.560 €	GUZTIRA:	10.560 €

Eragiketa hauek egin ditu urtarrilean:

1. 6.000 euroko salgaiak erosi ditu; % 25 eskudirutan ordaindu du, eta gainerakoa, kredituz.
2. 9.600 euroko salgaiak saldu ditu; % 50, eskudirutan, eta gainerakoa handik hiru hilabetera kobratuko du.
3. Hornitzaileei 360 € ordaindu dizkie, eta bezeroengandik 1.500 € kobratu ditu.
4. Hilabeteko elektrizitate-fakturagatik eta urarenagatik 600 € ordaindu ditu bankuko k/k-aren bidez.
 - ✓ Egin sortzen diren idazpenak egunkari liburuan.
 - ✓ Kalkula ezazu urteko emaitza, erregularizazio-idazpena eginez.
 - ✓ Egin ezazu itxiera-idazpena eta, bide batez, egoera-balantzea.

9. *Arrain zoriontsua* izeneko arrandegiak eragiketa hauek egin ditu urtean zehar:

1. 12/01: berriazko jarduera arrainen xehekako salerostea izanik, bazkideek egindako ekarpe-nei esker kapitala eratu da, eta orain ondare-elementu hauek dituzte:

Balantza elektronikoko bi, 600na €-an	1.200 €
Kutxa, €	4.800 €
Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, €	6.000 €
Altzariak (226)	12.000 €

Ondare-elementu horiek osatzen dute kapital soziala.

2. 12/03: furgoneta bat erosi dugu arrainak garraiatzeko, 50.000 €-an: 15.000 € eskudirutan ordaindu ditugu, eta gainerakoa zorretan utzi dugu, merkataritza-efektuetan dokumentatua.
3. 12/06: abenduko alokairua ordaindu dugu: 400 €.
4. 12/31: abenduan 1.800 €-ko erosketak egin dira lonjan.
5. 12/31: halaber, abenduko salmentak 3.600 €-koak izan dira.

Kontabilitateko egitate horiek abiapuntu harturik,

- ✓ Egin itzazu aurreneko idazpenak egunkari liburuan.
- ✓ Egin ezazu egiaztapen-balantzea.
- ✓ Kalkula ezazu urteko emaitza erregularizazio-idazpena eginez.
- ✓ Egin ezazu itxiera-idazpena.
- ✓ Egin egoera-balantzea.

10. Urtarrilaren 1ean, Pilar Landetak enpresa indibidual bat eratu du: zapata-denda bat, hain zuzen ere. Eta horretarako, 42.000 €-ko ordainketa egin du, eskura. Gerora, k/k bat irekiko du kantitate horren erdiarekin.

- ✓ Negozioa martxan jartzeko, eraikin bat erosi du, eta 12.000 € eskudirutan ordaindu ditu. Eraikin hori egoitza soziala izango da, eta hainbat gauzatarako erabiliko du Pilarrek: bai biltegitarako, bai bulegotarako, bai denda gisa erabiltzeko. Normalean, lurra da eraikinaren merkataritza-prezioaren % 10, baina kasu honetan, azterketa teknikoaren arabera, % 20 koa izango da.
- ✓ Hastapen-gastuak —eragiketa tekniko-ekonomikoak— 800 €-koak izan dira, besteak beste, merkaturatzeko publizitatea, ikerketengatiko ordainsariak...
- ✓ Hainbat altzari erosi ditu bulegorako: lan-mahaia, aulki birakariak, besaulkiak, artxiboak, apalategiak, argiak eta abar. Guztira: 6.000 €.
- ✓ Kontabilitatea eramateko, ordenagailu bat eta inprimagailu bat erosi ditu. Elektronika aldetik, kalkulagailua eta kutxa erregistratzailea. Hona hemen banakapena:

ELEMENTU MOTA	PREZIOA
Ordenagailua	700
Inprimagailua	80
Kalkulagailua	20
Kutxa erregistratzailea	300

- ✓ Garraiorako, monobolumena erosi du 12.000 €-an.
- ✓ Mota askotako oinetakoak erosi ditu: neguko, botak, zapatak, kirolekoak... Guztira: 6.000 €. Kontabilitatea egin den datan bertan eskudirutan ordaindu ditu.
- ✓ Neguko bota, zapata eta abar horien salmentak 24.000 €-koak izan dira. Kontabilizatzean, den-denak daude eskudirutan ordainduta.
- ✓ Negozioa handitzeko asmotan, antzeko enpresa bat erosi du, hiritik gertuago eta kokaleku aproposagoan. Dagoeneko martxan dago. Negozio horrengatik 24.000 € ordaindu ditu, erdia txkekez, eta gainerakoa zorretan.

Inbentarioaren arabera, hauek dira ondare-elementuak:

ONDARE-ELEMENTUA	BALIOA
Lur-saila	3.600 €
Eraikinak	12.000 €
Altzariak	1.200 €
Ordenagailuak	3.000 €
Aplikazio informatikoak	1.800 €
Guztira:	21.600

Datu horien arabera, egin itzazu:

1. Sortzen diren kontabilitate-idazpenak, egunkari-liburuan.
2. Azken egiaztapen-balantzea.
3. Erregularizazio-idazpena.
4. Itxiera-idazpena.

11. Kontabilitate-plan orokorreko kontuak erabiliz, zehatz ezazu 6. taldeko edo 7. taldeko zer kontu den egokiena kontabilitate-egitate hauek kontabilizatzeko:

1. Garraio-elementuen gaineko aseguru-prima.
2. Uraren hornidura.
3. Telefono-faktura.
4. Bulegoko materiala, ekitaldian zehar kontsumitzekoa.
5. Hainbat ekitalditan kontsumitzeko bulegoko materiala.
6. Makineria konpontzeagatik sortutako gastua.
7. Gure langileen soldatak.
8. Gure produktuen aldeko iragarki laburrak irratiz igortzeagatik sortutako gastua.
9. Gure tresneriaren eta erreminten urteko erregularizazioa egitean, ohartu gara aliketa batzuk eta bihurkin batzuk falta direla. Zer kontuk hartzen du galera hori?
10. Lehengaiak erosteagatik erabilitako kontua.
11. Gure berariazko jarduera autoak fabrikatzea da, baina, ekoizte-prozesuaren barruan, eginbehar berezi bat agindu diogu beste enpresa bati: hots, autoetako beirak belztea. Eragiketa hori kontabilizatzeko, zer kontu zorduntzen da?
12. Aupalan izeneko enpresa bati enkargatu diogun ikerketa-zerbitzuagatik egindako gastua.
13. Gure lokala errentan hartzeagatik hileroko alokairua.
14. Lokalaren teilatua konpontzeagatik sortzen den gastua.
15. Zerga-aholkularitza jasotzeagatik izandako gastua.
16. Salgaiak saldu eta gure kontura garraiatzeagatik izandako bi gastuak.
17. 3.000 € baino gutxiagoko batz besteko saldoa gure aurrezki-kontuan izateagatik bankuari ordaindutako komisioa.
18. Gure lokalean lanak egiteagatik ordaindutako udal-zerga.
19. Erretiro aurreratua hartu behar izateagatik enpresak langile bati emandako kalte-ordaina.
20. BBK-koek emandako epe luzerako maileguaren interesak ordaindu beharra.
21. Uholde bat dela eta, makineriaren erdia galdutzat jo dugu. Zer gastu-kontuk hartuko du horrelako galera?

22. Gure ekipamenduarekin eta gure langileek egindako produktuak saltzeagatik sortutako sarrera.
23. Gure flotako kamioi bat beste enpresa bati alokatzeagatik jasotako diru-sarrera —ez da gure jarduera nagusia—.
24. Ikerketa eta Garapenerako Sailaren Industria Jabetzarako Erregistroan inskribatutako patentea lagatzeagatik sarrera.
25. Enpresaren aldeko diru-sarrera enpresako langileek ekonomatuari eta jantokiari etekina ateratzeagatik.
26. Beste enpresa bati emandako kredituagatik jasotako interesak.

4 IZAKINEN EROSKETAK, IZAKINEN SALMENTAK. IZAKINEN ERREGULARIZAZIOA. IZAKINEN BALIOESTEA. MERKATARITZA-EFEKTUAK. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

4.1 Izakinen erosketak. Izakinen salmentak

Nahiz eta izakinak kontabilizatzeko beste metodo bat izan⁶, ikasgai honetan Kontabilitate-plan orokorreko irizpidea —izakinei dagokienez— erabiliko dugu, hots, metodo espekulatiboa: erosketak erosketa-prezioan balioztatzen dira, eta salmentak, aldiz, salmenta-prezioan. Eragiketa horien emaitza orokorra *Galdu-irabazien urteko kontuan* agertzen da erregularizazio-idazpenaren bitartez.

Salgai-erosketak

Izakinez izakin joango gara, eta salgaiak hartuko ditugu eredutzat. Demagun merkataritza-enpresa bat aztertzen ari garela, eta salgaien erosketekin zerikusia daukaten Kontabilitate-plan orokorreko kudeaketa-kontuak hauek direla:

(600) Salgai-erosketak

(608) Erosketa-itzulketak eta antzeko eragiketak

(609) Erosketen gaineko rappelak

(765) Erosketen gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik

Bigarren eta hirugarren kontuok, nahiz eta 6. taldean sailkaturik egon, salmenta eta sarreraren kontuak izango balira bezala funtzionatzen dute. Orduan, esan daiteke azken hirurak 7. taldeko kontuen antzekoak direla.

⁶ Metodo administratiboa deritzona, hain zuzen ere: metodo horren arabera, edozein motatako erosketak erosketa-prezioan balioztatu behar dira, eta edozein motatako salmentak ere erosketa-prezioan balioztatu behar dira; beste alde batetik, salmenta bakoitzerako eragiketaren emaitza diferentziaz kalkulatu da izakinak saltzen diren unean bertan.

► **Salgai-erosketak (600)**

Zenbatekoaren aldetik, zer eragin du kontu honek?

(+) : erositako salgaiak, erosketa-prezioan.

(+) : erosketen gaineko garraioak, enpresaren kontura izandakoak, eta bestelako erosketa-gastuak.

(+) : erosketen gaineko zergak, BEZa kengarria izan ezik.

(-) : fakturan agertzen diren deskontu eta antzekoak, goiz ordaintzeagatikoak ez direnak, besteak beste, rappelak —eskaeraren zifragatik lortutako deskontu eta antzekoak: hau da, deskontu komertzialak edo sustapenagatikoak—.

Noiz egingo da zordunketa?:

- ✓ Garraioa enpresaren konturakoa ez denean: ondasunak enpresan jasotzen diren unean bertan.
- ✓ Garraioa enpresaren kontura denean, ondasunak bidean jartzen diren unean bertan. Aurreko atalean, ezinbestekoa zen enpresak ondasunak jasotzea; atal honetan, ostera, ez.

1. adibidea

Enpresaren konturako erosketa-gastuen artean, hainbat motatakoak ditugu: aseguruak, erosketen gaineko garraioak, muga-zergak... Ikus ditzagun horrelako adibide batzuk.

- a) 50 salgai unitate erosi ditugu, bakoitza 100 €-an, eta eskudirutan ordaindu dugu. Gainera, salgaien gaineko aseguru-prima 100 €-koa da, eta hori ere eskura ordaindu dugu.

	-----X-----	
5.100	Salgai-erosketak (600)	
	Kutxa, € (570)	5.100
	-----X-----	

- b) 200 salgai unitate erosi ditugu, bakoitza 10 €-an. Salgaien garraioagatik 500 € ordaindu behar izan ditugu, den-dena eskura.

	-----X-----	
2.500	Salgai-erosketak (600)	
	Kutxa, € (570)	2.500
	-----X-----	

- c) 10.000 litro gasolina inportatu ditugu, 0,5 €-an litro bakoitza. 100 €-ko muga-zerga ordaindu behar izan dugu. Inportatutako gasolina guztia ere eskudirutan ordaindu dugu.

-----X-----		
5.100	Beste zenbait hornikuntza- erosketa (600)	
	Kutxa, € (570)	5.100
-----X-----		

► **Erosketa-itzulketak eta antzeko eragiketak (608)**

Faktura jaso ondoren eskabidean jarritako baldintzak ez betetzeagatik, kalitate-akatsengatik, entrega-epeak ez betetzeagatik edo antzeko arrazoiengatik lortutako deskontu eta antzekoak kontu honetan kontabilizatu behar dira.

2. *adibidea*

30.000 euroko salgaiak erosi ditugu kredituz, eta, hogeiei egunera, 5.000 €-ko deskontua lortu dugu, ez dutelako betetzen eskatutako kalitatea.

-----X-----		
30.000	Salgai-erosketak (600)	
	Hornitzaileak (400)	30.000
-----X-----		

-----X-----		
5.000	Hornitzaileak (400)	
	Erosketa-itzulketak eta antzeko eragiketak (608)	5.000
-----X-----		

3. *adibidea*

6.000 euroko salgaiak erosi ditugu. Gero, entrega-epea ez betetzeagatik, 500 €-ko deskontua egin digu hornitzaileak, eta, horretaz gain, 1.000 €-ko salgaiak itzuli dizkiogu.

-----X-----		
6.000	Salgai-erosketak (600)	
	Hornitzaileak (400)	6.000
-----X-----		

-----X-----		
1.500	Hornitzaileak (400)	
		Erosketa-itzulketa eta antzeko eragiketak (608)
		1.500
-----X-----		

► **Erosketen gaineko rappelak (609)**

Eskaeraren zifragatik lortutako deskontu eta antzekoak kontu honetan kontabilizatu behar dira, fakturan sartutako rappelak izan ezik⁷. Rappelei *merkataritzako deskontu* ere baderitze.

4. adibidea

- a) 100.000 euroko salgaiak erosi ondoren, eskaera-zifragatik 5.000 euroko deskontua jaso dugu fakturan bertan.

Ebazpena: Ordainbidea zein izan den ez dakigunez, demagun zorretan utzi dugula erosketa — hemendik aurrera, ariketa guztietan aplikatuko dugu premisa hori—.

-----X-----		
95.000	Salgai-erosketak (600)	
		Hornitzaileak (400)
		95.000
-----X-----		

► **Erosketen gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik (765)**

Enpresak goiz ordaintzeagatik lortutako deskontu eta antzekoak (baita fakturan sartutakoak ere) finantza-sarreratzat hartu behar dira —76. azpiatalean sartuak—, eta kontu horretan kontabilizatu behar dira.

5. adibidea

100.000 euroko salgaiak erosi ditugu.

Egin idazpena bi egoera hauetan:

⁷ Erosketa kontabilizatzean, erosketa-balioari kendu behar zaizkio rappel horiek.

- a) Fakturan, goiz ordaintzeagatik, 5.000 €-ko deskontua jaso dugu.
- b) Salgaiak erosi eta handik astebetera, fakturaz kanpoko 5.000 €-ko deskontua jaso dugu hornitzailearengandik, goiz ordaintzeagatik.

Ariketetan, baldin eta goiz ordaintzeagatik deskontua ikusten badugu, beti pentsatu behar dugu ordaintzeagatik izan dela (hau da, ordaindu egin dugula, ez dugula zorretan utzi).

a)

-----X-----		
100.000	Salgai-erosketak (600)	
	Erosketen gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik (765)	5.000
	Kutxa, € (570)	95.000
-----X-----		

b)

-----X-----		
100.000	Salgai-erosketak (600)	
	Hornitzaileak (400)	100.000
-----X-----		

-----X-----		
100.000	Hornitzaileak (400)	
	Kutxa, € (570)	95.000
	Erosketen gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik (765)	5.000
-----X-----		

6. adibidea

7.000 euroko salgaiak erosi ditugu, eta handik gutxira 200 €-ko deskontua lortu dugu eskaerazifragatik, eta 300 €-ko beste deskontu bat goiz ordaintzeagatik.

-----X-----		
7.000	Salgai-erosketak (600)	
	Hornitzaileak (400)	7.000
-----X-----		

-----X-----		
7.000	Hornitzaileak (400)	
	Erosketen gaineko rappelak	200
	Erosketen gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik (765)	300
	Kutxa, € (570)	6.500
-----X-----		

 **Gastuen beste kontu batzuk**

Lehendabizi, jarduera nagusi gisa salerosketa duen enpresa baten kasua aztertu dugu, baina badaude produktuak ekoizten dituzten —hau da, bigarren sektorekoak: industria, eraikuntzaren sektorea eta abar— beste enpresa batzuk ere.

Hauk dira jarduera nagusiarekin zerikusi estua duten gastuen kontuak:

(601) Lehengai-erosketak

(602) Beste zenbait hornikuntza-erosketa

Zer biltzen dute kontu horiek?

▶ **Lehengai-erosketak (601)**

Beste enpresa batzuei erositako lehengaiak —erosketa-prezioan balioztatuak— hartzen ditu kontu honek.

Zenbatekoa, edukia eta zordunketaren unea —hau da, kontu honen mugimendua— *Salgai-erosketak* kontukoaren modukoak dira.

7. adibidea

- a) 100.000 euroko lehengaiak erosi ditugu; handik gutxira, eskaera-zifragatik 10.000 euroko deskontua egin digula jakinarazi digu hornitzaileak.

-----X-----		
100.000	Lehengai-erosketak (602)	
	Hornitzaileak (400)	100.000
-----X-----		

-----X-----		
10.000	Hornitzaileak (400)	
	Erosketen gaineko rappelak (609)	10.000
-----X-----		

b) 100.000 euroko lehengaiak erosi ditugu. Goiz ordaintzeagatik 5.000 euroko deskontua egin digu hornitzaileak. Demagun:

b1. Deskontua fakturan bertan dagoela.

b2. Deskontua ez dagoela fakturan, eta faktura bidali ondoren egin digula hornitzaileak.

b1.

-----X-----		
100.000	Lehengai-erosketak (602)	
	Erosketen gaineko deskontuak, goiz ordaintzeagatik (765)	5.000
	Kutxa, € (570)	95.000
-----X-----		

b2.

-----X-----		
100.000	Lehengai-erosketak (602)	
	Hornitzaileak (400)	100.000
-----X-----		

-----X-----		
100.000	Hornitzaileak (400)	
	Erosketen gaineko deskontuak, goiz ordaintzeagatik (765)	5.000
	Kutxa, € (570)	95.000
-----X-----		

► **Beste zenbait hornikuntza-erosketa (602)**

Beste enpresa batzuei erositako zenbait hornikuntza —erosketa-prezioan balioztatuak— hartzen ditu kontu honek. Kontu hau enpresa komertzialetan eta bigarren sektoreko enpresetan ere aplikatu daiteke, baina ez da industria-enpresetan beren beregi aplikatu beharrekoa.

Hornikuntza diogunean, zertaz ari gara kasu honetan? Bada, hau da kontu honen edukia: erregaiak, ontzikiak, bilgarriak, ordezeko piezak, elementu eta multzo eransgarriak eta abar. Biltegiatze-denboraldia urtebete baino gehiago duten hornikuntzak baino ez dira eraman behar kontu honetara; horrela izan ezean, *Beste zenbait zerbitzu* (629) kontura eraman behar dira.

Halaber, zenbatekoa, edukia eta zordunketaren unea —hau da, kontu honen mugimendua— *Salgai-erosketak* kontukoaren modukoak dira.

8. adibidea

120.000 euroko salgaiak, 20.000 euroko lehengaiak eta 10.000 euroko ontzikiak erosi, eta zorretan utzi ditugu.

-----X-----		
120.000	Salgai-erosketak (600)	
20.000	Lehengai-erosketak (601)	
10.000	Beste zenbait hornikuntza-erosketa (602)	
	Hornitzaileak (400)	150.000
-----X-----		

Erosketa bat kontabilizatzean, munta handiko bi alderdi hauek hartu behar ditugu kontuan (nahiz eta aurreko ariketetan dagoeneko agertu, ez diegu orain arte erreparatu, bestelako helburuak izan ditugu eta):

1. Ordainketa: noiz eta nola egin.

- ✓ **Erosketak egin bezain laster ordaintzea:** eskudirutan baldin bada, *Kutxa*, € (570) kontua erabili behar da; eta txeeen bitartez, gure kontu korrontearen bidez edo banku-transferentziaren bitartez bada, ostera, *Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k*, € (572) —hori guztia, eurotan ordaintzen bada, jakina—.
- ✓ **Erosketa egin eta zorretan uztea.** Halakoetan, zorra fakturan edo merkataritza-efektuetan dokumentaturik egon daiteke. Baina, zer dira zehatz-mehatz hainbeste aldiz agertutako merkataritza-efektu horiek?: kanbio-letrak eta zor-agiriak, besteak beste.⁸

⁸ Hona zein den haien arteko diferentzia: Zor-agiriak letraren antzeko aparteko araudia dauka. Zenbait tokitan, letraren aldaeratzat jotzen dute. Ezberdintzeko xehetasunik nabarmenena hau da: kanbio-letrak igorlearengandik igorriarenganako baldintzarik gabeko agindua dauka, eta zor-agiriak, aldiz, pertsona batengandik pertsona batenganako baldintzarik gabeko agintza (hitzemana).

- ✓ Fakturretan dokumentatutako zorra *Hornitzaileak* (400) kontuan agertzen da.
- ✓ Merkataritzako efektuetan dokumentatutako zorra *Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritzako efektuak* (401) kontuan agertzen da: hornitzaileek igorritako efektuak onartzen ditugun unean bertan abonatu behar da kontua beti. Hau da, onartutako efektu komertzialak biltzen ditu kontu honek.

2. Nori eros diezaiokegu? Hiru aukera ditugu:

- ✓ Gure enpresaz kanpoko hornitzaileei (hornitzaile independenteei)
- ✓ Taldeko enpresei.
- ✓ Enpresa elkartuei.⁹

Taldeko enpresei edo enpresa elkartuei egindako erosketek kontu hauen bitartez islatzen dituzte zorrak:

402. Hornitzaileak, taldeko enpresak.

403. Hornitzaileak, enpresa elkartuak.

4021. Ordaintzeko merkataritza-efektuak, taldeko enpresak.

Ordaintzeko merkataritzako efektuak, enpresa elkartuak garatu gabeko kontua da, baina kontulariaren eskura dago behar den kontua irekitzea, Kontabilitate-plan orokorretik kanpo.

⁹ Zer da taldeko enpresa bat?

Enpresa batek, enpresa talde batean dagoela jo ahal izateko, egoera hauetako batean egon behar du:

- I. Baldin eta enpresa hori beste enpresa batekin uztartuta badago Merkataritza Kodeko 40. artikulua deskribatzen duen loturaren antzeko mendekotasun-erlazio zuzenaren edo zeharkakoaren bidez, hain zuzen ere. Merkataritza Kodeko 40.1. artikulua araberak, hauek dira mendekotasun-motak:
 - i. Enpresa batek beste enpresa baten boto-eskubide gehienak izatea.
 - ii. Enpresa batek beste enpresa baten administrazio-organoko kide gehienak edo kide guztiak izendatzeko edo kargutik kentzeko eskubidea izatea.
- II. Pertsona fisiko batek edo pertsona juridiko batek enpresa hori zuzenean edo zeharka menderatzen badu (hau da, gutxienez enpresaren kapital sozialaren % 50 + % 1 duenean).

Zer da enpresa elkartu bat?

Enpresa bat enpresa elkartua dela esaten da baldin eta baldintza hau betetzen badu:

Taldeko enpresa ez delarik, beste enpresa batek edo beste pertsona fisiko batek eragin nabarmena badu enpresa horretan. Esan dezakegu beste enpresaren edo pertsona fisikoaren eragina nabarmena dela ustezko enpresa elkartu horren kapitalean partaidetza hau badu:

- I. Gutxienez % 3koa, enpresak burtsan kotizatzen duenean.
- II. Gutxienez % 20koa, enpresak burtsan kotizatzen ez duenean.

Ariketak berak esango digu norekiko eragiketa ote den: gure enpresaz kanpoko hornitzaileekikoa, taldeko enpresekiko edo enpresa elkartuekikoa....

Horrekin erlazionaturiko idazpenak egiteko, ezinbestekoa da 17. balioeste-araua aztertzea. *Erosketak eta beste zenbait gastu* dauka izenburua. Arau horrek esango digu zein kontzeptu bilduko diren kudeaketa-kontu bakoitzean. Horretarako, gomendio gisa, irakurri balioeste-arau horri buruz Kontabilitate-plan orokorrean agertzen dena.

Kontuan hartu beharreko oharrak:

1. Ariketak egitean, kontrakoa esan ezean, esangura berbereko terminoak dira *hobari, beherapen eta deskontu*.
2. Ariketak ez badigu esaten non dagoen deskontua —fakturan edo fakturaz kanpo—, fakturan bertan dagoela joko dugu.

 **Salgai-salmentak**

Hauek dira salgai-salmentei lotutako Kontabilitate-plan orokorreko kontuak:

(700) Salgai-salmentak

(708) Salmenta-itzulketak eta antzeko eragiketak

(709) Salmenten gaineko rappelak

(665) Salmenten gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik

(624) Garraioak

Dauden taldeetan daudela ere, lehenengo kontuak bakarrik funtzionatzen du sarrera-kontu gisa, hots, *Salgai-salmentak* kontuak; gainerakoak gastuen kontuak dira, hau da, finantza-deskontua, merkataritzako deskontua edo, beste batzuetan, enpresaren kontura eginiko salmenten gastuak.

Era berean, Kontabilitate-plan orokorreko 18. balioeste-arauan agertzen dena berrikusi behar dugu, bai zenbatekoaren aldetik, bai abonatzeko unearen aldetik.

► **Salgai-salmentak (700)**

Zer biltzen du kontu honek?

(+) Saldutako salgaiak, salmenta-prezioan balioztatuak, eragiketa horiei dagozkien zergak kontuan hartu gabe —hau da, hirugarren pertsoneri jasanarazitako BEZa—¹⁰.

(-) Fakturan sartutako deskontu eta antzekoak —rappelak barne—, goiz ordaintzeagatikoak ez direnak; hau da, merkataritzako deskontuak.

Izakinak atera edo entregatu bezain laster abonatzen da kontu hau.

► **Salmenta-itzulketak eta antzeko eragiketak (708)**

Faktura bidali ondoren kalitate-akatsengatik, entrega-epeak ez betetzeagatik edo antzeko arrazoiengatik egindako deskontu eta antzekoak kontu honetan kontabilizatu behar dira.

9. adibidea

- a) 30.000 euroko salgaiak saldu ditugu kredituz, eta handik hogeitun egunera kalitate-akatsengatik 5.000 euroko beherapena lortu dugu.

	X		
30.000		Bezeroak (430)	
		Salgai-salmentak (700)	30.000
	X		
		Salmenta-itzulketak eta antzeko eragiketak (708)	
5.000			
		Bezeroak (430)	5.000
	X		

¹⁰ Salmentei dagozkien gastuak, enpresaren konturako garraioa barne, 6. taldeko kontuetan kontabilizatu behar dira —gastu bakoitza dagokion gastuen kontuan kontabilizatu behar da—.

- b) 60.000 €-ko salgaiak saldu ditugu. Handik gutxira, 1.000 euroko salgaiak itzuli dizkigute bezeroek.

-----X-----		
60.000	Bezeroak (430)	
		Salgai-salmentak (700) 60.000
-----X-----		
-----X-----		
1.000	Salmenta-itzulketak eta antzeko eragiketak (708)	
		Bezeroak (430) 1.000
-----X-----		

► **Salmenten gaineko rappelak (709)**

Eskaeraren zifragatik egindako deskontu eta antzekoak kontu honetan kontabilizatu behar dira, fakturan sartutako rappelak izan ezik. Fakturan sartutako rappelak *Salgai-salmentak* kontuaren zenbatekoari kendu behar zaizkio.

10. adibidea

- a) 100.000 euroko salgaiak saldu ditugu, eta fakturan bertan 2.000 euroko deskontua egin diogu bezeroari hitzartutako eskaeraren zifra lortzeagatik.

Demagun eskudirutan kobratu dugula:

-----X-----		
98.000	Kutxa, € (570)	
		Salgai-salmentak (700) 98.000
-----X-----		

- b) 100.000 €-ko salgaiak kredituz saldu ditugu, eta deskontu bat egin diogu bezeroari eskaera-zifragatik.

Demagun bi aukera hauek daudela:

1. Fakturan bertan: 10.000 €-koa.
2. Fakturaz kanpo: 10.000 €-koa.

1. -----X-----		
90.000	Bezeroak (430)	
		Salgai-salmentak (700) 90.000
-----X-----		
2. -----X-----		
100.000	Bezeroak (430)	
		Salgai-salmentak (700) 100.000
-----X-----		
-----X-----		
10.000	Salmenten gaineko rappelak (709)	
		Bezeroak (430) 10.000
-----X-----		

► **Salmenten gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik (665)**

Goiz ordaintzeagatik enpresak egindako deskontu eta antzekoak (fakturan sartutakoak izan edo ez) finantza-gastutzat hartu behar dira, eta kontu honetan kontabilizatu behar dira.

11. adibidea

- a) 100.000 euroko salgaiak saldu ditugu, eta bezeroari 5.000 euroko deskontua egin diogu fakturan goiz ordaintzeagatik.

-----X-----		
5.000	Salmenten gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik (665)	
95.000	Kutxa, € (570)	
		Salgai-salmentak (700) 100.000
-----X-----		

- b) 100.000 euroko salgaiak saldu ditugu. Faktura bidali ondoren, 5.000 euroko deskontua egin diogu bezeroari kobrantza goiz jasotzeagatik.

-----X-----		
100.000	Bezeroak (430)	
		Salgai-salmentak (700) 100.000
-----X-----		

-----X-----		
5.000	Salmenten gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik (665)	
95.000	Kutxa, € (570)	
		100.000
	Bezeroak (430)	
-----X-----		

Bigarren kasuan, bi idazpenen bitartez (bi idazpenetan) kontabilizatu da eragiketa. Alabaina, gure konturako gastu finantzarioa (66. azpitaldekoa) denez, hura islatzen duen *Salmenten gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik* (665) kontuak agertu behar du.

c) 100.000 euroko salgaiak saldu ditugu. Bezeroari 10.000 €-ko deskontua egin diogu adostutako epea baino lehenago ordaintzeagatik. Demagun bi aukera hauek ditugula:

1. Fakturan egin diogu deskontua.
2. Fakturaz kanpo egin diogu deskontua.

1. -----X-----

90.000	Kutxa, € (570)	
10.000	Salmenten gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik (665)	
		100.000
	Salgai-salmentak (700)	
-----X-----		

2. -----X-----

100.000	Bezeroak (430)	
		100.000
	Salgai-salmentak (700)	
-----X-----		

-----X-----

90.000	Kutxa, € (570)	
10.000	Salmenten gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik (665)	
		100.000
	Bezeroak (430)	
-----X-----		

12. adibidea

7.000 euroko salgaiak saldu ditugu. Gero, 300 euroko deskontua egin diogu bezeroari goiz ordaintzeagatik. Bezeroari bidalitako fakturan bertan 500 euroko rappelak agertzen ziren.

-----X-----		
6.500	Bezeroak (430)	
		Salgai-salmentak (700) 6.500
-----X-----		
-----X-----		
6.200	Kutxa, € (570)	
300	Salmenten gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik (765)	
		Bezeroak (430) 6.500
-----X-----		

► **Garraioak (624)**

Enpresaren konturako salmentei dagozkien gastuak 6. taldeko kontuetan kontabilizatu behar dira, besteak beste, *Garraioak* enpresaren konturako salmenten gaineko garraioak—. Garraio-gastuak eskudirutan edo transferentzia baten bidez ordaintzen badira, 57. azpitaldeko konturen bat abonatu behar da. Era berean, zorretan uzten baldin badira, *Zerbitzu-prestazioagatiko hartzekodunak* (410) kontua erabili behar izaten da.

Garraioez gainera, badaude enpresaren konturako beste gastu batzuk, besteak beste, aseguru-primak, muga-zergak...

13. adibidea

Gure kontura saldutako salgaien gaineko aseguru-prima 1.000 eurokoa izan da; gainera, garraioa 1.000 eurokoa izan da.

-----X-----		
1.000	Aseguru-primak (625)	
1.000	Garraioak (624)	
		Zerbitzu-prestazioagatiko hartzekodunak (410) 2.000 ¹¹
-----X-----		

¹¹ Ariketak ordaindu ez direla esan ezean, ordaindu gabetzat joko ditugu.

 **Sarrerren beste kontu batzuk**

Gastuen kasuan egin genuen bezala, badago ekoizte-enpresak sarrerren alderditik aztertzeke aukera ere. Hauek dira horrelako enpresek egindako eragiketeei lotuta dauden sarrerren kontuak:

- (701) Produktu bukatuen salmentak
- (702) Produktu erdibukatuen salmentak
- (703) Azpiproduktu eta hondarren salmentak
- (704) Bilgarri eta ontziki-salmentak”

▶ **Produktu bukatuen salmentak (701)**

Kontu honek beste enpresa batzuei egindako produktu bukatuen salmentak biltzen ditu, baina beti salmenten prezioan (Kontabilitate-plan orokorraren arabera) balioztatua, ez ekoizte-kostuan balioztatua.

14. adibidea

Kredituz 500.000 euroko produktu bukatuak saldu ditugu.

	X	
500.000 Bezeroak (430)		Produktu bukatuen salmentak (701) 500.000

▶ **Produktu erdibukatuen salmentak (702)**

Aurreko kontuan bezala, kontu honetan beste enpresa batzuei saldutako produktu erdibukatuak biltzen dira, salmenta-prezioan balioztatuta.

Normalean, produktu erdibukatuak ez dira saltzekoak transformazio-prozesua burutu arte, baina bali-teke enpresak —kasu gutxitan, ez-ohiko egoeretan—, irtenbide modura edo, haiek saltzea.

▶ **Azpiproduktu eta hondarren salmentak (703)**

Kontu honek beste enpresa batzuei egindako azpiproduktu eta hondakinen salmentak jasotzen ditu, salmenten prezioan balioztatuta.

► **Bilgarri- eta ontziki-salmentak (704)**

Kontuaren izenburutik ondoriozta daitekeenez, bilgarri eta ontzikien salmentak jasotzen ditu kontu honek (betiere ez itzultzeko ontziki edo bilgarriak¹²). Geroago ikusiko dugunez, batetik, garraioan erabiltzeko produktuak eta salgaiak babesteko erabiltzen diren estalkiak biltzen ditu kontu honek, eta, bestetik, barnean daramaten produktuarekin batera saltzen diren ontzikiak. Salmenten prezioan balioztaturik daude.

Halaber, zenbatekoa, edukia eta abonatzeko unea —hau da, kontu honen mugimendua— *Salgai-salmentak* kontukoen modukoak dira.

15. adibidea

100.000 euroko salgaiak saldu eta eskudirutan kobratu ditugu; aldi berean, 5.000 euroko ontzikiak —ez itzultzekoak, berreskuraezinak— saldu, eta ordainbide berbera erabilia kobratu ditugu.

	-X-	
105.000 Kutxa, €		
	Salgai-salmentak (700)	100.000
	Bilgarri- eta ontziki-salmentak (704)	5.000
	-X-	

Kontu horiek guztiak (701, 702, 703, 704) izakinak atera edo entregatu bezain laster abonatu behar dira, *Salgai-salmentak* kontuan bezala.

Kontu horietaz aparte, *Zerbitzu-prestazioa (705)* kontua ere aipatu beharrekoa da. Zer biltzen du kontu horrek?

Kontu horretan, enpresaren trafikoko eragiketa diren eta prezio baten truke egindako zerbitzuen prestazioa biltzen da. Beraz, kontu hori zerbitzu-enpresei dagokie nagusiki.

Aurreko kontuen funtzionamendu berdina dauka kontu honek.

Erosketetan eta gastuetan aztertutako arloak, era berean, salmenten eta sarreren kasuetan ere aztertuko ditugu.

¹² Itzultzekoek edo berreskuragarriek beste tratamendu kontable bat dute.

1. Kobratzea. Noiz eta nola jaso:

- ✓ Salmentak egin bezain laster kobratu: eskudirutan baldin bada, *Kutxa*, € kontua erabili behar da, eta txeeen bitartez edo banku-transferentziaren bitartez bada, ostera, *Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k*, € kontua.
- ✓ Salmentak egin eta zorretan utzi. Halakoetan, zorra fakturan edo merkataritza-efektuetan dokumentaturik egon daiteke. Hauek dira kasuan kasuko kontuak:
 - Fakturretan dokumentatutako zorra *Bezeroak* (430) kontuan agertzen da.
 - Merkataritza-efektuetan dokumentatutako zorra *Bezeroak, kobratzeko merkataritzako efektuak* (431) kontuan agertzen da. bezeroek igorri dizkiegun efektuak onartzen dituzten unean zordundu behar da beti kontua. Kontu honen azpikontuek ezberdin egiten dute zer efektu mota erabiltzen ari garen eta zer egoeratan dauden: hau da, zorroan ote dauden, deskontaturik ote dauden, kobrantza-kudeaketan edo ordaindu gabe ote dauden... (Ikus 4310, 4311, 4312 eta 4315. azpikontuak).

2. Nori sal diezaiekegu? Hiru kasu izan ditzakegu:

- ✓ Gure enpresaz kanpoko bezeroei
- ✓ Taldeko enpresei
- ✓ Enpresa elkartuei

(Ez dugu errepikatuko zein den aukera bakoitza, 8. oin-oharrearaz azaldutakoa berdin-berdin aplikatzen baita atal honetan.)

Hauek dira taldeko enpresei eta enpresa elkartuei dagozkien kontuak:

Bezeroak, taldeko enpresak

Kobratzeko merkataritza-efektuak, taldeko enpresak

Bezeroak, enpresa elkartuak

Kobratzeko merkataritzako efektuak, enpresa elkartuak garatu gabeko azpikontua da, baina kontularien beharren arabera ireki daiteke.

Orain arte ikasitakoa praktikan jartzeko, zenbait adibide ekarriko ditugu, argigarriak izango direlakoan:

► 1. ariketa

1. 10.000 €-ko salgaiak erosi ditugu, kredituz.
2. Aurreko erosketari 500 €-ko garraio-gastuak dagozkio. Hornitzaileari eskura ordaindu diogu.
3. Kalitate-akatsak direla eta, 1. puntuko hornitzaileari salgaien erdiak itzuli dizkiogu.
4. Salgaiak erosi ditugu, 120.000 €-an, hemendik berrogei egunera ordaintzekotan; fakturan, 10.000 €-ko deskontua egin digute promozioagatik.
5. Kontabilizatu aurreko kasu bera, baina demagun deskontua, promozioagatik izan beharrean, goiz ordaintzeagatik izan dela.
6. Aurreko hornitzaileak 10.000 €-ko deskontua egin digu eskaera-zifragatik, eta ohar baten bidez jakinarazi digu.
7. Jasotako faktura ordaindu dugu guk, 300.000 €-koa, baina hornitzaileak % 2ko deskontua egin digu.
8. 150.000 €-ko salgaiak saldu ditugu, hemendik hogeita hamar egunera kobratzekotan.
9. Aurreko bezeroari, salgaiak entregatzeko epea ez gordetzeagatik, % 10eko deskontua egin diogu fakturaren zenbatekoaren gainean.
10. Kredituz saldu ditugu salgai batzuk, 420.000 €-an. Kobratzeko epea 30 egunekoa da, eta 20.000 €-ko rappel-deskontua sartu dugu fakturan.
11. Aurreko kasu bera, baina, oraingo honetan, goiz ordaintzeagatik egin diogu deskontua bezeroari.
12. 30.000 €-ko deskontu-oharra bidali diogu bezeroari, iaz eskaera-zifra handia lortzegatik.
13. Gurekin 300.000 €-ko zorra izan zuen bezero batek epemuga heldu baino lehen ordaindu digu. Hori dela eta, % 10eko deskontua egin diogu.
14. Egin erregularizazio-idazpena.

Ebazpena:

1.	-----X-----	
10.000	Salgai-erosketak (600)	
	Hornitzaileak (400)	10.000
	-----X-----	
2.	-----X-----	
500	Salgai-erosketak (600)	
	Kutxa, € (570)	500
	-----X-----	

3. -----X-----

5.000	Hornitzaileak (400)		
		Erosketa-itzulketak eta antzeko eragiketak (608)	5.000

-----X-----

4. Deskontu komertziala da; beraz, fakturan dagoenez, erosketaren zenbatekoari kendu behar zaio delako deskontua.

-----X-----

110.000	Salgai-erosketak (600)		
		Hornitzaileak (400)	110.000

-----X-----

5. Kasu honetan, sarrera finantzarioa da deskontua; beraz, fakturan sartu nahiz ez sartu, beti agertu behar du dagokion kontuan; hau da, *Erosketen gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik (765)* kontuan.

-----X-----

120.000	Salgai-erosketak (600)		
		Kutxa, € (570)	110.000
		Erosketen gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik (765)	10.000

-----X-----

6. -----X-----

10.000	Hornitzaileak (400)		
		Erosketen gaineko rappelak (609)	10.000

-----X-----

7. -----X-----

300.000	Hornitzaileak (400)		
		Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)	294.000
		Erosketen gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik (765)	6.000

-----X-----

8. -----x-----
 150.000 Bezeroak (430)
 Salgai-salmentak (700) 150.000
 -----x-----

9. -----x-----
 15.000 Salmenta-itzulketak eta antzeko
 eragiketak (708)
 Bezeroak (430) 15.000
 -----x-----

10. -----x-----
 400.000 Bezeroak (430)
 Salgai-salmentak (700) 400.000
 -----x-----

11. Bezeroari goiz ordaintzeagatik egin badiogu deskontua, demagun ordainketa jaso dugulako izan dela.

-----x-----
 20.000 Salmenten gaineko deskontua,
 goiz ordaintzeagatik (665)
 400.000 Banku eta Kreditu Erakundeak
 ageriko k/k, € (572)
 Salgai-salmentak (700) 420.000
 -----x-----

12. -----x-----
 30.000 Salmenten gaineko rappelak (709)
 Bezeroak (430) 30.000
 -----x-----

13. Ez dakigu eskudirutan edo bankuaren bidez jaso dugun dirua. Demagun transferentzia baten bitartez jaso dugula.

-----x-----
 30.000 Salmenten gaineko deskontua,
 goiz ordaintzeagatik (665)
 270.000 Banku eta Kreditu Erakundeak
 ageriko k/k, € (572)
 Bezeroak (430) 300.000
 -----x-----

14. Erregularizazio-idazpena:

-----X-----			
335.500	Galdu-irabaziak (129)	Salgai-erosketak (600)	240.500
		Salmenta-itzulketak eta antzeko eragiketak (708)	15.000
		Salmenten gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik (665)	50.000
		Salmenten gaineko rappelak (709)	30.000
-----X-----			
-----X-----			
5.000	Erosketa-itzulketak eta antzeko eragiketak (608)		
16.000	Erosketen gaineko deskontuak, goiz ordaintzeagatik (765)		
10.000	Erosketen gaineko rappelak (609)		
420.000	Salgai-salmentak (700)		
		Galdu-irabaziak (129)	451.000
-----X-----			

► **2. ariketa**

1. 50.000 euroko salgaiak erosi ditugu. Fakturaren edukia ez dugu onartu.
2. Hornitzailearekin akordio batera heldu gara, aurreko izakin sorta 40.000 €-an balioztatzeko.
3. Kanbio-letrak (merkataritza-efektuak) onartu dizkiogu hornitzaileari.
4. Merkataritza-efektu horien epemuga helduta, hau xedatu dugu hornitzailearekin: bezeroen gaineko gure aldeko merkataritza-efektuak eskualdatzea izatea ordainbidea.
5. 100.000 €-ko salgaiak erosi ditugu. Ez dugu faktura onetsi.
6. Ez gara bat etorri hornitzailearekin; beraz, bertan behera utzi dugu erosketa.
7. Taldeko enpresa bati 300.000 €-ko salgaiak erosi dizkiogu.
8. Erosleari igorpen bat bidali diogu, zorraren zenbatekoko, eta onartu egin du.
9. Gure talde finantzarioko enpresa bati salgai batzuk erosi dizkiogu, 500.000 €-an.
10. Ordainbide gisa, 7. salmentan bezeroengandik jasotako merkataritza-efektuak endosatu dizkiogu hornitzaileari. Beste merkataritza-efektu bat onartu dugu, aldearen baliokoa.

11. 200.000 €-ko salgaiak saldu ditugu, eta eskura ordaindu digute.
12. 2.000 \$-eko salgaiak saldu ditugu, eta berriro ere eskudirutan ordaindu digute (kanbio-tasa: 1 US \$ = 0,84003 €, eta 1 € = 1,19044 US \$; gogoan izan kanbio-tasa aldatu egiten dela egun batetik bestera).
13. 11. puntuko eta 12. puntuko kobrantzak k/k-an sartu ditugu.
14. 210.000 €-ko salgaiak erosi ditugu.
15. Hornitzaileak 10.000 €-ko beherapena egin digu.
16. Enpresak zorraren zenbatekoko letra bat onartu du bere kontura.
17. Kanbio-letraren epemuga betetzean hau ordaindu dugu: batetik, 50.000 €; bestetik, 100.000 €-ko balioko \$-ak; eta, gainerako zenbatekoa ordaintzeko, beste letra bat onartu dugu.
18. 100.000 €-ko salgaiak erosi ditugu.
19. Aurreko puntuko salgaien zenbatekoa ordaintzeaz gainera, 200.000 € eman dizkiogu hornitzaileari etorkizuneko horniduren kontura.
20. Hornitzaileak salgai batzuk igorri dizkigu, 500.000 €-an balioztatuak.
21. Hornitzaileak igorpen bat bidali digu, enpresaren zorraren baliokoa.
22. Efektuaren epemuga heltzean, 100.000 € ordaindu ditugu, eta, horrez gainera, aldearen balioko beste efektu bat onartu dugu.
23. 100.000 €-ko salgaiak erosi ditugu, baina oraindik ez dugu faktura jaso.
24. Faktura jaso, eta, egiaztatu ondoren, onartu egin dugu.
25. Hornitzaileak 10.000 €-ko zordunketa egin digu, 23. puntuko erosketagatiko gure konturako gastuak direla eta.
26. Hornitzaileak 20.000 €-ko deskontu komertziala egin digu.
27. 190.000 € ordaindu dizkiogu hornitzaileari, eta datorren erosketarako aurrerakina izango balitz bezala jo dugu aldea.
28. 50.000 €-ko bilgarriak erosi ditugu —berreskuraezinak—.
29. Ontziki berreskuraezin batzuk erosi ditugu, 100.000 €-an balioztatuak.
30. Hornitzaileekiko zorra ordaindu dugu.
31. 200.000 €-ko produktu bukatuak saldu ditugu. Gainera, 10.000 euroko zordunketa egin diogu bezeroari bidalitako ez-itzultzeko bilgarrien kontura.
32. Bezeroari zenbait letra igorri dizkiogu, kitatu gabeko zorren zenbatekoaren baliokoak, eta onartu egin ditu.
33. Efektuen epemuga heltzean, eskudirutan kobratu dugu.

34. 300.000 €-ko salgaiak erosi ditugu. Fakturan bertan, 20.000 euroko bilgarriak eta 50.000 euroko ontzikiak agertu dira gure kontura beste zenbait atalen artean.
35. Fakturaren zenbatekoa £-tan ordaindu dugu.
36. 400.000 €-ko lehengaiak erosi ditugu.
37. Gure biltegirako erregaiak erosi ditugu, 50.000 €-an. Fakturaren zenbatekoaren balioko efektua onartu dugu.
38. Lehengaiak eta erregaiak erosteagatik genuen zorra ordaindu dugu.

Ebazpena

1.	-----X-----		
50.000	Salgai-erosketak (600)		
		Hornitzaileak, oraindik hartu edo formalizatu gabeko fakturak (4009) ¹³	50.000
		-----X-----	
2.	-----X-----		
50.000	Hornitzaileak, oraindik hartu edo formalizatu gabeko fakturak (4009)		
		Erosketa-itzulketak eta antzeko eragiketak (608)	10.000
		Hornitzaileak (400)	40.000
		-----X-----	
3.	-----X-----		
40.000	Hornitzaileak (400)		
		Hornitzaileak, kobratzeko merkataritzako efektuak (401)	40.000
		-----X-----	
4.	-----X-----		
40.000	Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritzako efektuak (401)		
		Bezeroak, kobratzeko merkataritzako efektuak (431)	40.000
		-----X-----	

¹³ Azpikontu honek formalizatu gabeko erosketak biltzen ditu. Hau da, erosketa gauzatu da, baina faktura oraindik ez da ontzat eman (dela ez hartzeagatik, dela ez formalizatzeagatik).

5.	-----x-----		
100.000	Salgai-erosketak (600)	Hornitzaileak, oraindik hartu edo formalizatu gabeko fakturak (4002)	100.000
	-----x-----		
6.	-----x-----		
100.000	Hornitzaileak, oraindik hartu edo formalizatu gabeko fakturak (4002)	Erosketa-itzulketak eta antzeko eragiketak (608)	100.000
	-----x-----		
7.	-----x-----		
300.000	Bezeroak, taldeko enpresak (4320)	Salgai-salmentak (700)	300.000
	-----x-----		
8.	-----x-----		
300.000	Kobratzeko merkataritzako efektuak taldeko enpresak (4321)	Bezeroak, taldeko enpresak (4320)	300.000
	-----x-----		
9.	-----x-----		
500.000	Salgai-erosketak (600)	Hornitzaileak, taldeko enpresak (402)	500.000
	-----x-----		
10.	-----x-----		
500.000	Hornitzaileak, taldeko enpresak (402)	Ordaintzeko merkataritzako – efektuak, taldeko enpresak (4021)	200.000
		Kobratzeko merkataritzako – efektuak, taldeko enpresak (4321)	300.000
	-----x-----		

11.	-----x-----		
200.000	Kutxa, € (570)		
		Salgai-salmentak (700)	200.000
	-----x-----		
12.	-----x-----		
1680	Kutxa, euroaz bestelako dirua (571) (0.84003*2000)		
		Salgai-salmentak (700)	1.680
	-----x-----		
13.	-----x-----		
200.000	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)		
1.680	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, euroaz bestelako dirua (573)		
		Kutxa, € (570)	200.000
		Kutxa, euroaz bestelako dirua (571)	1.680
	-----x-----		
14.	-----x-----		
210.000	Salgai-erosketak (600)		
		Hornitzaileak (400)	210.000
	-----x-----		
15.	-----x-----		
	Demagun deskontua komertziala dela:		
10.000	Hornitzaileak (400)		
		Erosketen gaineko rappelak (609)	10.000
	-----x-----		
16.	-----x-----		
200.000	Hornitzaileak (400)		
		Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritzako efektuak (401)	200.000
	-----x-----		

17.	-----X-----		
200.000	Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritzako efektuak (401)		
		Kutxa, € (570)	50.000
		Kutxa, euroaz bestelako... (571)	100.000
		Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritzako efektuak (401)	50.000
	-----X-----		
18.	-----X-----		
100.000	Salgai-erosketak (600)		
		Hornitzaileak (400)	100.000
	-----X-----		
19.	-----X-----		
100.000	Hornitzaileak (400)		
200.000	Aurrerakinak hornitzaileei (407) ¹⁴		
		Kutxa, € (570)	300.000
	-----X-----		
20.	-----X-----		
500.000	Salgai-erosketak (600)		
		Hornitzaileak (400)	300.000
		Aurrerakinak hornitzaileei (407) ¹⁵	200.000
	-----X-----		
21.	-----X-----		
300.000	Hornitzaileak (400)		
		Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritzako efektuak (401)	300.000
	-----X-----		

¹⁴ (407) Aurrerakinak hornitzaileei: hornitzaileei egindako ordainketak biltzen dira kontu honetan, etorkizuneko horniduren konturakoak eta gehienetan dirutan gauzatutakoak. Ezin daiteke inoiz aurrerakin bat zorretan utzi; beraz, 57. azpitaldeko konturen bat abonatu da. Aktiboko kontu bat da.

¹⁵ Demagun aurreko puntuko aurrerakina erosketara honetan egotzi dela.

22.	-----	X	-----	
300.000	Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritzako efektuak (401)			
			Kutxa, € (570)	100.000
			Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritzako efektuak (401)	200.000
	-----	X	-----	
23.	-----	X	-----	
100.000	Salgai-erosketak (600)			
			Hornitzaileak oraindik hartu edo formalizatu gabeko fakturak (4002)	100.000
	-----	X	-----	
24.	-----	X	-----	
100.000	Hornitzaileak oraindik hartu edo formalizatu gabeko fakturak (4002)			
			Hornitzaileak (400)	100.000
	-----	X	-----	
25.	-----	X	-----	
10.000	Salgai-erosketak (600)			
			Hornitzaileak (400)	10.000
	-----	X	-----	
26.	-----	X	-----	
20.000	Hornitzaileak (400)			
			Erosketen gaineko rappelak (609)	20.000
	-----	X	-----	
27.	-----	X	-----	
90.000	Hornitzaileak (400)			
100.000	Aurrerakinak hornitzaileei (407)			
			Kutxa, € (570)	190.000
	-----	X	-----	
28.	-----	X	-----	
50.000	Beste zenbait hornikuntza-erosketa (602)			
			Hornitzaileak (400)	50.000
	-----	X	-----	

29.	-----	X	-----	
100.000	Beste zenbait hornikuntza- erosketa (602)			
			Hornitzaileak (400)	100.000

		X	-----	
30.	-----	X	-----	
150.000	Hornitzaileak (400)			
			Kutxa, € (570)	150.000

		X	-----	
31.	-----	X	-----	
210.000	Bezeroak (430)			
			Salgai-salmentak (700)	200.000
			Bilgarri- eta ontziki-salmentak (704)	10.000

		X	-----	
32.	-----	X	-----	
210.000	Bezeroak, kobratzeko merkataritzako efektuak (431)			
			Bezeroak (430)	210.000

		X	-----	
33.	-----	X	-----	
210.000	Kutxa, € (570)			
			Bezeroak, kobratzeko merkataritzako efektuak (431)	210.000

		X	-----	
34.	-----	X	-----	
300.000	Salgai-erosketak (600)			
50.000	Beste zenbait hornikuntza- erosketa (602)			
			Hornitzaileak (400)	350.000

		X	-----	
35.	-----	X	-----	
350.000	Hornitzaileak (400)			
			Kutxa, euroaz bestelako dirua (571)	350.000

		X	-----	

36.	-----x-----		
400.000	Lehengai-erosketak (601)	Hornitzaileak (400)	400.000
	-----x-----		
37.	-----x-----		
50.000	Beste zenbait hornikuntza- erosketa (602)	Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritzako efektuak (401)	50.000
	-----x-----		
38.	-----x-----		
400.000	Hornitzaileak (400)		
50.000	Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritzako efektuak (401)	Kutxa, € (570)	450.000
	-----x-----		

4.2 Izakinen erregularizazioa

Sarrera

Izakinen erosketak eta izakinen salmentak ikusi ondoren (hau da, haien prozesuak eta mugimenduak aztertu ondoren), hurrengo pausoa 3. taldean agertzen diren izakinen gaien sakontzea da.

Hasi aurretik, gure buruari galde diezaiokegu zein beharri erantzuten dioten talde horretako kontuek. Bada, hona erantzuna: **biltegia balioztatzeari**.

Gastuen kontuak eta salmenten kontuak kontabilizatzen ikasi genuenean, ez genituen kontuan izan biltegiko hasierako izakinak eta biltegiko amaierako izakinak (zein zeuden hasieran biltegian, eta zein amaieran).

Sozietate bat edo enpresa bat eratzeko garaian (hau da, lehenengo ekitaldian), normalean ez da ezer izaten biltegian —bazkideek edo enpresa-jabeek izakinak ekarpen moduan eman ezean kapitalera—. Baina beste ekitaldietan —kontabilizatzen ari garen ekitaldia lehenengoa ez den guztietan—, biltegiko hasierako izakinen zenbatekoarekin hasten gara —aparteko baldintzetan izan ezik—, eta bukaerako izakinen zenbatekoarekin amaitzen dugu.

Hori horrela izanda, bi egoera izan ditzakegu:

- a) **Bukaerako izakinen zenbatekoa hasierakoa baino handiagoa izatea.** Horrek esan nahi du izakinetan gauzatutako inbestitzea egin dugula. Normalean, *inbestitze* terminoa akzioekin, obligazioekin, bonuekin edo ibilgetuarekin lotu pentsatzen dugu, baina ez du zertan hala izan. Hamaika inbestitze mota izan daitezke aktibo finkoan eta aktibo zirkulatzailan —kasu honetan bezala—.

Egoera honetan (bukaerako izakinen zenbatekoa hasierakoa baino handiagoa baldin bada), litekeena da izakinen erosketak izakinen salmentak baino handiagoak izatea, baina ekitaldiaren amaieran —abendua 31n— ezin dugu alde hori galdutzat eman. Gure biltegian etorkizunean izan daitezkeen salmentak —oraindik gauzatu gabekoak— dauzkagu, nola edo hala. Egitate hori islatu egin behar da nolabait, izakinen erregularizazio-idazpenaren bitartez. Horrela, galdurabazien kontzeptuen artean, kasu honetan, sarreraren kontu bat egongo da.

- b) **Hasierako izakinen zenbatekoa bukaerakoa baino handiagoa izatea.** Horrek esan nahi du desinbestimendua egin dugula izakinetan. Aurreko puntuan bezala, kasu honetan aktibo zirkulatzailan gauzatutako desinbestimendua izan dugu.

Berrito, litekeena da izakinen salmentak izakinen erosketak baino handiagoak izatea —badaude, hala ere, zenbait kasu berezi: istripu baten ondorioz izakinak galtzea, salneurri bereziak direla-eta oso prezio baxuetan erostea...; baina horiek salbuespenak baino ez dira—. Egitate hori zeren bitartez islatu behar da? Kasu honetan, salmenten kontu baten bitartez; izakinen erregularizazio-idazpenaren bitartez, hain zuzen ere.

Hau da unerik aproposena ekitaldi guztietako azken egunean —abendua 31n— bete beharreko berdintza azaltzeko —berdintza hori izakin mota guztietarako bete behar da—:

Hasierako izakinak + Erosketak = Bukaerako izakinak + Salmentak
--

- ✓ **Hasierako izakinak:** urtarrilaren 1ean biltegian dauden izakinak.
- ✓ **Erosketak:** ekitaldian zehar egindako izakinen erosketak.
- ✓ **Bukaerako izakinak:** abendua 31n biltegian dauden izakinak.
- ✓ **Salmentak:** ekitaldian zehar egindako izakinen salmentak.

Garapena

Izakin-erregularizazioaren beharra justifikatu ondoren, erregularizazio hori nola egin aztertuko dugu.

Kontabilitateko zeregin hori behar-beharrezkoa da, aktibo zirkulatzailan izakinek ekitaldian eragindako gorabeherak islatzen baititu. Lehenago adierazi dugunez, talde honetako (3. taldeko) kontuak egoera jakin batzuetan erabiltzekoak eta unean unekoak dira.

Zein dira egoera jakin horiek?

- a) Orain arte, enpresa sortu den unean bertan hasi gara kontabilitatea eramaten, hasiera-hasieran. Baina, ezinbestean jokatu behar da horrela? Has gaitzke kontabilitatea eramaten hamargarren urtean, esate baterako? Bai, edozein unetan has gaitzke, baina, hasiera-hasieratik eraman ezean, ekitaldi jakin bateko hasierako izakinak izango ditugu irekiera-idazpenean agertzen diren kontuen artean. Adibidez:

	X	
x_1 Aktiboaren kontuak		Garbiaren eta pasiboaren kontuak x_1

Aktiboaren kontuen artean salgaiak, lehengaiak, bulegoko materiala.... izango ditugu, bakoitza dagokion hasierako saldoarekin.

Liburu nagusira pasatzean, honelako gurutzetak ireki behar dira:

Salgaiak	Lehengaiak	Bulegoko materiala
Hasierako saldoa (x_3) ¹⁶	Hasierako saldoa (x_4)	Hasierako saldoa (x_5)

- b) Ekitaldian zehar, 3. taldeko kontuak ez dira inola ere erabiltzen. Haien mugimenduak 6. taldeko eta 7. taldeko kontuen bidez islatzen dira.
- c) Ekitaldiaren azken egunean —hau da, abenduaren 31n, egoera normaletan—, izakin-erregularizazioaren idazpenari ekingo diogu.

Irekiera-idazpenaren bitartez, hasierako saldoa ematen zaie hasierako izakinei. Baina urteko erosketak, salmentak, itzulketak... direla-eta (biltegiandako mugimenduak), ez dugu ekitaldia amaituko hasierako izakinekin. Beraz, ezabatu egin behar dugu izakin mota bakoitzaren hasierako saldoa, eta horren ordez abenduaren 31ko saldoa jarri —amaierako saldoa—.

¹⁶ Izakinen kontuen zenbatekoa ($x_3, x_4, x_5...$) beste kontu bat da; hurrengo puntu batean ikasiko dugu.

Nola egingo dugu hori? 6. taldeko eta 7. taldeko kontu batzuen bitartez. Beraz, idazpen hauek egin behar dira hasierako izakinak gurutzetan ezabatzeko:

-----xxko abenduaren 31-----		
x_6	Salgai-izakinen aldaketa (610)	
	A salgaiak (300/301)	x_6
-----x-----		

-----xxko abenduaren 31-----		
x_7	Lehengai-izakinen aldaketa (611)	
	A lehengaiak (310/311)	x_7
-----x-----		

-----xxko abenduaren 31-----		
x_8	Beste zenbait hornikuntzaren izakinen aldaketa (612)	
	Elementu eta multzo eransgarriak (320)	x_9
	Erregaiak (321)	x_{10}
	Ordezko piezak (322)	x_{11}
	Hainbat material (325)	x_{12}
	Bilgarriak (326)	x_{13}
	Ontzikiak (327)	x_{14}
	Bulegoko materiala (328)	x_{15}
-----x-----		

Oharra: $x_8 = x_9 + x_{10} + x_{11} + x_{12} + x_{13} + x_{14} + x_{15}$

-----xxko abenduaren 31-----		
x_{16}	Aribideko produktuen izakinen aldaketa (710)	
	Aribideko A produktuak (330/331)	x_{16}
-----x-----		

-----xxko abenduaren 31-----		
x_{17}	Produktu erdibukatuen izakinen aldaketa (711)	
	A produktu erdibukatuak (340/341)	x_{17}
-----x-----		

-----xxko abenduaren 31-----		
x ₁₈	Produktu bukatuen izakinen aldaketa (712)	
	A produktu bukatuak (350/351)	X ₁₈
-----X-----		

-----xxko abenduaren 31-----		
x ₁₉	Azpiproduktu, hondar eta material berreskuratuen izakinen aldaketa (713)	
	A azpiproduktuak (360/361)	X ₂₀
	A hondarrak (365/366)	X ₂₁
	A material berreskuratuen (368/369)	X ₂₂
-----X-----		

Oharra: $x_{19} = x_{20} + x_{21} + x_{22}$

Azaldutako idazpen guztiei esker, izakinen kontu guztiak 0 saldoarekin (zero) geratu dira —hau da, kitatuta—, baina behin-behinean, aldi baterako.

Era berean, hurrengo idazpenei esker, ekitaldiaren amaierako saldoa emango diogu izakinen kontu bakoitzari, 6. taldeko eta 7. taldeko kontu berberak erabiliz. Hau da, kontraidazpena eginez, baina beste saldo batekin —abenduaren 31n izakinen kontu bakoitzak daukanarekin—.

-----xxko abenduaren 31-----		
x ₂₃	A salgaiak (300/301)	
	Salgai-izakinen aldaketa (610)	X ₂₃
-----X-----		

-----xxko abenduaren 31-----		
x ₂₄	A lehengaiak (310/311)	
	Lehengai-izakinen aldaketa (611)	X ₂₄
-----X-----		

-----xxko abenduaren 31-----		
X ₂₅	Elementu eta multzo eransgarriak (320)	
X ₂₆	Erregaiak (321)	
X ₂₇	Ordezko piezak (322)	
X ₂₈	Hainbat material (325)	
X ₂₉	Bilgarriak (326)	
X ₃₀	Ontzikiak (327)	
X ₃₁	Bulegoko materiala (328)	
	Beste zenbait hornikuntzaren izakinen aldaketa (612)	X ₃₂
-----X-----		

Oharra: $X_{25} + X_{26} + X_{27} + X_{28} + X_{29} + X_{30} + X_{31} = X_{32}$

-----xxko abenduaren 31-----		
X ₃₃	Aribideko A produktuak (330/331)	
	Aribideko produktuen izakinen aldaketa (710)	X ₃₃
-----X-----		

-----xxko abenduaren 31-----		
X ₃₄	A produktu erdibukatuak (340/341)	
	Produktu erdibukatuen izakinen aldaketa (711)	X ₃₄
-----X-----		

-----xxko abenduaren 31-----		
X ₃₅	A azpiproduktuak (360/361)	
X ₃₆	A hondarrak (365/366)	
X ₃₇	A material berreskuratuen (368/369)	
	Azpiproduktu, hondar eta material berreskuratuen izakinen aldaketa (713)	X ₃₈
-----X-----		

Oharra: $X_{35} + X_{36} + X_{37} = X_{38}$

Nabaria da bi motatako kontuak erabili ditugula izakinen erregularizazioaren idazpenean: 7. taldekoak eta 6. taldekoak, hain zuzen ere. Sarrerren kontuak eta gastuen kontuak badirudite ere, ez dauka zerikusirik zein taldetan dauden. Kontuaren saldoaren noranzkoa da irizpide erabakitzailea: zorduna baldin bada, gastuen kontua izango da (amaierako izakinen saldoa hasierakoa baino txikiagoa denean) eta, hartzeko duna baldin bada, ostera, guztiz kontrakoa, hots, sarrerren kontua (amaierako izakinen saldoa hasierakoa baino handiagoa denean).

Azalpen gisa, hona hemen zenbait adibide:

► **1. ariketa**

1. Hasierako salgaiak 10.000 €-koak dira.
2. Salgaiak erosi ditugu 10.000 €-an, eta salgai-zifra handia erosteagatik 1.000 €-ko deskontua lortu dugu fakturan bertan. Erosketa kredituz egin dugu.
3. Aurreko puntuko izakinen gaineko garraioa 500 €-koa da, eta gure kontura egin behar dugu. Eskudirutan ordaindu dugu.
4. Gero, kalitatearen baldintzak ez betetzeagatik, 1.000 €-ko deskontua lortu dugu. Horrez gainera, 4.000 euroko sorta itzuli dugu.
5. 20.000 €-ko salgaiak saldu ditugu eskudirutan. Fakturan, goiz ordaintzeagatik deskontua egin digute, % 10ekoa, hain zuzen ere.
6. 2.000 €-ko salgaiak itzuli dizkigute. Onartu egin dugu, eta eskura ordaindu.
7. Izakinen inbentarioa egin ondoren, salgaien bukaerako balioa 8.000 €-koa da.

Ebazpena:

1. Egitate honi ez dagokio inolako idazpenik, informazio-iturri bat baino ez da. Hasierako balantzean agertzen diren ondare-elementuen artean salgaiak daude, 10.000 €-an balioztatuak.
2. Deskontua komertziala denez eta fakturan sartuta dagoenez, erosketaren zenbatekoari kenduko diogu deskontua. Beraz, hau da idazpena:

9.000	Hornitzaileak (400)	9.000
Salgai-erosketak (600)		

3. Erosketen garraioek igorazi egiten dute erosketa-prezioa —erosketekin batera egindako gastu guztiek bezala—, eta kontu berean sartu beharrekoak dira, hau da, *Salgai-erosketak* kontuan:

-----x-----		
500	Salgai-erosketak (600)	
		Hornitzaileak (400) 500
-----x-----		

4. Biak dira kontu berean sartu beharrekoak; beraz, bi atalen batura egingo dugu:

-----x-----		
5.000	Hornitzaileak (400)	
		Erosketen itzulketak eta antzeko eragiketak (608) 5.000
-----x-----		

5. -----x-----

2.000	Salmenten gainera deskontua, goiz ordaintzeagatik (665)	
18.000	Kutxa, € (570)	
		Salgai-salmentak (700) 20.000
-----x-----		

6. -----x-----

2.000	Salmenta-itzulketak eta antzeko eragiketak (708)	
		Kutxa, € (570) 2.000
-----x-----		

7. Izakinen erregularizazio-idazpenak:

-----xxko abenduaren 31-----

10.000	Salgai-izakinen aldaketa (610)	
		Salgaiak (300) 10.000
-----x-----		

8. -----xxko abenduaren 31-----

8.000	Salgaiak (300)	
		Salgai-izakinen aldaketa (610) 8.000
-----x-----		

7. idazpenaren eta 8. idazpenaren bidez, amaierako saldoa eman diogu salgaien kontuari. Kasu hone-
tan, bukaerako saldoa hasierakoa baino txikiagoa da; beraz, *Salgai-izakinen aldaketa* (610) kontuak saldo
zorduna dauka, eta, hortaz, gastuen kontu gisa funtzionatuko du.

Fitxa hauek azaltzen dira liburu nagusian:

Salgaiak (300)	
10.000 (Hasierako saldoa/balioa)	10.000 (izakinen erregularizazio- idazpenari esker hasierako saldoa ezabatzeke, abenduaren 31n)
8.000 (amaierako saldoa izakinen erregularizazio-idazpenari esker)	

Erregularizazio-idazpena:

-----xxko abenduaren 31-----		
15.500	Galdu-irabaziak (129)	
	Salgai-erosketak (600)	9.500
	Salmenten gaineko deskontua, goiz ordaintzeagatik (665)	2.000
	Salmenta-itzulketak eta antzeko eragiketak (708)	2.000
	Salgai-izakinen aldaketa (610)	2.000
	-----X-----	
	-----X-----	
5.000	Erosketa-itzulketak eta antzeko eragiketak (608)	
20.000	Salgai-salmentak (700)	
	Galdu-irabaziak (129)	25.000
	-----X-----	

► 2. ariketa

(ERNE: ez da kontabilitate-egitate batzuen zerrenda kronologikoa. Ariketak aurreko puntuaren erreferentzia egiten ez badu, puntu bakoitza beregaina da, banakako egitatea da berez.)

1. ALFA sozietatearen ondare-balantzean, kontu hauek agertzen dira:

A lehengaiak (310)	300.000
A salgaiak (300)	800.000
Ordezko piezak (322)	100.000
Bulegoko materiala (328)	200.000

Hona ekitaldiaren amaieran zituzten saldoak:

A lehengaiak (310)	500.000
A salgaiak (300)	600.000
Ordezko piezak (322)	50.000
Bulegoko materiala (328)	300.000

- 500.000 euroko salgaiak erosi ditugu, eta zorretan utzi ditugu.
- Efektu bat onartu dugu, aurreko puntuko zorraren zenbatekoaren baliokoa.
- Aurreko puntuko efektua bankuaren bitartez ordaindu dugu.
- Etorkizuneko horniduraren kontura, 500.000 € eman dizkiogu hornitzaileari; eskura ordaindu diogu.
- Aurreko puntuari dagokion hornidura-erosketa egin dugu.
- Beste sozietate batek erosketa hauek egin ditu:

Salgaiak	100.000
Lehengaiak	30.000
Bilgarriak	20.000
Ontzikiak	15.000
Bulegoko materiala	10.000

- 1.000.000 euroko salgaiak erosi ditugu.
- Aurreko sozietateak, jasotako salgaien kalitate eskasa dela-eta, izakinen erdiak itzuli ditu, eta akordio batera heldu da: gainerakoekin geratzea (300.000 €-an balioztatu dira gainerako horiek).

10. Elkarte batek salmenta hauek egin ditu:

Salgaiak	500.000
Produktu bukatuak	900.000
Produktu erdibukatuak	200.000
Hondarrak	50.000
Ontzikiak	80.000

11. 600.000 euroko salgaiak saldu ditugu.

12. Salgaiak hitzartutako epean baino geroago entregatzeagatik, erabaki hau hartu dute bezeroek: erdiak itzultzea, eta 200.000 €-an balioztatutako gainerakoekin geratzea.

13. Ekitaldian zehar eginiko eskaera-zifragatik, 300.000 €-ko deskontua egin diogu bezero bati.

14. 100.000 euroko salgaiak saldu ditugu eskudirutan.

Ebazpena:

1. Biltegian dauzkagun izakinen balioespina da. Datu bat baino ez da, izakinen erregularizazio-idazpena egitean kontuan hartu beharrekoa. Idazpen hori eginez gero, hau izango litzateke emaitza:

-----xxko abenduaren 31-----		
300.000	Lehengai-izakinen aldaketa (611)	
	A lehengaiak (310)	300.000
-----x-----		

-----xxko abenduaren 31-----		
800.000	Salgai-izakinen aldaketa (610)	
	A salgaiak (301)	800.000
-----x-----		

-----xxko abenduaren 31-----		
300.000	Beste zenbait hornikuntzaren izakinen aldaketa (612)	
	Ordezko piezak (322)	100.000
	Bulego-materiala (328)	200.000
-----x-----		

-----xxko abenduaren 31-----
 500.000 A lehengaiak (310)
 Lehengai-izakinen aldaketa (611) 500.000

-----X-----

-----xxko abenduaren 31-----
 600.000 A salgaiak (300)
 Salgai-izakinen aldaketa (610) 600.000

-----X-----

-----xxko abenduaren 31-----
 50.000 Ordezko piezak (322)
 300.000 Bulego-materiala (328)
 Beste zenbait hornikuntzaren
 izakinen aldaketa (612) 350.000

-----X-----

2. -----X-----
 500.000 Salgai-erosketak (600)
 Hornitzaileak (400) 500.000

-----X-----

3. -----X-----
 500.000 Hornitzaileak (400)
 Hornitzaileak, ordaintzeko
 merkataritzako efektuak (401) 500.000

-----X-----

4. -----X-----
 500.000 Hornitzaileak, ordaintzeko
 merkataritzako efektuak (401)
 Banku eta Kreditu Erakundeak
 ageriko k/k, € (572) 500.000

-----X-----

5. -----X-----
 500.000 Aurrerakinak hornitzaileei (407)
 Kutxa, € (570) 500.000

-----X-----

6.	-----X-----		
500.000	Salgai-erosketak (600)		
		Aurrerakinak hornitzaileei (407)	500.000
	-----X-----		
7.	-----X-----		
100.000	Salgai-erosketak (600)		
30.000	Lehengai-erosketak (601)		
	Beste zenbait hornikuntzaren erosketak (602)		
45.000	(20.000 + 15.000 + 10.000)		
		Hornitzaileak ¹⁷ (400)	175.000
	-----X-----		
8.	-----X-----		
1.000.000	Salgai-erosketak (600)		
		Hornitzaileak (400)	1.000.000
	-----X-----		
9.	-----X-----		
700.000	Hornitzaileak (400)		
		Erosketa-itzulketak eta antzeko eragiketak (608)	700.000
	-----X-----		
10.	-----X-----		
1.730.000	Bezeroak (430)		
		Salgai-salmentak (700)	500.000
		Produktu bukatuen salmentak (701)	900.000
		Produktu erdibukatuen salmentak (702)	200.000
		Azpiproduktu eta hondarren salmentak (703)	50.000
		Bilgarri- eta ontziki-salmentak (704)	80.000
	-----X-----		

¹⁷ Ez du esan ordaindu ote duten; beraz, demagun zorretan utzi dutela.

11.	-----x-----		
600.000	Bezeroak (430)	Salgai-salmentak (700)	600.000
	-----x-----		
12.	-----x-----		
400.000	Salmenta-itzulketak eta antzeko eragiketak (708)	Bezeroak (430)	400.000
	-----x-----		
13.	-----x-----		
300.000	Salmenten gaineko rappelak (709)	Bezeroak (430)	300.000
	-----x-----		
14.	-----x-----		
1.000.000	Kutzak, € (570)	Salgai-salmentak (700)	1.000.000
	-----x-----		

4.3 Izakinak balioestea

Arestian proposatutako ariketetan eta azalpenetan, datu finkoa zen hasierako izakinen eta bukaerako izakinen zenbatekoa. Inoiz ez dugu inolako irizpiderik aplikatu haien zenbatekoak kalkulatzeko. Heldu da garaia izakinei balioa emateko irizpide egokiez eztabaidatzeko.

Lehendabizi, Kontabilitate-plan orokorrean agertzen diren irizpideetara joko dugu. Hona zer esaten den Planean: ¹⁸

“Ondasunen erosketa-prezioa edo ekoizte-kostua zein bere aldetik ezin identifika daitekeenean, batez besteko prezio haztatuaren edo kostu haztatuaren metodoa erabili behar da oro har. FIFO, LIFO edo antzeko metodoren bat ere erabil daiteke enpresak bere kudeaketarako egokiagoak direla uste badu”.

¹⁸ Ez dugu gainerako araudia kontuan hartuko, izakinak balioztatzearen inguruan datorrena bakarrik aztertuko dugu.

Paragrafo horretatik zenbait ondorio atera ditzakegu (kontuan hartu lehentasunaren arabera sailkatuko ditugula irizpideak):

- 1) Ondasunen erosketa-prezioa eta ekoizte-kostua zein bere aldetik identifika daitezkeenean, irizpide hori aplikatu beharrekoa da, jakina. Baina kontuan hartzekoa da zein zaila den hori gertatzea: gaur egungo enpresa baten bizitzan biltegian dauden izakinen errotazio-abiaduraren arabera, metodo hori erabilgaitza izaten da, eta zenbaitetan aplikaezina ere bai.
- 2) Aurreko irizpidea aplikatu ezean, batez besteko prezio haztatuaren edo kostu haztatuaren metodoa erabiltzen da oro har.
- 3) FIFO (*first in, first out*), LIFO (*last in, first out*) edo antzeko metodoren bat ere erabil daiteke, enpresak bere kudeaketarako egokiagoak direla uste badu.

Azalpen moduan, esan daiteke erosketa-prezioa edo ekoizte-kostua (hau da, sarrera-prezioa) bakarria baldin bada biltegia balioztatzeak ez duela arazorik sortuko izakinak balioztatzeko orduan. 16. adibidea argigarria gerta daiteke:

16. adibidea

Hamarna €-an balioztatutako 1.000 salgai unitaterekin hasi dugu ekitaldia (biltegian ditugu).

Ekitaldian, salgai-erosketa hauek egin ditugu:

EROSKETA-EGUNA	KANTITATEA	PREZIOA BAKOITZEKO	TOTAL PARTZIALA
Maiatzaren 1a	1.000	10 €	10.000 €
Ekainaren 1a	100	10 €	1.000 €
Abuztuaren 1a	900	10 €	9.000 €

Ekitaldi horri dagozkion salmentak 1.300 unitatekoak dira —salmenta-prezioa ez da inondik inora ere kontuan hartzen biltegiko izakinak balioztatzeko—.

Zenbat izango dira amaierako izakinak? Zenbatean balioztatuta egongo dira?

Mugimendu hauek izan dira biltegian:

<i>Mugimendu mota</i>	<i>Kantitatea</i>	<i>Prezioa</i>	<i>Total partziala</i>	<i>Gure biltegiko izakinak mugimendua gertatu ondoren</i>
Hasierako izakinak	1.000	10	10.000	10.000
Erosketak	2.000	10	20.000	30.000
Salmentak	1.300	10 ¹⁹	13.000	17.000

Ekitaldiaren amaieran, biltegiko izakinak 1.700 unitate izango dira, 10na €-an balioztatuak.

Sarrera-prezio bat baino gehiago dagoenean sortzen da arazoa izakinen balioespenean. Esan beharra dago, Kontabilitate-plan orokorrean agertzen diren irizpidez gainera, badaudela aparteko aipamena merezi duten beste irizpide batzuk ere. Hauek dira:

- ✓ Batez besteko prezio haztatu finkoaren edo kostu haztatu finkoaren metodoa. Kasu honetan, prezio edo kostu hori, erosketa bakoitzean aldakorra izan beharrean –Planak agintzen duen bezala—, finkoa da.
- ✓ FIFO (*highest in, first out*)
- ✓ NIFO (*next in, first out*)
- ✓ Prezio estandarra.

Metodo hauek aplikatzeko, ezinbesteko tresna da *biltegi-fitxalizakinen kontrol-fitxa*. Segituan ikasiko dugu biltegi-fitxa hori zer den eta nola bete, izakinen balioespenaren irizpide bakoitzean oinarrituta.

<i>Gaia:</i>					<i>Balioeste-irizpidea:</i>					
<i>Erreferentzia:</i>										
<i>Hornitzailea:</i>										
<i>Data</i>	<i>Eragiketa mota</i>	<i>Sarrera</i>			<i>Irteera</i>			<i>Biltegiko izakinak</i>		
		<i>Kopurua</i>	<i>Prezioa</i>	<i>Total partziala</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Prezioa</i>	<i>Total partziala</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Prezioa</i>	<i>Total partziala</i>

¹⁹ Irteera balioztatzeko, erosketa-prezioa hartu dugu; kasu honetan, bai erosketa-prezioa bai hasierako izakinen balioztapena zenbateko bereberkoak direnez, ez da inolako arazorik izango, eta orain arte erabili dugun balioa erabili behar da: 10 €.

Biltegi-fitxa honetan —azken joeraren arabera: *izakinen kontrol-fitxa*—, denboraldi jakin batean biltegian gertatutako mugimendu guztiak erregistratzen eta laburbiltzen dira. Mugimendu horiek kronologikoki eta banaka-banaka apuntatzen dira.

Izakinen kontrol-fitxak informazio hau biltzen du:

- ✓ Produktuaren identifikazioa: gaiaren izena eta kasu askotan deskribapena, barneko erabilera-rako erreferentzia —ezinbestekoa da izakinen kontrola informatika-programa baten bitartez eramatekotan—, eta produktua zein hornitzailek entregatu duen —hornitzaile bakarra ez denean edo produktua enpresa barnean ekoizten ez den kasuetan—.
- ✓ Izakinak balioztatzeko erabilitako irizpidea: batez besteko prezio haztatua (BBPP), FIFO, LIFO, HIFO...
- ✓ Data: mugimenduek kronologikoki ordenaturik eta banan-banan bereizirik egon behar dute.
- ✓ Mugimendu motak: hasierako izakinak, erosketak, erosketen itzulketak, erosketaren gaineko gastuak, salmentak, salmenten itzulketak eta antzekoak.
- ✓ Sarrera bakoitzerako eta irteera bakoitzerako zenbat izakin sartu edo irten diren, bakoitzaren prezioa edo balioa, eta sarreraren edo irteeraren kopurua.
- ✓ Bukatzeko, eragiketa horiek guztiak —sarrerak edo irteerak— egin ondoren biltegian daukagun izakinak: sorta bakoitzeko zenbat izakin daukagun, bakoitzaren prezioa edo balioa eta zenbateko partzial totala.

Izakinen kontrol-fitxa hori betetzeko, irizpide jakin bat hartu behar dugu oinarritzat. Horrela, bada, araudiak —Kontabilitate-plan orokorrak, hain zuzen— gomendatzen dituen irizpideak aztertzen hasiko gara. Kontabilitate-plan orokorrak lehentasunez banaka-banaka identifikatzearen irizpidea proposatzen du, baina hain sinplea da, non sartu ere ez garen egingo horretan.²⁰

Aukeratutako irizpidearen arabera, aldatu egiten dira ondorioak. Ez dira, beraz, ausaz aukeratu behar; izan ere, erabaki horrek zedarritzen du zer baliotan balioztatu behar ditugun biltegian gelditzen zaizkigun izakinak (berrienen balioan, zaharrenean edo birjartze-izakinen balioan). Gainera, gogora ekarri behar dugu uniformetasun-printzipioa. Irizpide bat aukeratzen dugunean, irizpide hori ezin da aldatu printzipio hori aukeratzera bultzatu duten kondizioak aldatzen ez diren bitartean.

²⁰ Irizpide honen arabera, izakinak (lehengai sorta bat edo salgai sorta bat) erosi bezain laster egokiarazi behar dizkiegu enpresan ekoiztutako produktu jakin batzuei edo salgai jakin batzuei.

- ✓ **Batez besteko prezio haztatua:** haztapenaren oinarria izakinen kantitatea da, ez izakinen prezioa —haztapena izakinen kopuruan datza—. Kontabilitate-plan orokorrak zehazten ez badu ere, gomendatzen duen batez besteko prezio haztatu hori aldakorra da. Izakinen erosketa bat edo sarrera bat egiten den bakoitzean erosketa-prezioa eta aurreko azken batez besteko prezio haztatua ezberdinak badira, berriro kalkulatu behar izango da.

BBPHa formula honen bitartez kalkulatzen da:

$$\text{BBPP (edo BBPH)} = \frac{q_1 p_1 + q_2 p_2 + q_3 p_3 + \dots + q_n p_n}{q_1 + q_2 + \dots + q_n}$$

q_i = Biltegian dauzkagun izakinen sorta bakoitzaren kopurua

p_i = Izakinen sorta bakoitzari dagokion erosketa-prezioa edo sarrera-prezioa —hasierako izakinen kasuan—.

Ikusten dugunez, izakinen kopuru osoa daukagu izendatzailean.

- ✓ **FIFO.** Ingeleseko akronimo bat da: *first in, first out*. 'Lehena sartzen, lehena irteten' esan nahi du. Irizpide honen arabera, izakinak sartu ahala, ordena kronologikoan aterako dira. Erraz aplikatzekoa da, eta, horren ondorioz, biltegiko izakinak azken sarrera-prezioetan balioztatu behar dira, eta kontsumoak —hau da, irteerak—, ostera, prezio zaharretan edo balio zaharretan. Prezioak —kontsumo-prezioen indizea— etengabe igotzen direnetan, kontsumo horien —lehengaien kasuetan— balioa gutxitu egiten dira.
- ✓ **LIFO.** Ingeleseko akronimoa da hau ere, *last in, first out*. 'Azkena sartzen, lehena irteten' esan nahi du. Kontsumoak azken erosketa-prezioetan balioztatu behar dira, eta biltegiko izakinak, aldiz, prezio zaharretan. FIFO n gertatzen den kontsumoaren balio-gutxitze hura ez da irizpide honetan sortuko, baina esan beharra dago irizpide hau ez datorrela bat logikarekin, ematen baitu izakinek, sartu ahala, ordena kronologiko berean irten beharko dutela.

Adibide gisa, saiatuko gara biltegi-fitxa edo izakinen kontrol-fitxa azaldutako irizpide guztien arabera betetzen. Bide batez, amaierako izakinen balioespena egingo dugu.

17. adibidea

Enpresaren ekitaldia izakin hauekin hasi dugu:

Erosketa-data: 12/21 10 unitate 12 €/u-ko prezioan.

Beraz, urtarilaren 1ean erosketa horri dagozkion izakinak izango ditugu biltegian. Eman dezagun hemen zerrendatzen diren eragiketak egin ditugula ondoren:

Erosketaren data:	01/15	10 unitate	10 €/u-ko prezioan
Erosketaren data:	01/31	20 unitate	15 €/u-ko prezioan
Salmentaren data:	02/10	25 unitate	25 €/u-ko prezioan
Erosketaren data:	03/21	5 unitate	17 €/u-ko prezioan
Salmentaren data:	04/12	4 unitate	26 €/u-ko prezioan
Erosketaren data:	04/24	10 unitate	14 €/u-ko prezioan

Kalkulatu izakinen balioa eta, bide batez, bete izakinen kontrol-fitxa orain arte azaldutako balioeste-sistemak erabiliz (BBPP, FIFO, LIFO).

Ebazpena:

a) Batez besteko prezio haztuaren araberako izakinen kontrol-fitxa eta amaierako izakinen kalkuluak:

Gaia: A					Balioeste-irizpidea: batez besteko prezio haztatua.					
Erreferentzia: XXXX										
Hornitzailea: ez daukagu informaziorik										
Data	Eragiketa mota	Sarrera			Irteera			Biltegiko izakinak		
		Kopurua	Prezioa	Total partziala	Kopurua	Prezioa	Total partziala	Kopurua	Prezioa	Total partziala
01/01	Hasierako izakinak							10	12	120
01/15	Erosketa	10	10	100				20	BBPP ₁ = 11	220
01/31	Erosketa	20	15	300				40	BBPP ₂ = 13	520
02/10	Salmenta				25	13 ²¹	325	15	13	195
03/21	Erosketa	5	17	85				20	BBPP ₃ = 14	280
04/12	Salmenta				4	14	56	16	14	224
04/24	Erosketa	10	14	140				26	BBPP ₄ = 14 ²²	364

²¹ Salmentak balioztatzeko, aurreko batez besteko prezio haztatua hartzen da; salmenta-prezioa ez da inoiz ere kontuan hartzen.

²² Kasu honetan, eragiketa egin badugu ere, ez da beharrezkoa, zeren eta aurreko batez besteko prezioa eta erosketaren prezioa berdinak baitira. Ondorioz, ez da aldatu batez besteko prezio haztatua.

$$BBPP_1 = \frac{10 \cdot 12 + 10 \cdot 10}{10+10} = 11 \text{ €}$$

$$BBPP_2 = \frac{10 \cdot 12 + 10 \cdot 10 + 20 \cdot 15}{10+10+20} = 13 \text{ €}$$

$$BBPP_3 = \frac{15 \cdot 13 + 5 \cdot 17}{15+5} = 14 \text{ €}$$

$$BBPP_4 = \frac{16 \cdot 14 + 10 \cdot 14}{16+10} = 14 \text{ €}$$

Apirilaren 24an, 26 unitate dauzkagu gure biltegian, bakoitza 17 €-an balioztatua, eta, hortaz, 364 €-koa da izakinen inbertsioa.

b) First in, first outaren arabera izakinen kontrol-fitxa eta amaierako izakinen kalkuluak:

Gaia: A		Balioeste-irizpidea: first in, first out (FIFO)								
Erreferentzia: XXXX		Hornitzailea: ez daukagu informaziorik								
Data	Eragiketa mota	Sarrera			Irteera			Biltegiko izakinak		
		Kopurua	Prezioa	Total partziala	Kopurua	Prezioa	Total partziala	Kopurua	Prezioa	Total partziala
01/01	Hasierako izakinak							10	12	120
01/15	Erosketa	10	10	100				10	12	120
								10	10	100
01/31	Erosketa	20	15	300				10	12	120
								10	10	100
								20	15	300
02/10	Salmenta				10	12	120			
					10	10	100	15	15	225
					5	15	75			
03/21	Erosketa	5	17	85				15	15	225
								5	17	85
04/12	Salmenta				4	15	60	11	15	165
								5	17	85
04/24	Erosketa	10	14	140				11	15	165
								5	17	85
								10	14	140

Balioeste-sistema honen arabera, erosketak egin ahala ordena kronologikoan sailkatzen dira, eta salmentak egin bezain laster aterako dira biltegian gordetako izakinik zaharrenei. Beraz, azkenean izakin berrienak gelditzen dira biltegian.

Kasu honetan, amaierako izakinen guztizkoa hau da:

$$11 \cdot 15 + 5 \cdot 17 + 10 \cdot 14 = 390 \text{ €}.$$

c) Last in, first out sistemaren araberako izakinen kontrol-fitxa eta amaierako izakinen kalkuluak:

Gaia: A					Balioeste-irizpidea: last in, first out (LIFO)					
Erreferentzia: XXXX										
Hornitzailea: ez daukagu informaziorik										
Data	Eragiketa mota	Sarrera			Irteera			Biltegiko izakinak		
		Kopurua	Prezioa	Total partziala	Kopurua	Prezioa	Total partziala	Kopurua	Prezioa	Total partziala
01/01	Hasierako izakinak							10	12	120
01/15	Erosketa	10	10	100				10	12	120
								10	10	100
01/31	Erosketa	20	15	300				10	12	120
								10	10	100
								20	15	300
02/10	Salmenta				5	10	50	10	12	120
					20	15	300	5	10	50
03/21	Erosketa	5	17	85				10	12	120
								5	10	50
								5	17	85
04/12	Salmenta				4	17	68	10	12	120
								5	10	50
								1	17	17
04/24	Erosketa	10	14	140				10	12	120
								5	10	50
								1	17	17
								10	14	140

Irizpide honi dagokionez, biltegian dauzkagun izakinak zaharrenak dira: beraz, izakinen birjartze-abiadura motela den heinean, baliteke epe luzera biltegiaren balioestea guztiz zaharkitua geratzea errealitateko prezioaren, birjartze-prezioaren edo merkatu-prezioaren aldean.

Kasu honetan, amaierako izakinen artean lau sorta ditugu. Hau da amaierako izakinen guztizkoa: $10 \cdot 12 + 5 \cdot 10 + 1 \cdot 17 + 10 \cdot 14 = 327 \text{ €}$.

FIFO irizpidearekin konparatuz, txikiagoa da totala. Aurreikusteko modukoa zen: kontuan hartu normalean prezioek, berez igotzeko joera izanik, gorago egingo dutela inflazioa dela-eta.

Ariketa praktiko simple bat ikusi eta gero, ariketa praktiko konplexuago baten bidez sakonduko dugu ikasitakoa, hain zuzen, izakinen erosketen gaineko gastuak eta izakinen itzulketak biltzen dituen ariketa baten bidez.

► 18. ariketa

Urtarrilaren 1ean ez daukagu inolako izakinik gure biltegian. Ekitaldian, hemen deskribatzen diren izakinei lotutako eragiketak egin dira:

- ✓ 01/15ean, B produktuaren 1.000 unitate erosi ditugu 200 €/u-ko prezioan. Gainera, aseguru-prima 10.000 €-koa izan da, eroslearen kontura.
- ✓ 04/30ean, produktu berberaren 400 unitate saldu ditugu.
- ✓ 07/18an, B produktuaren 1.000 unitate erosi ditugu 240 €/u-ko prezioan. Horretaz gainera, eroslearen gaineko garraio-gastuak 10.000 €-koak izan dira.
- ✓ 09/14an, aurreko sortatik 100 unitate itzuli dizkiogu hornitzaileari.
- ✓ 12/17an, B produktuaren 700 unitate saldu ditugu 300 €/u-ko prezioan

Datu horien arabera, kalkula ezazu amaierako izakinen balioa BBPP/BBPH, FIFO eta LIFO irizpideak aplikatuz. Horretarako, bete itzazu izakinen kontrol-fitxaren hutsuneak.

Ebazpena:

a) Batez besteko prezio haztuaren arabera izakinen kontrol-fitxa eta amaierako izakinen kalkuluak:

Gaia: B produktua					Balioeste-irizpidea:					
Erreferentzia: XXXX					Batez besteko prezio haztua					
Hornitzailea: ???										
Data	Eragiketa mota	Sarrera			Irteera			Biltegiako izakinak		
		Kopurua	Prezioa	Total partziala	Kopurua	Prezioa	Total partziala	Kopurua	Prezioa	Total partziala
01/15	Erosketa	1.000	210 ²³	210.000				1.000	210	210.000
04/30	Salmenta				400	210	84.00	600	210	126.000
07/18	Erosketa	1.000	250 ²⁴	250.000				1.600	BBPP ₁ = 235	376.000
09/14	Erosketen itzulketa				100	235	23.50	1.500	235	352.500
12/17	Salmenta				700	235	164.500	800	235	188.000

²³ Erosketa-prezioari zenbatekoa emateko, aintzat hartu behar ditugu erosketaren gainean eragina duten bi gastu mota: hots, prezioa eta hainbat produktutan dibertsifikatutako aseguru-prima.

²⁴ Erosketa-prezioa kalkulatzeko, kontuan hartu behar ditugu bai bakoitzaren prezioa bai hainbat produktutan dibertsifikatutako garraio-gastuak.

$$\text{Lehenengo erosketari dagokion prezioa} = \frac{1.000 \cdot 200 + 10.000}{1.000} \text{ edo: } 200 + \frac{10.000}{1.000} = 210 \text{ €}$$

$$\text{Bigarren erosketari dagokion prezioa} = \frac{1.000 \cdot 240 + 10.000}{1.000} \text{ edo } 240 + \frac{10.000}{1.000} = 250 \text{ €}$$

$$\text{BBPP}_1 = \frac{600 \cdot 210 + 1.000 \cdot 250}{1.600} = 235 \text{ €}$$

b) First in, first out sistemaren arabeko izakinen kontrol-fitxa eta amaierako izakinen kalkuluak:

Gaia: B produktua					Balioeste-irizpidea:					
Erreferentzia: XXX					First in, first out					
Hornitzailea: ???										
Data	Eragiketa mota	Sarrera			Irteera			Biltegiko izakinak		
		Kopurua	Prezioa	Total partziala	Kopurua	Prezioa	Total partziala	Kopurua	Prezioa	Total partziala
01/15	Erosketa	1.000	210	210.000				1.000	210	210.000
04/30	Salmenta				400	210	84.000	600	210	126.000
07/18	Erosketa	1.000	250	250.000				600	210	126.000
								1.000	250	250.000
09/14	Eroskeen itzulketa				100	250	25.000	600	210	126.000
								900	250	225.000
12/17	Salmenta				600	210	126.000	800	250	200.000
					100	250	25.000			

c) Last in, first out sistemaren arabeko izakinen kontrol-fitxa eta amaierako izakinen kalkuluak:

Gaia: B produktua					Balioeste-irizpidea:					
Erreferentzia: XXX					Last in, first out					
Hornitzailea: ???										
Data	Eragiketa mota	Sarrera			Irteera			Biltegiko izakinak		
		Kopurua	Prezioa	Total partziala	Kopurua	Prezioa	Total partziala	Kopurua	Prezioa	Total partziala
01/15	Erosketa	1.000	210	210.000				1.000	210	210.000
04/30	Salmenta				400	210	84.000	600	210	126.000
07/18	Erosketa	1.000	250	250.000				600	210	126.000
								1.000	250	250.000
09/14	Erosketen itzulketa				100	250	25.000	600	210	126.000
								900	250	225.000
12/17	Salmenta				700	250	175.000	600	210	126.000
								200	250	50.000

Irizpide guztien arabera, amaierako izakinen kopurua berdina da (800 unitate, hain zuzen ere), baina haien balioestea ez da berbera: BBPParen arabera, 188.000 eurokoa da; FIFOaren arabera, 200.000 eurokoa; eta LIFOaren arabera, 176.000 eurokoa. Zenbateko horietako bat —kontalariak gustukoen duen irizpidearen arabera— izango da izakinen erregularizazio-idazpenean agertu beharreko amaierako izakinen balioa. Behin irizpide bat aukeratuz gero, behin betikoa izango da irizpide hori aukeratzera bultzatu zuten kondizioak aldatu ezean.

Kontabilitate-plan orokorrak onartzen dituen irizpideez aparte, beste irizpide batzuk ere bereiz daitezke. Hona hemen haietako batzuk:

- ✓ **Batez besteko kostu edo prezio simplea:** prezio hau kalkulatzeko, kontuan hartu behar ditugu denboraldi batean sortutako sarrera-prezio guztiak. Denak batu, eta batura hori sarrera-prezioen kopuruaz zatitzen da. Labur esanda: izakinen prezioa ez da haztatzen izakinen kopuruarekiko; horrexegatik deritza *simple*.
- ✓ **HIFO.** Ingeleseko beste akronimo bat: *highest in, first out*. 'Preziorik altuena duena, lehena da irteten' esan nahi du. Praktikan jartzeko orduan, esan behar dugu LIFO eta FIFO direlakoan antzekoa dela. Izakin sortak zerrendatu, eta preziorik altuenak dituztenak ateratzen dira lehentasunez.
- ✓ **NIFO.** Ingelesean dauka jatorria honek ere: *next in, first out*. Akronimoaren esanahia 'hurrengoa sartzen, lehena irteten' da (sartuko den hurrengo sortak markatzen du irteten denaren prezioa). Irizpide hau ez da erraz aplikatzen, irteera bati balioa emateko, birjartze-prezioa —ariketak esango digu— jakin behar baitugu.
- ✓ **Prezio estandarra:** irizpide honen arabera, izakinen prezioa, aurrekoen aldean, askoz ere era landuagoan kalkulatzen da; esan dezakegu zientifikoki kalkulatzen dela. Oraingoan ere ariketak emango digu.

▶ 19. ariketa

17. ariketan agertzen diren datuekin, kalkulatu amaierako izakinen balioa, eta, bide batez, bete izakinen kontrol-fitxa HIFO eta NIFO balioeste-sistemak erabiliz.

Enpresaren ekitaldia izakin hauekin hasi dugu:

Erosketa-data: 12/21 10 unitate 12 €/u-ko prezioan.

Beraz, urtarilaren 1ean erosketa horri dagozkion izakinak izango ditugu biltegian. Eman dezagun hemen zerrendatzen diren eragiketak egin ditugula ondoren —ekitaldian zehar—:

Erosketaren data:	01/15	10 unitate	10 €/u-ko prezioan
Erosketaren data:	01/31	20 unitate	15 €/u-ko prezioan
Salmentaren data:	02/10	25 unitate	25 €/u-ko presiona
Erosketaren data:	03/21	5 unitate	17 €/u-ko prezioan
Salmentaren data:	04/12	4 unitate	26 €/u-ko prezioan
Erosketaren data:	04/24	10 unitate	14 €/u-ko prezioan

Gaia: A					Balioeste-irizpidea:					
Erreferentzia: XXX					HIFO					
Hornitzailea: Ez daukagu informaziorik					HIFO					
Data	Eragiketa mota	Sarrera			Irteera			Biltegiko izakinak		
		Kopurua	Prezioa	Total partziala	Kopurua	Prezioa	Total partziala	Kopurua	Prezioa	Total partziala
1/1	Hasierako izakinak							10	12	120
1/15	Erosketa	10	10	100				10	12	120
								10	10	100
1/31	Erosketa	20	15	300				20	15	300
2/10	Salmenta				20 ²⁵	15	300	5	12	60
					5	12	60	10	10	100
3/21	Erosketa	5	17	85				5	12	60
								10	10	100
								5	17	85
4/15	Salmenta				4 ²⁶	17	68	5	12	60
								10	10	100
								1	17	17
4/24	Erosketa	10	14	140				5	12	60
								10	10	100
								1	17	17
								10	14	140

Amaierako izakinen balioa = $5 \cdot 12 + 10 \cdot 10 + 1 \cdot 17 + 10 \cdot 14 = 317 \text{ €}$.

²⁵ 25 unitate saldu ditugu; haiek balioztatzeko, preziorik altuenak dituztenak aterako ditugu: hau da, lehenengo eta behin, 15 €-ko preziokoak; ondoren, 12 €-ko preziokoak, 25 unitate osatu arte.

²⁶ Berriro ere 4 unitate saldu ditugu, eta ditugun izakin guztien preziorik altuenean balioztatu behar ditugu: hau da, 17 €-an.

Gaia: A					Balioeste-irizpidea:					
Erreferentzia: XXX					Next in, first out					
Hornitzailea: ez daukagu informaziorik										
Data	Eragiketa mota	Sarrera			Irteera			Biltegiko izakinak		
		Kopurua	Prezioa	Total partziala	Kopurua	Prezioa	Total partziala	Kopurua	Prezioa	Total partziala
1/1	Hasierako izakinak							10	12	120
1/15	Erosketa	10	10	100				10	12	120
								10	10	100
1/31	Erosketa	20	15	300				10	12	120
								10	10	100
								20	15	300
2/10	Salmenta				25	17	425	15	¿??	¿??
3/21	Erosketa	5	17	85				20	¿??	¿??
4/15	Salmenta					14	56	16	¿??	¿??
4/24	Erosketa	10	14	140				26	¿??	¿??

Irizpide honetako irizpide bakarra irteten diren izakinak balioztatzeko modua da, ez digu-eta informaziorik eskaintzen irteera egin eta gero biltegian daukaguna balioztatzeko.

4.4 Merkataritza-efektuak

Hasieran esan dugunez, merkataritza-efektuak, besteak beste, kanbio-letrak eta zor-agiriak (edo ordaindukoak) dira. Guk merkataritza-efektu arautuenean sakonduko dugu gehienbat, hau da, kanbio-letran.

Kanbio-letraren erregimen juridikoa laburbilduko dugu: esan dezakegu kanbio-letra balio-titulua dela. Horren azpian, baldintzarik gabe ordaintzeko agindua dago. Normalean, hiru pertsonak hartzen dute parte kanbio-letran:

- a) **Igorlea:** ordaintzeko agindua emanez dokumentua jaulkitzen duena da; horrez gainera, letra ordainduko dela bermatzen du. Hartzailearen/edukitzailearen agindura eta igorriaren kontura jaulkitzen du kanbio-letra. Normalean, merkataritza-harremanetan, saltzen duen enpresa da igorlea.
- b) **Igorria:** ordaintzeko agindu hori igorriarengana zuzenduta dago. Letran bertan kanbio-letra onartzen duela adierazten duen unean hartzen du kanbio-agindu hori. Normalean, merkataritza-harremanetan, bezeroa izaten da igorria.
- c) **Hartzailea edo edukitzailea:** kanbio-letra hartzaileari ordaindu behar zaio.

Letra barnean, hainbat deklarazio daude:

- a) **Igorlearen deklarazioa:** igorleak dokumentua jaulkitzearekin batera egindakoa.
- b) **Igorriaren deklarazioa:** igorriak letra ordainduko duela onartzen duenean sortzen da.
- c) **Endosamenduaren deklarazioa:** legezko hartzaileak egin dezakeena, hirugarren pertsona bati eskualdatu nahian.
- d) **Abalaren deklarazioa:** letraz kanpoko pertsona batek efektua ordainduko dela bermatzen duenean sortzen da; beraz, kasu honetan, abalatzten duen pertsona da igorria.

Zer urrats egin behar dira kanbio-letra ondainbide gisa erabili ahal izateko? Bada, hartzaileak edo edukitzaileak, letraren legezko hartzekoduna izanik, letraren epemuga helduta (edo beste edozein datatan, letra *aurkeztean ordaintzekoa* jaulki bada, “ageriko letra” bada), lehenengoz igorriarengana jotzen du letraren kantitatea jasotzekotan; igorriarengandik ordaina jaso ezean, igorlearengana jo dezake. Askotan, hartzailea eta edukitzailea bitartekari finantzarioa izaten da; hau da, bankua edo aurrezki-kutxa. Baliteke igorlea hartzailearekin bat etortzea ere, pertsona berbera izatea hain zuzen.

Kontabilitateari dagokionez, onartutako efektuen aldaera guztiak biltzen dituen kontua *Bezeroak, ordaintzeko merkataritzako efektuak* (431) da. Kontu hori oinarri hartuta garatzen dira ondoren zerrendatzen diren azpikontuak. Azpikontu bakoitzak egoera jakin bateko efektuak biltzen ditu.

- (4310) *Efektu komertzialen zorroa.*
- (4311) *Deskontatutako merkataritzako efektuak.*
- (4312) *Merkataritzako –efektuak kobrantza-gestioan.*
- (4315) *Merkataritzako efektu ordaindugabeak.*

18. adibidea

- a) 100.000 €-ko salgaiak saldu ditugu, kredituz. Hona zer idazpen dagokion eragiketari:

	-----X-----	
100.000	Bezeroak (430)	
	Salgai-salmentak (700)	100.000
	-----X-----	

b) Zorra bezeroek onartutako igorpen-efektuetan gauzatu da:

-----x-----		
100.000	Bezeroak, kobratzeko merkataritzako efektuak (431)	
		Bezeroak (430) 100.000
-----x-----		

Efektu komertzialen zorroa (4310) azpikontua ere erabil daiteke —azpikontuen mailan ibiltzekotan— Bezeroak, kobratzeko merkataritzako efektuak (431) kontua erabili beharrean.

Bezeroak, kobratzeko merkataritzako efektuak (431), Efektu komertzialen zorroa (4310) efektua onartu bezain laster zordunduko dira.

Zer eragiketa egin genitzake onartutako baina kobratu gabeko kanbio-letra batekin?:

- a) Zuzenean kobratzea, besterik gabe
- b) Deskontatzea
- c) Haren kobrantza kudeatzea

Esan beharra dago pasibo zirkulatzailerako kontu paraleloan —*Hornitzaileak, ordaintzeko merkataritzako efektuak (401)*— ez dagoela azpikontuetan bikoizterik, besteak beste ez dakigulako zein den hornitzaileen asmoa edo zer egingo duten guk onartutako efektuekin.

1. aukera: zuzeneko kobrantza

Kasu honetan, gerta liteke igorriak ordaintzea edo ez ordaintzea.

a) Demagun kanbio-letraren zenbatekoa ordaindu duela:

-----x-----		
100.000	Diruzaintza (57)	
		Efektu komertzialen zorroak (4310) 100.000
-----x-----		

b) Demagun ez duela ordaindu kanbio-letraren zenbatekoa:

b1) Aukera honetan, merkataritza-efektu ordaindugabe bihurtzen da merkataritza-efektua bera; beraz, idazpen hau egin behar da:

-----X-----		
100.000	Merkataritzako efektu ordaindugabeak (4315)	
		Efektu komertzialen zorroak (4310) 100.000

b2) Gainera, bezero-saldo hori kobrantza dudagarri bihurtu den neurrian, birkalifikatu egin behar dugu *Kobrantza dudagarriko bezeroak (435)*²⁷ kontua zordunduz honelako idazpenaren bitartez:

-----X-----		
100.000	Kobrantza dudagarriko bezeroak (435)	
		Merkataritza-efektu ordaindugabeak (4315) 100.000

b3) Bezeroarekiko kreditua galdutzat ematen badugu —horrek esan nahi du kaudimengabezia behin betikotzat hartzen dugula—, gastu-kontu batera eramango dugu galera, idazpen honen bidez:

-----X-----		
100.000	Merkataritza-kreditu kobraezinengatiko galerak (650)	
		Merkataritzako efektu ordaindugabeak (4315) 100.000

b4) Bezeroak kanbio-letra berri bat (aurrekoaren zenbateko berekoa gehi eginiko kalteagatik aparteko kantitate jakin bateko balio nominala duena) ordainduko duela hitzematzen badu, efektu berria onartzean idazpen sortuko da:

²⁷ *Kobrantza dudagarriko bezeroak (435)* kontuak bezero-saldoak biltzen ditu, igorpen-efektuetan formalizatutakoak.

-----X-----		
105.000	Efektu komertzialen zorroa (4310)	
	Merkataritzako efektu ordaindugabeak (4315)	100.000
	Beste zenbait sarrera finantzario (769)	5.000
-----X-----		

2. aukera: deskontua

Bi eratan aurki daiteke deskontua: efektuen negoziazio modura eta efektuen deskontu modura. Deskontu komertzialaz ari gara, eta ez finantza-deskontuaz. Efektua negoziatzea edo efektua deskontatzea da merkataritza-efektuak bitartekari finantzario baten esku uztea, haren kobrantza kudea dezan. Eragiketa horietan, bankuak letraren zenbatekoari —balio nominalari— deskontu batzuk egin ondoren (interesak direla-eta, komisioak direla-eta, posta dela-eta...), balio likidua edo balio garbia aurreratzen du enpresaren kontuan.

Eragiketa horien bitartez, bitartekari finantzarioek benetako maileguak ematen dizkiete lagatzaileei, baina inolako arriskurik hartu gabe; izan ere, kontratuetan “bukaera onari baldintzatuta” izeneko klausula bat dago: klausula horren bitartez, efektuaren mugaeguna heltzean, kobrantzarako aurkeztu eta gero, igorriak (erosleak, merkataritza-harremanetan) letra (merkataritza-efektua, kasu orokorrean) ordaintzen ez badu, bankuak efektuaren balio nominala gehi itzultzeagatik kostu batzuk (bitartekotza-lanaren ordainean) berreskuratuko ditu igorlearen kontura.

Kambio-letrak deskontatzeko aukera horri deskontu-lerro deritza banku-negozioan. Banku-produktu horren bitartez, zenbateko jakin batetik beherako letrak negoziatzea daitezke. Muga horri gehieneko kreditu-muga deitzen zaio.

Zer hartzen da kontuan muga hori kalkulatzeko? Banketxeek, behar beste informazio (besteak beste, azken urteetako egoera-balantzeak, galdu-irabazien kontuak, memoriak) eskuratu eta gero, arrisku-analisi bat egiten dute. Informazio hori erabakigarria izaten da, bai deskontu-lerroa onartzeko bai haren zenbatekoa finkatzeko.

Negoziatioaren aukera hori igorlearen likidezia-beharrari aurre egiteko sortzen da. Igorleak, bere aldeko epe laburreko zorroko merkataritza-efektuez baliatuz eskudirua nahi duenean, bitartekari finantzario batengana jo dezake. Bankuak efektuen balio nominalak ken hainbat kontzepturi dagozkien gastuak aurreratuko dizkio.

Gastu motak kontu banatan biltzen dira:

- ✓ Interesak: “Efektu-deskontuagatiko interesak” (664).
- ✓ Komisioak, itzultzeagatiko gastuak, posta, telefonoa: Beste zenbait gastu finantzario (669)

Kontabilitateko prozedura idazpen hauen bidez adierazten da:

Lehendabizi, balio nominal jakin bateko letra negoziatzeagatik, bi idazpen egin behar dira: aurrenak azaltzen du nola aldatu den efektuen egoera; eta bigarrenak, eragiketarako sortutako gastuak, igorlearen aldeko diru-sarrera eta bankuarekiko zorra biltzen ditu:

-----X-----			
	Deskontatutako merkataritzako BN efektuak (4311)	Efektu komertzialen zorroa (4310)	BN
-----X-----			
-----X-----			
	BL/BG Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)		
Interesak	Efektu-deskontuagatiko interesak (664)		
K./P.	Beste zenbait gastu finantzario (669)	Deskontatutako efektuagatiko zorrak (5208)	BN
-----X-----			

BN = balio nominala.

BL/BG = balio likidua, balio garbia —benetako balioa—.

K./P. = Komisioak / posta.

Deskontutako efektuagatiko zorrak kontuak bankuarekin hartutako zorra islatzen du zeharka (normalean, “bukaera onari baldintzatuta” izeneko klausulapean; hau da, igorriak ordaindu ezean, igorleak hartuko du zorra bere gain).

Deskontatutako efektuen epemuga heldu ostean, bi egoera izan daitezke:

- a) Ordaindu du (igorriak).
- b) Ez du ordaindu.

Edozein kasu gertatzen delarik ere, bitartekari finantzarioa behartuta izaten da efektua kobrantzara aurkeztera.

a) Ordainduz gero, idazpen honen bidez kitatzen da bankuarekin izan litekeen zorra:

-----X-----		
BN	Deskontatutako efektuengatikoko zorrak (5208)	
		Deskontatutako merkataritzako efektuak (4311) BN
-----X-----		

b) Ordaindu ezik, bankuak itzuli egiten dio efektua igorleari, bankuko kontuan balio nominaleko gehi itzultzeagatikoko gastuetako zordunketa bat egin ondoren.

-----X-----		
BN	Deskontatutako efektuengatikoko zorrak (5208)	
x_a	Beste zenbait gastu finantzario (669)	
		Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € B.N. + x_a
-----X-----		

Horrez gainera, efektuak egoeraz aldatu dira, ordaindugabe bihurtu direlako:

-----X-----		
BN	Merkataritzako efektu ordaindugabeak (4315)	
		Deskontatutako merkataritzako efektuak (4311) BN
-----X-----		

3. aukera: kobrantza-kudeaketaren efektua (efektu baldintzatua, kobrantzarako efektua).

Aurreko eragiketetan bezala, bitartekari finantzarioek egiten dituzte honelakoak. Baina aurreko eragiketetan, dirua aurreratzen zenez, bankuen parte-hartzea garrantzizkoa zen; kobrantza-kudeatzearen eragiketetan, ostera, bankuen betebeharra bitarteko izatea baino ez da.

Bitartekari finantzarioak efektuak kobrantzara aurkezteko ardura hartzen du, eta, efektuaren epemuga heltzean, igorriarengana joango da zeregin horrekin. Behin kobratuz gero, zenbateko likidoa sartuko du igorlearen kontuan. Zenbateko likidoa kalkulatzeko, balio nominalari eragiketaren gaineko gastuak²⁸ kentzen zaizkio.

Kontabilitateko prozeduraren aldetik, idazpen hauek egin behar dira:

- a) Igorleak bankura jotzen du bere aldeko efektuak kudea diezazkion. Efektua egoeraz aldatzen da, eta idazpen hau dagokio:

-----X-----			
BN	Merkataritzako efektuak kobrantza-gestioan (4312)	Efektu komertzialen zorroa (4310)	BN
-----X-----			

- b1) Efektuaren epemuga heltzean, ordaindu egiten du igorriak:

-----X-----			
BN- X _b	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)		
X _b	Banku-zerbitzuak eta antzekoak (626)	Merkataritzako efektuak kobrantza-gestioan (4312)	BN
-----X-----			

- b2) Efektuaren epemuga heltzean igorriak ordaindu ezean, bankuak ordaindu gabeko efektuak itzuliko dizkio igorleari, eta, horrez gainera, bi komisio mota kobra ditzake bitartekari-zerbitzua dela-eta: itzultzeagatik komisioa eta kobrantzagatik komisioa. Era berean, efektuak egoeraz aldatu dira:

-----X-----			
BN	Merkataritzako efektu ordaindugabeak	Merkataritzako efektuak kobrantza-gestioan	BN
-----X-----			

²⁸ Komisioak, posta, telefonoa... – interesik ez da agertuko inondik inora –.

-----X-----		
Banku-zerbitzuak eta antzekoak x_c (626)		
	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)	x_c
-----X-----		

x_c = Itzultzeagatiko komisioa, kobrantzagatiko komisioa...

19. adibidea

A bezeroari 300.000 €-an balioztatutako salgaiak saldu dizkiogu, eta zorretan utzi ditu. Gero, bere gaineko efektuak onartu ditu bezeroak, fakturaren zenbatekokoak.

Ebazpena:

-----X-----		
300.000 Bezeroak (430)		
	Salgai-salmentak (700)	300.000
-----X-----		

Azpikontuen mailan:

-----X-----		
300.000 Efektu komertzialen zorroa (4310)		
	Bezeroak (430)	300.000
-----X-----		

20. adibidea

B bezeroari bi efektu igorri dizkiogu, bakoitza 50.000 eurokoa. Onartu ondoren, gure banketxearen esku utzi dugu efektuen kobrantza-kudeaketa. Epemuga heldu eta gero, ordaindugabeak suertatu dira biak, eta ondorioz bankuak 4.000 euro kendu digu gure kontura kontu korrontetik. Igorriari ordaintzeko eskatu eta gero, efektuaren balio nominala gehi 5.000 € (izandako gastuak berdintzeko) ordaindu dizkigu banku-transferentzia baten bidez.

Ebazpena:

-----X-----		
100.000	Efektu komertzialen zorroa (4310)	
		Bezeroak (430) 100.000
-----X-----		
-----X-----		
100.000	Merkataritzako –efektuak kobranta-gestioan (4312)	
		Efektu komertzialen zorroa (4310) 100.000
-----X-----		
-----X-----		
100.000	Merkataritzako efektu ordaindugabeak (4315)	
		Merkataritzako –efektuak kobranta-gestioan (4312) 100.000
-----X-----		
-----X-----		
4.000	Banku-zerbitzuak eta antzekoak (626)	
		Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572) 4.000
-----X-----		
-----X-----		
105.000	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, €(572)	
		Merkataritzako efektu ordaindugabeak (4315) 100.000
		Beste finantza-sarrera batzuk (769) 5.000
-----X-----		

21. adibidea

C bezeroari 100.000 euroko efektua igorri diogu. Onartu eta gero, enpresak banku-erakunde batera jo du efektua deskontatu nahian; eragiketa horren ondorioz 1.000 €-ko finantza-gastuak sortu dira. Epemuga heltzean, igorriak ordaindu ez, eta bankuak 1.000 € zordundu ditu protestatze-gastuak direla-eta. Bezeroak beste efektu bat onartu du, ordaindu gabeko balio nominala gehi ordaindu gabe uzteagatik sortutako gastuen zenbatekokoan. Epemuga berria heltzean, letra aurkeztu ondoren ordaindu du.

Ebazpena

-----X-----		
100.000	Efektu komertzialen zorroa (4310)	
		Bezeroak (430) 100.000
-----X-----		
-----X-----		
100.000	Deskontatutako merkataritzako efektuak (4311)	
		Efektu komertzialen zorroa (4310) 100.000
-----X-----		
-----X-----		
99.000	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)	
1.000	Efektu-deskontuagatiko interesak (664)	
		Deskontatutako efektuengatiko zorrak (5208) 100.000
-----X-----		
-----X-----		
100.000	Merkataritzako efektu ordaindugabeak (4315)	
		Deskontatutako merkataritzako efektuak (4311) 100.000
-----X-----		

-----X-----			
100.000	Deskontatutako efektuengatiko zorrak (5208)		
1.000	Beste zenbait gastu finantzario (669)		
		Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, €	101.000
-----X-----			
-----X-----			
101.000	Efektu komertzialen zorroa (4310)		
		Merkataritzako efektu ordainugabeak (4315)	100.000
		Beste zenbait sarrera finantzario (769)	5.000
-----X-----			
-----X-----			
101.000	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)		
		Efektu komertzialen zorroa (4310)	101.000
-----X-----			

22. adibidea

Kontabiliza itzazu efektuen deskontuari eta efektu baldintzatuari dagozkien egitate hauek. Horretarako, KPOean agertzen diren azpikontuak erabili behar dira.

1. XX bezeroari 2.000 €-an balioztatutako salgaiak saldu dizkiogu. Dagokion zorra fakturretan dokumentaturik dago.
2. XX bezeroak fakturaren zenbatekoko efektua onartu digu.
3. Aurreko letra bankura eraman dugu deskontatu nahian, eta bankuak zenbateko likidoa sartu digu gure k/k-an. Balio nominalari 25 €-ko interesak eta 5 €-ko komisioak kendu dizkiote.
4. Mugaeguna heltzean, XX bezeroak efektua ordaindu du.
5. Zorroan geneukan efektu bat negoziatu dugu bankuan. Letraren balio nominala 1.500 €-koa da.
6. Eragiketa horri dagokion zenbateko garbia gure k/k-an jaso dugu. Efektuaren epemuga handik 60 egunera zen, interesa % 10ekoa da, eta komisioa, 15 €-koa.

7. Mugaeguna heldu ondoren, bezeroak ez du efektuaren balio nominala ordaindu, eta ondorioz, itzulita jaso dugu. Gainera, komisioak eta itzultzeagatiko gastuak direla-eta, 12 € ordaindu behar izan dugu.
8. Itzulita jaso dugun letraren orde, akordio batera heldu gara bezeroarekin: beste efektu bat onartzea. Efektu berrian, aurreko balio nominalaz gainera, itzultzeagatiko gastuak gehi tabako-dendan erositako letraren prezioa (2 €-koa) daude.
9. Aurreko efektua bankuaren esku utzi dugu, kobrantza kudea dezan.
10. Epemuga heltzean, bezeroak bankuari ordaindu dio, eta letraren zenbateko likidua jaso dugu gure k/k-an, 2,4 €-ko komisioak kendu ondoren.
11. Zorroan geneukan 4.000 €-ko efektu onartua bankura eraman dugu, kobrantza bankuaren bitartez kudeatzeko.
12. Epemuga heltzean, bezeroak ez dio bankuari ordaindu; ondorioz, bankuak itzuli egin digu, eta % 2ko kobrantza-komisioa eta % 3ko itzultzeagatiko gastuak kobratu dizkigu bankuaren jardueragatik.
13. Kobrantza dudagarrikotzat jo dugu efektu hori, eta, ondorioz, gure aldeko kreditu guztia hornidurarako eraman dugu.
14. Gero, atzeratutako kreditutik 900 € kobratzea lortu dugu, eta gainerakoa galdutzat eman dugu.

Ebazpena

1.	-----X-----	
	2.000 Bezeroak (430)	
	Salgai-salmentak (700)	2.000
	-----X-----	
2.	-----X-----	
	2.000 Efektu komertzialen zorroa (4310)	
	Bezeroak (430)	2.000
	-----X-----	

3.	-----X-----		
	Efektu-deskontuagatiko		
25	interesak (664)		
	Beste zenbait gastu finantzario		
5	(669)		
	Banku eta Kreditu Erakundeak		
1970	ageriko k/k, € (572)		
		Deskontatutako efektuengatiko	
		zorrak (5208)	2.000
	-----X-----		
	-----X-----		
	Deskontatutako merkataritzako		
2.000	efektuak (4311)		
		Karterako merkataritza-efektuak	
		(4310)	2.000
	-----X-----		
4.	-----X-----		
	Deskontatutako efektuengatiko		
2.000	zorrak (5208)		
		Deskontatutako merkataritzako	
		efektuak (4311)	2.000
	-----X-----		
5.	-----X-----		
	Efektu komertzialen zorroa		
1.500	(4310)		
		Deskontatutako merkataritzako	
		efektuak (4311)	1.500
	-----X-----		
6.	-----X-----		
	Efektu-deskontuagatiko		
25	interesak (664)		
	Beste zenbait gastu finantzario		
15	(669)		
	Banku eta Kreditu Erakundeak		
1460	ageriko k/k, € (572)		
		Deskontatutako efektuengatiko	
		zorrak (5208)	1.500
	-----X-----		

Efektu-deskontuagatiko interesak kalkulatzeko, eragiketa hau egin behar dugu:

$$1.500 * \frac{60}{360} * 0,1 = 25 \text{ €}$$

Epemuga heldu bitarteko denborak eta interes-tasak denbora unitate berbera hartu behar dute erreferentziatuz; kasu honetan, ekitaldia da; beraz, 60 egun horiek urtetan adierazi behar dira, urte komertziala 360 egunekoa dela kontuan hartuz (1/6 urte).

7.	-----x-----		
	Deskontatutako efektuengatiko		
1.500	zorrak (5208)		
	Beste zenbait gastu finantzario		
12	(669)		
		Banku eta Kreditu Erakundeak	
		ageriko k/k, € (572)	1512
	-----x-----		
	-----x-----		
	Merkataritzako efektu		
1.500	ordaindugabeak (4315)		
		Deskontatutako merkataritzako	
		efektuak (4311)	1.500
	-----x-----		
8.	-----x-----		
	Efektu komertzialen zorroa		
1514	(4310)		
		Merkataritzako efektu	
		ordaindugabeak (4315)	1.500
		Beste zenbait sarrera finantzario	
		(769)	14
	-----x-----		
9.	------(2+12)-----		
	Merkataritzako efektuak		
1514	kobrantsa-gestioan (4312)		
		Efektu komertzialen zorroa	
		(4310)	1514
	-----x-----		

10.	-----X-----		
1511,6	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)		
2,4	Banku-zerbitzuak eta antzekoak (626)		
		Merkataritzako efektuak kobrantza-gestioan (4312)	1514
	-----X-----		
11.	-----X-----		
4.000	Merkataritzako efektuak kobrantza-gestioan (4312)		
		Efektu komertzialen zorroa (4310)	4.000
	-----X-----		
12.	-----X-----		
4.000	Merkataritzako efektu ordaindugabeak (4315)		
		Merkataritzako efektuak kobrantza-gestioan (4312)	4.000
	-----X-----		
	-----X-----		
128	Banku-zerbitzuak eta antzekoak (626)		
		Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k,€ (572)	128
	-----X-----		

Komisioak, 12. puntuan zehazten diren biak, eragiketa honen bitartez kalkulatu dira:

$$0,002*4.000 + 0,03*4000 = 128 \text{ €}$$


13.	-----X-----		
4.000	Kobrantza dudagarriko bezeroak (435)		
		Merkataritzako efektu ordaindugabeak (4315)	4.000
	-----X-----		

-----X-----			
4.000	Trafiko-kaudimengabeziatarako hornidurarako zuzkidura (694)	Trafiko-kaudimengabeziatarako hornidura (490)	4.000
-----X-----			
14.	-----X-----		
900	Banku eta Kreditu Erakundeak ageriko k/k, € (572)		
3.100	Merkataritza-kreditu kobraezinengatiko galerak (650)	Kobrantza dudagarriko bezeroak (435)	4.000
-----X-----			
-----X-----			
4.000	Trafiko-kaudimengabeziatarako hornidura (490)	Trafiko-kaudimengabeziatarako hornidura aplikatua (794)	4.000
-----X-----			

Galera (4.000 €) hornidurako zuzkiduraren idazpenaren bitartez kontabilizatu dugu, kreditu guztitik 900 € errekupeatzea lortu dugu, eta gainerakoa (3.100 €) berriro eraman dugu galeretara; beraz, inoiz galeratzat eraman zena trafiko-kaudimengabeziatarako hornidura aplikatuaren bitartez berreskuratu behar dugu.

4.5 Bibliografia

- ✓ *Ekonomia eta enpresen antolaketa*. Mc-Graw Hill
- ✓ *Ekonomia eta Finantzak hiztegia*. Uzei.
- ✓ *Prozesu kontable eta administratiboak*. Nafarroako Gobernua.
- ✓ *Salerosketaren administrazio-kudeaketa*. www.elhuyar.com
- ✓ Unibertsitateko irakasleen apunteak.
- ✓ *Kontabilitate-plan orokorra*. Elhuyar.
- ✓ *Kontabilitate orokorra*. Jesús Omeñaka García.



LANBIDE
EKIMENA